



Eduene Sagasta  
zientzia ikerlariari  
elkarrizketa

Errefuxiatuen  
egoera Greziako  
kanpalekuetan

## OÑATI ETA BALTISTAN BAT EGINIK, EKINTZAILETZAREN BIDEZ PROIEKTUAK BULTZATZEKO

Baltistan Fundazioari  
eta LEINN graduondoari esker,  
ekintzaitasuna zer den  
ikasten aritu dira Oihane  
Aizpurua oñatiarra eta Shazia  
Maryam baltiarra / 34

Oihane Aizpurua oñatiarra eta Shazia  
Maryam baltiarra, Oñatin, solasean.

IBAI ZABALA

# Aramaio, bertsoaren topagune zapatuan

Bertsolariak eta bertsozaleak elkartuko dira Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen 51. Bertso Eguna egun osoan ospatzeko / 40

**Herririk herri egin  
dute dei urtarilaren  
30ean "lan, pentsio  
eta bizitza duinen  
alde" greba egiteko** / 2

**Ezohiko gaitza  
ezagutzera emateko  
lanean, Arrasaten bi  
errakitismo kasu  
antzeman ostean** / 6

**Arrasateko Emakume  
Txokoaren Jabetza  
Eskolak askotariko  
ikastaro eta tailerrak  
eskainiko ditu** / 13

**Debagoieneko udalek  
aukeratu dituzten 9  
kirolariak aurkeztu  
dituzte DKS19  
sarietan** / 38

### SINADURAK

 OIHAN VITORIA / 8	 ANDRES OSA "SAKONA" / 25
 OSCAR GARCIA / 12	 JOSEAN QUANGUREN / 32
 JOKIN LARRAÑAGA / 16	 MIKEL IRIZAR / 48





Bergarako agerraldian parte hartu zuten pentsiodunak, eragileak eta herritarrak. M.S.

## Urtarrilaren 30ean greba orokorra egiteko deia

Pentsioak, lan baldintza duinak eta eskubide sozialak bermatu daitezela eskatzeko egingo dute greba, protesta egiteko "hamaika arrazoi" dituztela iritzita. Urtarrilaren 30erako ez ezik, aurreko egunetarako ekintza sorta antolatu dute ibarreko herrietan

**Maialen Santos** DEBAGOIENA

Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaleto eta Eskoriatzako lagunek agerraldia egin dute asteon, urtarrilaren 30ean egingo den greban parte hartzera deitzeko. Itsaso Ruiz de Larrinaga arrasatearrak azaldu zuen zeintzuk diren grebara joateko arrazoiak: "Konbentzimendu hirukoitz baten batu gaitu: batetik, pentsioe-

na denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa delako; eta azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira". Azaldu moduan, egoera ikusita "beharrezkoa" iruditzen zaie jauzi bat ematea: "Garaia da azken urteetan kendu diguten gutzia berreskuratzeko. Garaia

da lan, pentsio eta bizitza duinak bermatzeko eta norabide horretan dagozkigun erabakiak hemen, bertatik bertara, guk geuk hartu ahal izateko". Hala, bestelako eredu sozial eta ekonomiko baten alde, tokiko merkataritzaren alde, kontsumo eredu jasangarriaren alde, eskubide sozial eta laboralen errespetuan eta justizia sozialean oinarrituko den

ereduaren alde greba egingo dutela azaldu zuen, eta langile, langabe, pentsiodun, etxeko langile, ikasle, dendari nahiz tabernari guztiei mobilizazioetan parte hartzeko dei egin zieten.

### Bergaran ere ildo beretik

Bergaran pentsiodunek eta greba batzordea osatzen duten beste hainbat eragilek ere bat egin zuten urtarrilaren 30erako greba deialdiarekin. "Krisia aitzakia hartuta eskubide ugari murriztu dizkigute, lan eta bizitzaren prekarizazioak ez du etenik izan. Momentua iritsi da planto egiteko"; hori esanez hasi zuen hizketaldia ELA sindikatuko Amagoia Lasagabasterrek. Gaineratu zuenez, besteak beste, lan baldintza hobekuntza eskatu gura dituzte, baita eskubide sozialetan hobekuntzak ere. Bestalde, zaintza lanak balioan jarri daitezela eskatu nahi dute.

Pentsiodunen izenean hitz egin zuen, bestalde, Itziar Usandizagak, eta orain arteko aldarriekin jarraitzeko grebara batuko direla azaldu zuen: "Pentsioak 0,9 igo badituzte ere, inflazioa 1,2koa da oraindik. Ondorioz, eros ahalmena galtzen ari gara", zioen.

### Egitaraua, herriz herri

Greba egunerako ez ezik, aurreko egunetarako egitarau zabala antolatu dute. Hasteko, hilaren 18an, aldarri feministak izango dira nagusi herri gehienetan, eta ekintza ezberdinak egingo dituzte. Arrasaten, 11:00etan batuko dira, Biterin, auzoetan ibilbide feminista girotua egiteko; Oñatin, 13:00etan elkartuko dira, plazan, poteo feminista hasteko; Bergaran, bestalde, auzo bira informatiboa egingo dute, 11:30ean Boluko plazatik hasita, eta Eskoriatzan, azkenik,

ekintza feminista eramango dute aurrera egunean zehar.

Pentsiodunek ere izango dute lekua egitarauan. Hain justu, hilaren 20an, astelehenero legez, Arrasateko pentsiodunek elkarretaratzea egingo dute plazan. Protestan hasi zirenetik bi urte bete direnez, mokadutxoak jateko aukera izango dute, gainera. Oñatin ere egingo dute manifestazioa erretiratuek. Urtarrilaren 27an izango da hori, 12:00etan. Eta Bergaran, pentsio publikoen aldeko hitzaldia egingo dute urtarrilaren 21ean, Seminarixoan, 18:30ean hasita.

Grebaren baitako ekintzekin jarraitzeko, hilaren 25ean, Eloregerira martxa egingo dute, LAB sindikatuko Ana Sebal Agirregabiriak azaldu duenez. "Arrasateetik, Bergaratik eta Oñatitik joango gara, eta bertan hitzartze ekitalditxo bat egingo dugu".

Gainontzeko egitarauaren berri jakiteko, kontsultatu [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) webgunea.

### Urtarrilaren 30eko ekintzak

Greba orokorraren egunean egingo dira mobilizatorik esanguratsuenak. Arrasaten, Bergaran eta Oñatin bi mobilizazio egingo dituzte -12:00etan eta 18:00etan-. Antzuolan, 10:00etan hasiko dira eguneko egitarauarekin, kalejira egingo baitute. Eguerdian, elkarretaratzea egingo dute, herriko plazan; 16:00etan, batzarra; eta, eguna amaitzeko, 18:00etan, manifestazioa egingo dute, plazatik hasita.

**12:00ETAN ETA 18:00ETAN EGINGO DIRA MOBILIZAZIOAK OÑATIN, BERGARAN ETA ARRASATEN**

## Bi urte bete dira pentsiodunak kalera ateratzen hasi zirenetik

Gabonetako etenaldiaren ostean, eskubideen alde "borrokan" jarraitzeko gertu azaldu dira erretiratuak

**M.S.** DEBAGOIENA

Atzo, urtarrilaren 15a, bete ziren bi urte erretiratuak "pentsio duinen" alde protestan hasi zirenetik. Orain arte, astelehenero egin dituzte elkarretaratzeak Debagoieneko herrietan, eta

beren "eskubideak" aldarrikatzeko asmotan bide beretik jarraituko dutela iragarri dute.

Gabonetako etenaldia eginda, astelehenean egin zuten urteko lehen elkarretaratzea, eta borrokan jarraitzeko "indartsu"

eta "gertu" itzuli direla azaldu zuten Bergarako pentsiodunek.

Aldarrikapenak, bestalde, ez dira aldatu. Eskaeren artean daude, besteak beste, pentsioak KPIaren arabera gaurkotzea eta legez bermatzea; sontegarritasun eta birbalorazio faktoreak ukatzea; pentsio txikiak gehien igotzea; eta 1.080 euroko gutxiengo pentsioa lortzea. Urtemuga ospatzeko, Arrasaten, esaterako, txistorra eta patata-tortilla banatuko dituzte datorren astelehenero elkarretaratzean.



Begarako pentsiodunen urteko lehen elkarretaratzea, astelehenean. GOIENA





Debagoieneko hiru txakolingile, izako uztak emandako txakolina aurkezten. GOIENA

## Ibarreko txakolingileak "pozik" aurtengoarekin

Getariako Txakolina jatorri izenak San Anton egunez, gaur, egingo du 2019ko uztak emandako txakolinaren aurkezpena. Ekoizle debagoiendarrik ez da bertan izango, baina gaurko data mugarri hartuta "laster" hasiko dira mahastiek emandakoa saltzen

**Maialen Santos/Amaia Aranegi**  
DEBAGOIENA

San Anton egunarekin batera, Getariako Txakolina izena dararamaten upategiek gaur egingo dute aurtengo denboraldirako ekoiztutako txakolinaren aurkezpena. Ekoizle debagoiendarrik ez da ekitaldian izango; aurreantzean, bailarako txakolina dastatzerik izango da, halere.

Ibarreko bost baserrian dituzte Getariako Txakolina sormarkako txakolina egiteko mahastiak: Arrasaten bik eta beste hiruk Oñatin. Arrasaten, Bedoñako Artazubiaga baserrian Otxia txakolina egiten dute; Egihaundi baserrian, berriz, Kataide txakolina. Oñatin, Murgialdai baserrikoek izen bereko txakolina merkaturatzen dute; Zañartu auzoko Belaskua baserrian ere etxearen izen berekoa; eta auzo horretan bertan Upaingoa baserrian ere ekoizten dute txakolina. Ekoizle guztiek ez dituzte upategiak. Aurtengo uztari buruz galdetuta, gehienak bat

datoz: uza ona izan dela diote. Otxia txakolingile Felix Etxagibelen aburuz, eguraldiak mahatsari asko lagundu dio: "Eguraldi lehorra egin du, hezetasun handirik gabekoa. Mahatsa inoiz baino osasuntsuago eta heldutasun maila onean jaso dugu". Belaskuako Jon Urzelaireren iritziz ere "erraza" izan da mahatsa ateratzea, baina bi ezusteko izan ditu: "Maiatzean egindako izozte batek mahasti sail bat kalte zidan. Baina hori baino okerragoa izan da orkatzek eragindako kaltea". Ezaugarriei buruz galdetuta, gustura azaldu dira lortutakoarekin. Murgialdaiko Aritz Galdosek esan duenez: "11,5 graduko txakolina egin dugu. Iazkoaren berdintsua dela

**BAILARAKO BOST BASERRIK EKOIZTEN DUTE TXAKOLINA: HIRUK OÑATIN, ETA BIK ARRASATEN**

esango nuke, baina aurtengoa apur bat sikuagoa da".

**Laster, dastatzeko prest**

Kataide Txakolinaren ekoizleek etxean egiten dute txakolina, eta botiletan zatika joaten dira sartzen. "Gehienbat, etxerako egiten dugu. Dagoeneko probatu dugu eta pozik gaude". Upaingoak izan ezik, gainontzekoek ez dute upategirik, eta, beraz, beste nonbait botilatu behar izaten dute. Otxia Txakolina, esaterako, otsail bukaeran botilatuko dute, txakolina egitearen prozesuak "bere denbora" behar duela iritzita: "Uste dut txakolinari ez zaiola prozesua bultzatu behar", argitu du Etxagibelek. Bi oñatiarrek –Belaskua eta Murgialdai–, aldiz, dagoeneko "merkaturatzeko prest" dute. "Getariara ez joan arren, San Anton egunetik aurrera hasten gara saltzen eta probatzen".

Bailarako txakolina dendetan eta tabernetan eskuratu ahal izango da, beraz, aurreantzean.

## Tesi experimental onenaren saria, Edurne Sagastarentzat

Fisikaren barruan materia kondentsatuaren esparruan egindako ikerketagatik eman diote estatu mailako saria

**M.S. ARRASATE**

Espainiako tesi experimental onena aukeratu dute Edurne Sagasta arrasatearrak egindakoa; Gefes 2019 saria irabazi du.

Fisika oinarri hartuta, materia kondentsatua lantzen jardun du ikerlariak, Donostiako Nanogune ikerketa-zentroan, lau urtez. Irailean Madrilan egingo den nazioarteko kongresu batean jasoko du saria: hitzaldi bat emateko aukera. Sagastak berak azaldu duenez, "sari potoloa" da hori, kontuan hartuta zientzian zein garrantzitsua den hitzaldiak eman edota artikulua

publikatzea. Ikerketa-lana zertan datzan ere azaldu du. "Gailu elektroniko guztiek elektroien kargak dituzte. Baina aparailu horiek beste propietate batzuk ere badituzte: tartean, *spin*-a, magnetizazioari lotuta dagoena", azpimarratu du. 1980ko hamarkadan, magneto-erresistentzia erraldoia deskubritu zuten, memoria magnetikoak irakurtzeko erraza. Eta bere ikerkuntza da, besteak beste, memoria horiek nola idatzi.

Edurne Sagastari egindako elkarrizketa irakurtzeko, ikus gaurko *Puntua*, 222. zenbakia.



Edurne Sagasta, *Puntua* aldizkarirako ateratako argazkian. GOIENA

## Listeria detektatu dute Zubiak ekoiztako hainbat produktutan

Merkatutik erretiratu dituzte kutsatutako produktuak, foie blok-medailoak. Pertsona kalteturik ez dago

**M.S. ESKORIATZA**

Eskoriatzako Zubiak enpresak ekoiztako lau ahate eta foie-medailoi lotetan detektatu dute listeria. Enpresak berak aditzera eman duenez, autokontrol sisteman oinarritutako analisi mikrobiologikoetan atzeman dute *listeria monocytogenes*-a. Kutsatutako produktuak abenduan ekoitzi ziren, eta, adierazi dutenez, "ekoizpen prozesuan gertatutako kutsatze puntual" batek eragin du kasua. Momentuz, baina, infekzio kasurik ez dela gertatu azaldu dute.

Prebentzio neurriei dagokienean, kutsatutako produktuak merkatutik erretiratu dituzte, baita enpresak egindako beste hainbat produktu ere. Era berean, ekoizpen prozesuan kutsatutako guñeak garbitu eta desinfektatu egin dituzte. Dena den, kutsatutako produkturen bat etxean izanez gero ez kontsumitzeko eskatu du enpresak. Barkamena ere eskatu dute, eta lasaitasuna mantentzeko dei egin.

Erretiratu dituzten produktuak zeintzuk diren jakiteko, kontsultatu [www.pateszubiak.com](http://www.pateszubiak.com).



Joserra Zubizarreta, Ander Garay, Maria Ubarretxena eta Maitane Muñoz, EAJko ordezkariak... AITZIBER ARANBURUZABALA

# EAJren proposamenak Mankomunitatearentzat

Mankomunitateko aurrekontuak "osatu eta hobetzeko" hiru proposamen egin ditu Debagoieneko Euzko Alderdi Jeltzaleak: Turismo Plana eguneratzea, 'Bihotz solidarioa' tapoi bilketa solidarioa eta zaborraren sailkapena indartzeko kanpaina

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Mankomunitatearen egoitzan eguazten eguerdian egin zuten prentsurrekoan izan ziren Arrasateko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako EAJko batzarkideak. Arrasateko ordezkari Ander Garayk azaldu duenez: "Debagoienarentzako interesekoak diren proiektuak ditu alderdi jeltzaleak, herritarren bizi kalitatean eta ongizatean zuzenki eragiten dutenak, eta horiek aurrera atera nahi ditugu kontsentsuz eta gestio partekatua oinarri hartuta".

Arrasateko ordezkariak gaineratu du egindako proposamenek EH Bilduk Mankomunitatean 2020rako proposatu duen aurre-

kontua "hobetzeko" helburua dutela: "Herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea eta debagoienar ororen beharrak asetzeta da gure premisa nagusia. EH Bilduk Mankomunitatean 2020rako proposatu duen aurrekontua hobetzeko ekimen eta proiektu desberdinak aurkeztu ditugu eta horiek elkarlanean nahi ditugu landu".

Bide horretan, eta "hobetze aldera", hiru proiektu aurkeztu dituzte jeltzaleek: Debagoieneko Turismo Plana eguneratzea, *Bihotz solidarioa* izeneko tapoi bilketa solidarioaren egitasmoa eta zabor sailkapena indartzeko kontzientziazio kanpaina bultzatzea.

**Hondakinen sailkapena**

Eskualdean, orokorrean, 2019ko urritik gaikako bilketan jaitsiera gertatu dela azaldu dute Debagoieneko EAJ alderdiko ordezkariak: "Iazko datuak kontuan izanda, urtariletik abendura ere jaitsi egin dira: Arrasaten, batez beste, iaz, %76,43 jasotzen zen gaika, eta azaroan, berriz, %74,73; Eskoriatzan, %76,36 zen batez bestekoa iaz, baina azaroan, %73,75. Datu onak dira, baina jaitsiera puntu bat gertatu da".

Era berean, gaineratu dute "edukiontzia inguruetan zaborrak" pilatzen direla eta guneak ez daudela oso txukun: "Horregatik, kontzientziazio eta sentsibiliza-

zio kanpaina berriak martxan jartzea proposatzen dugu, Hondakin Bilketan eta Garbiketaren alorrean Plangintza Estrategikoa zehaztea eskatuz".

**Turismo Plana**

Turismoaren alorrean, eskualdeko herrien arteko elkarlana indartzen jarraitu gura du EAJk: "Turismo Plan bat izateko unea iritsi da. Ezinbestekoa eta oso aberasgarria litzateke eskualde izaeraz lantzea turismoa, herrien garapen ekonomikoaren hanka inportantea da eta urtez urte geroz eta bisitari gehiago jasotzen ditugu". Hala, ezinbestekotzat jo dute "estrategia komuna" lantzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ildo estrategikoarekin bat eginez.

**'Bihotz solidarioa' ekimena**

Herritar "askok" egin dieten eskaerari erantzunez, herritar bihotz formako estruktura bat jartzea proposatu dute jeltzaleek, horien bitartez plastikozko tapoi bilketa egiteko eta bertan batutako tapoiak birziklatzeko helburuarekin. Garayk azaldu duenez, "espazio gutxi eskatzen du eta estruktura sinplea da".

Tapoien salmentarekin batutako dirua herriko irabazi asmorik gabeko elkarteei ematea proposatu dute: "Mankomunitateko Batzordean gai hau landu beharko litzateke, eta, erabakiko diren irizpideen arabera, errotazio sistema bat jarri; esaterako, estruktura jarriko duten herrien artean. Horrela, irizpideen artean proposatzen dugu irabazi asmorik gabeko eta lan sozialetara zuzenduta dauden boluntarioz osaturiko elkarteetara bideratzea egitasmoan jasotzen diren sarrerak, behin bilketa gastuak estalita".



Isabel Salud, Bergaran. GOIENA

## "Orain, botere ekonomikoak eta eskuma dira erronka"

**ISABEL SALUD**

EZKER ANITZAKO

KOORDINATZAILEA

Espainiako Gobernu

berriaz aritu da Salud

**J.O.** DEBAGOIENA

Isabel Salud katalana da jaiotzez, baina urte asko daramatza Bergaran bizi izaten. Ezker Anitzako koordinatzaile nagusia da. 2016tik 2019ra parlamentaria izan da Espainiako Diputatuen Kongresuan, Gipuzkoatik, Unidas Podemos koalizioa ordezkatuz. **Nola ikusten duzu Pedro Sanchezen Gobernu berria?**

Langile klaseen bizi kalitatea hobetzeko itxaropen handia eragin duen Gobernu da, eta Unidas Podemos da horren bermea. **Zelan baloratuko zenuke gobernu hau eratzeko biziaren prozesua?** Prozesu luze eta gogaikarria izan da, herritarrengan asperaldia eragin duena, baina, azkenean, lortu da. Orain, etorkizunera begiratu behar da, eta adostutakoa betetzeko lan egin.

**Zeintzuk dira erronka nagusiak?** Botere ekonomikoari eta enpresari handiei aurre egin beharko diete, eta, noski, etengabe kontratuzko izango duten eskumari. **1939a ezker, alderdi komunistako kide den lehen ministroa du Gobernu honek...**

Ezkerren barruko aniztasunaren isla da, baita alderdi komunistari aitormena, frankismoaren kontra eta demokrazia-aren alde egindako lanagatik.

## Aita Menniko langileak borrokan, "hitzarmen berri baten alde"

Abenduaren 4an hasi zituzten mobilizazioak eta "hitzarmena lortu arte" eguenero batzen jarraituko dute

**J.O.** DEBAGOIENA

ELA sindikatuak adierazi duenez, urtebete pasa da Aita Menniko langileak enpresarekin hitzarmena negoziatzen hasi zirenetik: "Enpresak ez du inolako borondatek langileen lan-baldintzak

hobetzeko, eta borrokan segituko dugu".

Horrela, 2017tik hitzarmena "izoztuta" dutela salatu du enpresa batzordeak, eta aldarrikapenak zerbitzuaren eta lanaren kalitatean "ezinbestekoak"

direla azaldu dute: "Erosahalmena berreskuratzeko, soldata igotzea eskatzen dugu, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko soldata arrakala –bai ospitalean, baita kanpoan ere– ezabatzeke jautsi kualitatiboak eman nahi ditugu".

Behin-behinekotasunari, langile faltari eta jardunaldi partzialeri aurre egiteko "plangintza gardena" eskatu dute. Behar berezi asko dituzten pazienteekin lan egiten dutela gogorazi dute, eta urtean 400 intziden-

tziatik gora dituztela. Diotenez, hala ere: "Arriskuei aurre egiteko prebentzio neurri errealik edo kalte-ordain plusik ez da existitzen". Haien lanaren kalitateak pazienteen ongizatean "eragin zuzena" duela azaldu dute, eta zuzendaritzak interes ekonomiak "lehenetsi" dituela.

Abenduaren 4an egin zituzten lehen mobilizazioak, eta hitzarmena lortzeko "borrokan" jarraituko dute. ELAk azaldu duenez, eguenero mobilizazioekin jarraitzeko asmoa dute.



# AMETSAK Betetzeko DANPELAKO!



KONFIANTZAREN  
PEDAGOGIA

## MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

URTARRILAREN 27tik  
OTSAILAREN 7RA

### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

**erdu**  
PROIEKTUA

#### ATE IREKIAK

URIBARRI	urtarrilak	21	(asteartea)	17:30	Arrasate
OLARTE	urtarrilak	22	(asteazkena)	17:30	Arrasate
BASABEAZPI (2-6 URTE)	urtarrilak	22	(asteazkena)	17:30	Aretxabaleta
JOSE ARANA	urtarrilak	23	(osteguna)	17:30	Eskoriatza
SANTA TERESA (2-6 URTE)	urtarrilak	23	(osteguna)	17:30	Arrasate
UMEZAINZA	urtarrilak	28	(asteartea)	17:30	Arrasate



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Arizmendi Ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzu  
(0-3 URTE)



ESKORIATZAKO  
UDALA

Arizmendi Ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzu  
(0-3 URTE)

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE **gura batu**

PROIEKTUA PROIEKTUA

#### ATE IREKIAK LH 1

SANTA TERESA	urtarrilak	27	(astelehena)	09:15-11:00 / 14:45-16:30	Arrasate
ALMEN	urtarrilak	28	(asteartea)	09:15-11:00 / 14:15-16:00	Eskoriatza
ARIMAZUBI	urtarrilak	29	(asteazkena)	09:15-11:00 / 14:45-16:30	Arrasate
GAZTELUONDO	otsailak	5	(asteazkena)	09:15-11:00 / 14:45-16:30	Arrasate



Gainontzeko kurtsoetarako jami harremanetan bilera eskatzeko:  
S. Teresa (Iban Roa: inoa@arizmendi.eus), Almen (Aritz Oianguren: aroianguren@arizmendi.eus),  
Arimazubi (Dorleta Arana: daranao@arizmendi.eus),  
Gazteluondo (Miren Urbesalgo: murbesalgo@arizmendi.eus).

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

**batu izen**  
PROIEKTUA PROIEKTUA

#### BILERA INFORMATIBOAK DBH 1

SANTA TERESA	urtarrilak	28	(asteartea)	17:30	Arrasate
ALMEN	urtarrilak	29	(asteazkena)	17:30	Eskoriatza
GAZTELUONDO	otsailak	4	(asteartea)	17:30	GAZTELUPEN Arrasate
ARIMAZUBI	otsailak	5	(asteazkena)	17:30	Arrasate



DBH 2-3-4 kurtsoetarako jami harremanetan bilera eskatzeko:  
Almen (Unai Busturia: ubusturia@arizmendi.eus),  
Gaztelupe (Elena Errasti: eerrasti@arizmendi.eus).





Alberto Caballero eta Markel Caballero –errakitismoa daukan haurra– Arrasateko jolas parke batean. E.A.

## EAEko hiru errakitismo kasuetatik bi, Arrasaten

Odoleko fosforo maila normala baino baxuagoa izaten dute errakitismoa duten pertsonen; Markel Caballero arrasatearra horietako bat da, eta Alberto Caballero, bere aita, patologia eta hari lotutako elkarrekin ezagutarazteko lanetan ari da

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Askotariko errakitismoak egon arren, bi mota dira ohikoena: X kromosomari lotutako errakitismo hipofosfatemikoa eta XLH, hereditarioa dena.

Lehenengoa diagnostikatu zioten arrasatearrari, 3 urte eta erdi zituela –orain 5 ditu–. "Oinez arraro ibiltzen zela ohartu ginen hasiera batean, baina pediatrik beti esaten zigun normala zela. Egun batean, parkean pilotarekin jolasten ari ginela, belaunean min hartu zuen eta konturatu ginen belauna zertxobait desbideratuta zeukala. Orduetik aurrera, medikutan hasi ginen, ez zelako normala gertatzen zitzaiona. Traumatólogoarengana eraman genuen lehenengo, espezialista ezberdengana gero, eta Nafarroako Opuako ospitale batera azkenik. Han, Kongon ikasten aritutako traumatologo batek, ikustearrekin bakarrik, errakitismoa diagnostikatu zion", azaldu du Alberto Caballerok, aitak.

Arrasatearrarena ez da hereditarioa. "Nire semearen kasua isolatua da; hau da, ez du inorengandik heredatu. 20.000 haurretik bati diagnostikatzen diote patologia hau", dio aitak.

### Fosforoa, ohi baino baxuago

Caballeroren esanetan, fosforoa gorputzeko bigarren bitamina garrantzitsua da, eta errakitismoa dutenen fosforo maila normala baino baxuagoa izaten da. "Horrek deformazioa eragiten du. Normalean, gorputzadarretan izaten da deformazio hori, baina errakitismo mota desberdinak daude. Patologia hori dutenek giltzurrunean PHEX izeneko gene bat edukitzen dute, eta horrek eragiten du odoleko

**"GORPUTZA GEHIAGO DEFORMATU EZ DADIN" EGUNEAN LAU ALDIZ HARTU BEHAR IZATEN DU FOSFOROA**

fosforo maila ohi baino baxuagoa izatea", azpimarratu du.

Hori dela eta, egunean lau aldiz hartu behar izaten du fosforo dosi bat, hauts edo likido forman, "gorputza gehiago deformatu ez dadin".

### Elkarrekin gizarteratzen

Alberto Caballerok gura duena da euskal gizarteak jakin dezan patologia hau existitzen dela. "Espainia mailako elkarrekin ere badago, Asociación Española de Raquitismos y Osteomalacia Heredados izeneko". Hala, itsulapiko batzuk jarri ditu Arrasateko hainbat tabernatan, elkarrekin buruzko informazioarekin, patologiarekin ikerketarako dirua batzeko, "oraindik ez delako hain ezaguna eta bada-goelako zer ikertu".

Euskal Autonomia Erkidegoan hiru errakitismo kasu daudela jakinarazi du Caballerok, bi Arrasaten eta bat Bilbon. Arrasateko beste familiak, aldiz, ez du adierazpenik egin nahi izan.

## 2.000 kilo elikagai jaso ditu Aita Mennik, Lesbos-era bidaltzeko

Zaporeak-en materiala salduta 2.000 euro lortu dituzte eta Benito Menni Fundazioak 7.000 euro eman ditu

### E.A. ARRASATE

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearekin bat egin du Aita Menni ospitaleak eta abendu eta urtarril artean Greziako Lesbos uharterko errefuxiatuen dako laguntza batzen jardun du. Modu horretan, 2.000 kilo elikagai jaso ditu. Era berean, Zaporeak elkarrekin materiala salduta 2.000 euro lortu dituzte eta Benito Menni Fundazioak 7.000 euro eman ditu.

### "Oso eskertuta"

Aita Menni ospitaleko elkartasun arduradun Egoitz Zabala eskertuta agertu da. "Laguntza eman duten guztiak eskertu gura ditut, beste urte batez: ospitaleko lan-kideak, boluntario lanetan jardun dutenak, egoiliarak eta horien senideak, Ahizpa Ospitalarioen komunitate osoa –Aita Menni bertako kide izanik– eta komu-

nitateko kide izan gabe ere bere laguntzatxoa ematera gerturatu diren norbanakoak. Eta era berezian eskertu gura dut jasotako dagokion lekura iristeko Benito Menni Fundazioak emandako laguntza ekonomikoa", azpimarratu du.

Zaporeak elkarrekin errefuxiatuen kanpamentuetan egiten dabilen lana ere eskertu eta txalotu du Zabalak: "Baztertutako pertsonarik ez dagoen mundua eraikitzen jarrai dezagun, gerraren ondorioz etxea eta senideak utzi eta inork itsasoratu beharrik izango ez dezan mundu bat, hain zuzen ere".

### Hiru lekutan egin dute bilketa

Bilketa hiru lekutan egin dute Aita Menniko kideek: Arrasaten, Durangoko Jose Miel Barandiaran egoitzan eta Bilboko Txurdinagako egoitzan.

### ARIZMENDI, KOOP. E.A. REN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E.aren Estatutu Sozialetako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2019ko abenduaren 19an egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.aren bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**EGUNA:** 2020ko otsailaren 6a.

**LEKUA:** Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

**ORDUA:** Lehen delaldia: 17:30ean. Bigarren delaldia: 18:00etan.

### GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespeneraren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2018-2019 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2018-2019 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbieraren Aldaketen egoera-orka, Diru Fluxuen egoera-orka eta Txostena), eta baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2018-2019 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2019-2020 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Soziala berriztatzea
7. Kontseilu Errektorearen aldaketa
8. Zaintza Batzordea berriztatzea
9. Barne Araudiaren 62 artikulua aldaketa eta berregindako testuaren onarpena
10. Kontseilu Errektorearen ahalduak Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikartzeko
11. Galde-erantzunak

arizmendi  
ikastola

Goretti Maturana Esquibel  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Arrasate, 2019/12/19



## GUTUNAK

**Mila kilo, mila esker**

**NURIA AGIRRE ETA MARIA AGIRRE**  
ZAPOREAK TALDEKO KIDEAK  
ARETXABALETAKO

Mila kiloko erronka jarri zenuten. Eta, azkenean, 1.465 kilo elikagai jaso. Ez zen erronka makala, baina lortu duzue. Janari hori guztia laster iritsiko da Lesbosera, eta handik Zaporeak taldeak duen sukaldera. Behin sukaldari eta boluntarioek jakiak prestatuta, errefuxiatuen kanpalekuetan dauden lagunei banatuko zaie. Beharra handia da, baina Aretxabaletan jasotako elikagaiek zertxobait arinduko dute errefuxiatuen kanpalekuetan dagoen larrialdia.

Gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu Zaporeak taldearen elkartasun kanpainarekin bat egin duten aretxabaletar

guztiei, eta, bereziki, UDA kirol elkarteari.

Eskerrrik asko modu batera zein bestera lagundu duzuen guztioi.

**Eskubideen gainbehera etengabea geratzeko: U30, greba orokorra!**

**MARIASUN ZELAIA, MIKEL OLEA, LIERNI ARREGI ETA JOSE ANTONIO AMUNDARAIN**  
OÑATI

Egun bizi dugun eredu ekonomiko eta soziala sostengaezina da: aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da kapitalaren zerbitzura dagoen politika fiskalaren bitartez, eta pobrezia gorantz doa.

Bestalde, pentsio publikoetan etengabe murrizketak egin dira hiru bidetatik: pentsio berrietan murrizketak, eroste-ahalmenaren galera eta erretiro adina atzeratzea.

Lan munduan prekaritatea estrukturala da eta okerrera egin du lan erreformen bidez: langabezia, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, eros-ahalmenaren galera, soldata arrakala, azpikontratazioa, uberizazioa...

Lan eremuaz gain, bizitza sostengatzeko egitura kolektibo eta publikoak ere prekarizatzen ari dira, babes sozialerako sistema eraitziz: osasuna, prestazio sozialak, etxebizitza, zaintza...

Horren guztiaren ondorioz, pobrezia eta babesgabetasun soziala ere gero eta handiagoa da. Honek guztiak, gainera, izugarritzko genero inpaktua dakar berarekin; izan ere, prekarizazio honek guztiak aurretik zeuden desberdintasun eta zapalkuntzak areagotu besterik ez du egiten.

Horregatik, Karta Sozialeko eragileok argi daukagu gutxi

batzuen alde eta gehiengo sozialaren kontrako logikarekin apurto eta eredu sozioekonomiko alternatibo bat eta zaintza nahiz bizitza erdigunean jarriko duen sistema berri baten beharra dugula. Politika publikoak erradikalki aldatu behar ditugu eta horretarako beharrezkoa den pedagogia eta mobilizazioak sustatu behar ditugu.

Mobilizazio bide horretan kokatzen ditugu azken urteetan, lan eremuan ez ezik, mugimendu feministatik eta pentsionisten mugimendutik abiarazitako borroka ezberdinak, eta urtarilaren 30erako borroka guztiak elkarlotuta deitu dugun greba orokorra izango da guztien jarraipen eta inflexio puntua.

Lan, pentsio, bizi duinaren alde... urtarilaren 30ean, denok grebara!

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Jokoan**

**ANDONI EGAÑA**

HTTPS://LABUR.EUS/LU9UT  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Jokoan aritzea gauza ederra da berez. Are ederragoa bizitzaren bi muturretan. Haurrak jokoan trebatzen du bere burua kontaduria lanetan. Balizko zenbakiak kontatzea baino kitzikagarriago zaio irabazitako garbantzuak zenbatzea. Kontatzen ikasten du haurrak jokoan, eta tranpatxoak egiten, edo ahalegintzen behintzat, gerora. Edadetuak ere asko gozatzen du jokoan. Eguna laburtzen denean, gauari tarte bat ohosteko modua izaten du askok kartena. [...]

Egungo jendartean eskas sumatzen den belaunaldiartekotasuna jokoaren bidez zertzen zen lehen. Aita, edo ama, haurrekin aritzen zen kartetan; aitona-amonak bilobekin.

Eta familia otorduen ostein konturatuko zinen nerabe bat, umeagoengandik urrundu eta helduen mahaira hurbiltzen zela, hango jokalarien gorabeherak ulertu nahirik. Handik piska batera Institutuan hasiko zen, eta zerbait ikasita joatea komeni zitzaion. [...]

Joko aretoek jokoak zekarrenaren kontrakoa dakarte hain juxtu: bakardadea, hizkuntzarik eza, egiazko garbantzuak galtzeko arriskua, itomena.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

**Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna**

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

**Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna**

Post gehiago 8. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**







ZABALIK

OIHAN VITORIA

# Paradoxa politikoak

"Spain is back, Spain is here to stay" esanez ekin dio agintaldiari Espainiako Atzerri ministro tolosarrak, curriculumean euskara aise menperatzen duela nabarmendu ostean. Lo kuluxka batekin arindu du Garcia-Margallo PPko eurodiputatuak Bruselako plenoaren zama, Puigdemonten lehen hitzartzeak foku guztiak bereganatu dituenean. Etengabe Madrilera begira gauden honetan, irainak eta orotariko mehatxuak entzun ditugu euskal ordezkari baten aurka. "Hiltzailea", "terrorista", "hil hadi"... Eskuin muturra lehian, nork astakeria ozenagoa esango. Zer eta 280.000 lagunuen aldarrikapenei ahotsa emateagatik. Noiz eta independentismoak lehen aldiz legegintzaldiaren giltza daukanean.

Ez da ezer gertatu. Parlamentari baten eskubideak urratu dituzten horiek lasai antzean jarrai dezakete bide beretik, erromatarren zirkua balitz bezala. Mertxe Aizpurua diputatuak inbestidura saioan sufritutako

## OROTARIKO MEHATXUAK ENTZUN DITUGU EUSKAL ORDEZKARI BATEN AURKA

oldarraldia ez du beste inork pairatu hemiziklo horretan. Inoiz ez bezalako sostengua eta elkartasun olatua eragin du horrek. Bada zerbait.

Euskal presoan hurbilketaren aldeko ikurra hain giro arrotzean

harrotasunez eramatea Auzitegi Gorenera jotzeko motibo bihurtu da aurreneko. Bilbo eta Baionako kaleek 80.000 lagunene babesarekin gainezka egin baino egun bat lehenago iragarri zuen Dignidad y Justicia elkarteak Aizpuruaren aurkako salaketa. Paradoxak. Ikurrek hitzek baino esangura gehiago daukatelako sarritan.

Ministro berrien janzkerari erreparatu diote une oro telebista orduak betetzen dituzten eztabaida antzuek. Bikote batek Ministroen Kontseiluan eserlekua partekatzeagatik ere asaldatu dira beste hainbeste. Erregearen begiradapean, Konstituzioari zin egiteko ekitaldian, kontzentrazio esparruetan hildako komunistak gogoan hartu eta ikur antifaxista bat eramateagatik kritikatu dituzte Unidas Podemoseko ministro berriak. Hain justu, gauzei bere izenez deitzeagatik, itxiera mehatxupean eta jo-puntuak da berriro Vallekaseko harmaila, irain matxistak eta arrazistak doan esan daitezkeen bitartean. Atzera goazela aurrera ez bagoaz.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Euskogizaki eta euskokontsumitzaileak

LUISTXO FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Lanera itzulita 2020ari ekiteko, lasaitasun egun batzuetan bizi naiz bulegoan. CodeSyntax enpresan egiten dut eta 2019ko udazkenean gure produktu batekin izandako arrakastarekin dexenteko zurrunbiloan sartu ginen, lan askorekin. *Egunean behin* jokoaz ari naiz, zeinak etentxo bat egin duen urtarril honetan, batzuei ondo etorriko zaigun atsedean hori emanez.

40.000 edo 50.000 lagunek erabili zuten aplikazioa abenduan. Euskal kulturari buruzko galderekin, trivial simple bat.

Bere erabilpenaren muga demografikoa ote? Beharbada, bai.

Haztekotan, ez dut uste asko asko hazi daitekeenik, eta behera egiten badu ere ez nintzateke harrituko.

40.000 partida egunean, eta partidaz aparte, aplikazioa zabaltzen den aldiak kontuan hartuta, ikuskatzeetan *Egunean behin* euskarazko Interneteko top bisitatuenetik gertu egon da: Wikipediatik. Interakzio neurketaz ari naiz, noski, ze irakurtzeko materiari, noski, ez du aplikazioak, hedabide edo entziklopedia batekin alderatuta.

Bada zerbait, baina... euskalduengoak duen misterioetako batekin topo

egin dugu: zenbat gara benetan? 800.000 euskaldun garelako kopurua beti egin zait sinesten zaila. Lagun pesimista batek 100.000 euskaldun funtzional garela esaten du –optimistago esnatzen denean, 200.000–. Eta merkatua? Zein da merkatuaren neurria, euskara kontsumigai bezala kontsideraturik? Hori bai nekez izango dela 100.000tik gorakoa...

Eta orduan, zein da tartearren azalpena? 800.000 euskogizaki kontsumitzaile, baina bakarrik 100.000 gizaki euskokontsumitzaile?

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.

#### Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiniano,  
Ziortza Martin.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldirikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## BERBAGAI

# "Elikadura egokia lagungarri da Txernobylgo umeendako"

AMAIUR SAINZ CHERNOBILLEN LAGUNAK ELKARTEKO KIDEA

**Naroa Urien Berrio** BERGARA

Chernobilen Lagunak irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta haren helburu nagusia da Txernobylgo zentral nuklearrean (Ukraina) 1986an izandako istripuaren ondorioz kaltetuak izan diren adingabeen osasuna hobetzen laguntzea. Debagoiengan bi familiak parte hartzen dute.

**Zein egoera bizi dute umeek Ukrainan?**

Umeak Kieveko probintzian bizi dira, zentral nuklearretik 50 kilometrorra, erradiazioaren hirugarren eremuan.

Erradiazioaren lehen eta bigarren eremuetan ezin da inor ez bizi, kutsadura gehiegi dagoelako. Beraz, mugan bizi dira, eta bertan bizitzea oso arriskutsua da. Gainera, bertako familiak maila baxukoak dira eta kutsatutako lurrean landatutako janaria jaten dute.

**Zeintzuk dira Euskal Herrira ekartzearren onurak?**

Gure artean denboraldi bat igarotzean, haien immunitate-



Amaiur Sainz. A.S.

sistema indartu egiten da, erradiazio nuklearrarekiko etengabeko esposizioak eragindako ahuleziaren aurka egin eta indarra berreskuratzen dute. Istripu nuklearrak geroztik etsitako

eremua denez, adingabeen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du. Osasunaren Mundu Erakundearen ikerketak dio gure artean hilabete bat egoteak haien bizi-itxaropena 12 eta 18

hilabete artean igotzen duela. Elikadura egokiak, gainera, asko indartzen ditu. **Zuek Makarren familia izan zarete. Nolako izan da esperientzia?**

Esperientzia bikaina izan da. Makarren bitartez gure seme-alabek ere beste errealitate bat ezagutzen dute. Hasieran, pixka bat lotsatuta zegoen, baina seme-alabekin oso ondo konpondu da. Denok hurrengo uda heltzea desiratzen gaude. Familiak animatu nahi ditut proiektu honetan parte hartzera. Gainera, harrera familientzako ez dago profil berezirik. Askok galdetu didate ea bikotekiderik gabe harrera familia izan daitezkeen, eta bai, izan daitezke. Adin guztietakoek, bikotekidedunek edo ez... edozeinek parte hartu dezake. **Parte hartu nahi duten familiek nora jo behar dute?**

[www.chernobilnlagunak.com](http://www.chernobilnlagunak.com) webgunean informazioa duzue. Gainera, harrera familia izateaz gain, beste modu batzuetan lagundu daiteke. Izan ere, dirua eman nahi duenak kontu korrontea topa dezake gure webgunean. 30 urte pasa dira istripitik, baina oraindik arazo asko daude bertan. Mundu guztia parte hartzera animatzen dut!

## HAU BE BADOGU!

**Borja Semperren kargu uztea hizpide izan da**



PPko politikari izandako Borja Semperrek ez duela alderdi politikoan jarraituko adierazi zuen, eta gaia *trending topic* izan da:

@txerren: "Galdera serioa: zein gairekin zen zehazki kritikoa Borja Semper alderdiarekiko? Formetan eta komunikazio estiloan nabarmen, baina edukiarekiko?"

@intxa: "Duo dinamiko berria Mikel Erentxun eta Borja Semper izango dira, tarteka Amaia Monteroren kolaborazioekin".

**Espainiako ministroak eta umorea**

Twitter umorez bete da asteon, Espainiako ministroen kargu-hartzea dela eta:

@Flarruquert: "Xabier Lapitzen saioan, Jon Inarrituk Iglesias jaunari Pablo Sanchez deitu dio lapsus batez. Ministroa izateko Pablo Iglesias Sanchez-tuko da, beharrez. Ea alderantziz gertatzen den ere, eta Pedro Sanchez Iglesiastatzen den!".

@McDepre: "Pedro Sanchezen kartel bati Hitlerren bibotea jarri diote VOXekoek... kar, kar, kar...".

**'#Txotx2020' traolak arrakasta izan du**

Sagardo denboraldi berriari ekin zioten eguaztenean, eta hasiera ekitaldian parte hartu zuen Izaro musikariak:

@sagarlur: "Izaro abeslariak Goikoetxea bariatateko sagarrando bat landatu du Sagardoetxearen sagastian. #Txotx2020".

@euskalsagardoa: "Abian da #txotx2020 denboraldia! 3 milioi litro #EuskalSagardorekin".

@gorrotxin: "Izaro eta sagardoa!! Joe... nire bi pasioak elkarrekin!".

## ITURRI ONETIK

## Gladys del Estal-en gaineko filma Debagoiengan

Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa filma ikusteko aukera izango da otsailaren 11n eta 18an Arrasateko Amaia antzokian eta Oñatiko kultura etxean, eta martxoaren 18an Bergarako Seminarixoan. 1979an Tuteran, zentral nuklearren aurkako manifestazio baten, Guardia Zibilak tiroz hil zuen Gladys del Estal mugimendu antinuklearreko kidearen gainekoa da. Bertha Gaztelumendi da zuzendaria. Bilboko Zinebi zinema dokumentalaren jaialdian aurkezten zuten azaroan.

## ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-01-17

## Gabiria dorrea birgaituta, Tavex-endako

Bergarako Gabiria dorreko lanen birgaitze-lanak amaituta, inauguratu egin zuten. Bergarako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tavex ehungintza taldeak ordaindu zituzten lanak. 1,6 milioi euroko kostua izan zuten. XV. mendeko eraikina 30 urtean erabiltzeko lagapena egin zion Udalak Tavex taldeari. Markel Olano ahaldun nagusiak eta Agurne Barruso Bergarako alkateak inauguratu zuten, Tavexeko ordezkariekin batera.





Arrasateko bibote solidarioak, 2019ko Mondravember eguneko familia argazkia ateratzen. MIRARI ALTUBE

## 2018an baino hiru aldiz diru gehiago batu dute

Arrasateko bibote solidarioen mugimendua handituz doa urtetik urtera, eta, neurri berean, minbiziaren aurka batzen diru kopurua. 2019ko ekitaldian 4.000 euro batu dituzte, CIC Biogunek prostata minbiziaren aurkako ikerketetan erabili ditzan

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Urte emankorra izan da 2019a Mondravember taldea osatzen dutenentzako. Arrazoi askoren-gatik: mugimendua gero eta errotuago dagoelako herrian, antolatutako ekintzak eta sinergiak ugaritu direlako, eta baita batutako diru kopurua hirukoiztea lortu dutelako.

### 2017tik, hazten

2017an hasi ziren Mondravember bezala funtzionatzen. Aurretik pare bat ekitaldi egin zituzten Movember bezala, baina batutako dirua nora bidali euren kabuz erabakitzeko talde propioa sortu zuten urte hartan. Lehen ekitaldian 350 euro batu zituzten errifak eta bestelakoak saltzen, 2018an mugimenduak hazkunde bidean jarraitu zuen, eta horren adibide izan zen batutako dirua ere. 1.200 euro batu zituzten, aurreko urteko kopurua baino hiru aldiz pasatxo gehiago. Diru hura Derion dagoen CIC Biogune ikerketa zentrorra bideratu

zuten; konkretuki, Arkaitz Carracedo ikerlariak prostatako minbiziaren aurka daraman ikerketara.

Eta aurten ere hazkunde maila bera mantendu dute. 4.000 euro batu dituzte; 2018an batutakoa hirukoiztu, eta 400 euro pasa. 2020an iazkoa hirukoiztea helburu duten galdetuta, hona taldeko kide Iban Arroiaberen erantzuna: "Ondo legoke berriz hirukoiztea; ez dakit lortuko dugun, baina badakit gure esku dagoen guztia egingo dugula ahalik eta gehien batzeko. Aurten, adibidez, errifez gain, ekintza berri bat abiatu zuen Hoba tabernak, eta ondo funtzionatu du. Pintxo-potean garagardoa bi eurotan mantendu zuten, ga-

**EZ DIRA LORTUTAKOAZ KONFORMATZEN, ETA 2020AN HAZTEN JARRAITZEKO IDEIA BERRIAK DITUZTE**

ragardo bakoitzeko euro bat Mondravemberri bideratzeko".

### Ikusgarritasunaren garrantzia

Dirua garrantzitsua dela dio Arroiabek, baina are gehiago ikusgarritasuna. "Batzen dugun diruari inongo garrantzirik kendu gabe, garrantzitsuagoa iruditzen zait gaiari ematen dion ikusgarritasuna. Arkaitz Carracedoren eta bere lankideen ikerketak kostu ekonomiko itzela du. Ekarpen ekonomiko egiten dugu, gero eta handiagoa dena, baina, eurek esanda, gaiari ikusgarritasun handia ematen diogu, eta hori asko eskertzen dute".

### 2020rako ideia berriak

Mondravemberkoak ez dira lortutakoarekin konformatzen eta hazten jarraitu nahi dute. Aurten ekitaldira begira, badituzte, jada, ideia berri batzuk: herri kros bat egitea, eskoletan hitzaldiak egitea minbiziari buruz eta enpresen ekarpen gehiago lortzea, besteak beste.

## Emakumeei futbola eta musa gerturatu zien gizonari agur

Roman Lopez 84 urterekin hil zen joan den astean; herrian askotariko ekimenak jarri zituen martxan

### X.G. ARRASATE

Herrian aski ezaguna zen Lopez, gauzak antolatzeko beti prest dagoen horietakoa baitzen. Mondrako lehen emakumeen taldeko entrenatzaile izan zen, irailean zendu zen Rosi Otadui *Katanga*-k lagundu zion hasi eta gutxira. Mus jokoarekin ere lotura handia izan zuen; 20 alditik gora antolatu zuen San Juan Jaietako Txapelketa, eta herriko emakumeei joko hau irakasten lan handia egin zuen.

Mondra taldeak omenaldia egin zien Lopezi eta Otadui 2012ko urrian, emakumeen kirolaren alde egindako lana eskertzeko. Karta-jokoa dela-eta harekin harremana izan zuen Marije Madinabeitiak honela gogoratu du: "Erakusteko gogoia zuen pertsona zela esango nuke, gauzak antolatzeko beti prest dagoen horietakoa".




Roman Lopez. GOIENA

"Mondrako eta Makatzena taldeetako ateak Romanek ireki zizkidan. Aparteko gizona zen, langilea eta gauzak bere erara egitea gustatzen zitzaiona. Askok inplikatzeko zuten", gogoratzen du 17 urtez Mondrako presidente izandako Jose Luis Ezkurrak.

## Zapatuan, Iratin, mus zaleek hitzordu garrantzitsua dute

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako lehen kanporaketak asteburu honetan jokatu dira, eta Arrasateko hitzordua Irati tabernan egingo dute, 16:00etan. Lehen kanporaketan aurrera egiten duten bikoteek herrialdeko kanporaketak jokatu dituzte otsailaren 29an, eta final handia Zigoitiko Gopegi herrian jokatu da, martxoaren 14an.



2019ko sanjuanetako txapelketa. GOIENA

## Urtarrilaren 24an, 25ean eta 26an, San Baleixoko jaiak

Barikuan, ohiturarekin jarraituz, 39. mus txapelketarekin hasiko dituzte jaiak, baina aurretik, 18:00etan, sendabelar ikastaroa egingo dute, Ekoudaletzeko lagunen eskutik. Ia lau hamarkada dituen txapelketa Meatzerrekako sozietatean jokatu dute, 22:30ean, eta bikote bakoitzak 30 euro jarri beharko ditu. Zaturako ekintza sorta polita

prestatu dute: 11:00etan, *Udaletxeko burdina*, *Mondragoe indartuz* hitzaldia ermitan; 12:00etan, mural margotzea; 14:30ean, auzo-bazkaria; 17:00etan, Gorriti eta bere animaliak; eta 18:30ean, txokolate-jana.

Domekan ere egongo da zer egin eta zertaz gozatu. 10:45ean, meza egingo dute ermitan Gesalibarko eta Garagartzako koruko kideen laguntzarekin, 11:30ean, Lore Gazteak taldekoek dantzaldia eskainiko dute; eta, ostean, luntxa egingo dute.



# Kezkak eta ekarpenak TAO sistema dela eta

Aste honetan, aparkatze sistema berriari buruzko informazio puntuak jarri dituzte herrian, eta bi eztabaida publiko egin ere. Herritarrek askotariko kezkak azaldu dituzte; besteak beste, TAOrik gabeko auzoez eta hasieran planteatutako tarifez

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Martitzenean, asteko lehen eztabaida publikoa egin zuten Etxaluzen. 60 lagun inguru batu ziren bertan, sistema berriarekiko kezkak azaltzera eta ekarpenen bat edo beste egitera. Ordu eta erdi iraun zuen saioak, eta hasiera partean sistema berriaren nondik norakoak eta azalpenak eman zituen Aztiker enpresako Susana Martinezek.

## Zalantza teknikoak

Lehen zati horren ondoren, herritarrek hartu zuten hitza, askotariko galderak eta kezkak azaltzeko. Zalantza teknikoak izan ziren batzuk: ea egoiliarrek



Herritarrek adi-adi, Etxaluzen egindako eztabaida publikoan. XABI GOROSTIDI

aparkaleku arruntak erabili ditzaketen, ea egoiliarrek zein gune erabili ditzaketen, nola funtzionatzen duten *express* guneek, zenbat denbora igaro behar da *express* gune bat bigarren aldiz erabiltzeko, ea alde zaharreko egoiliarrek non apartatu behar duten... eta antzerakoak.

## Kezka orokorrak

TAO (OTA) sistema herri osora zabaltzeko beharra izan zen gehien errepikatu zen kezketa bat. Hasierako planteamendua hiru gune ditu TAOrentzako, eta hainbat herritarrek azaldu zuten horrek TAOrik gabeko guneak kaltetuko dituela: ospitale ingurua, Musakola, Makatzena... "Arazoa leku batetik kendu eta beste batean jartzen duzue", azaldu zuen ospitale inguruan bizi den herritar batek. Kezka horri erantzunez, Aztikerko eta Hirigintza Saileko arduradunek behin eta berriz adierazi zuten aurrerantzean herriko beste gune batzuetara TAO sistema hedatzeko asmoa buruan dutela, nahiz eta hasierako planteamenduan jaso ez.

Beste kezketa bat izan zen azpiegitura berrien beharra dagoela, jendea herri barrura modu jasangarrian etortzeko. TAO sistema aplikatu orduko bidegorri sarea ezarrita egotearen beharra aipatu zuten, eta baita herri sarrera edo kanpoaldean, disuasio-aparkalekuak jartzea ere. Beste batek mugikortasunarekin lotutako pedagogiaren beharra aipatu zuen. "TAOk ez ditu kutsadura edo mugikortasun arazoak konponduko, ez badugu pedagogia ariketa sakona egiten; hori egin ezean, partxe bat izango da".

## Ekarpenak egiteko deia

Bileran parte hartu zutenei euren kezkak eta ekarpenak helarazteko beharra aipatu zieten. Hirigintza Saileko buru Juan Antonio Urdangarinek ekarpenen garrantzia nabarmendu zuen, sistemak etengabe hobetzeko izaera izango duela iritzita. "Argi dago ez dela sistema perfektua eta ez dugula lehenengoan asmatuko. Martxan jarri eta urtebetera hobekuntzak egingo dizkiogu. Urtero-urtero berrikusiko dugu, hobetze aldera".



MATRIKULA EPEA ZABALIK:  
URTARRILAREN 27TIK  
OTSAILAREN 7RA.







ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi Ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

**ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA**

<p><b>URIBARRI</b></p> <p>0-3 URTE</p> <p>Uribarri etorbidea z/g.a</p>	<p><b>UMEZAINTZA</b></p> <p>0-3 URTE</p> <p>San Andres, 8</p>
<p><b>ATE IREKIAK</b></p> <p><b>URTARRILAK 21</b></p> <p><b>17:30</b></p>	<p><b>ATE IREKIAK</b></p> <p><b>URTARRILAK 28</b></p> <p><b>17:30</b></p>

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abiatu.

**943 77 20 25**

[www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)





Ospitaleko alboko 'putzua'-ari ostegunean ateratako argazkia. XABI GOROSTIDI

# Erosketako 63 etxeetatik 36 saldu gabe daude

Arrasaten eskaintzen dituen etxeak baino eskatzaile gutxiago izan ditu Visesak eta iragarri du "laster" deialdia Debagoienara zabalduko duela Etxebidek. Hauen arabera, Arrasaten 761 eskatzaile daude; 156 erosketa modalitatean eta 605 alokairuan

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Etxebizitza publikoak esleitzeko orduan gehiago izan ohi dira eskatzaileak eskaintzen diren etxeak baino, eta horregatik zozketak egin izan dira etxeak esleitzeko. Baina Visesak ospitale alboan egingo dituen etxebizitzekin aurkakoa pasatu da: eskaintzen dituzten etxeak baino eskatzaile gutxiago izan dituztela. Hain justu, erosketako 63 etxe eskaintzen dituzte, eta Arrasaten erroldatutako 48 eskatzaile erabaki dute esleipenean parte hartzea. Visesak 48 eskatzaile horien artean esleitu zituen azaroan erosketara bideratuko dituen 63 etxebizitzak –dagokien garaje partzela barne–, jakinda horietako hamabost hutsik geratuko zirela –ez baitzegoen eskatzaile nahikorik–. Baina guztiek ez dute baiezkorekin erantzun, eta aurreko ostiralean, hau zen salmenten egoera: 27 lagunek baietz erantzun dute; hamazortzi laguneko uko egin diote; hiru lagunek ez

dute oraindik erantzun. Une honetan esleipen prozesua guztiz itxi gabe dago. Prozesu horretan parte hartzeko baldintza bete behar ziren: Arrasaten erroldatuta egotea, eta Etxebiden izena emanda egotea, erosketa modalitatean. Behin esleipen-epea igarota, Etxebidek beste deialdi bat egingo du libre dauden erosketako etxe horiek

esleitzeko, baina, kasu horretan, Arrasatez gain, Debagoieneko beste herrietara zabalduko du prozesua. Deialdia noiz egingo duten galdetuta, Visesak arduradunek ez dute data zehazten jakin.

**Erosketa, azalera eskubidean**  
Etxebizitzak azalera eskubidean erosiko lituzkete eskatzaileek.

## 63 etxeen ezaugarriak eta prezioak

**Bi logelakoak: 21**

- **Azalera** 58,41 eta 59,68 metro koadro artean.
- **Prezioa** 124.900 eta 133.900 euro artean (%10eko BEZa barne).

**Hiru logelakoak: 39**

- **Azalera** 76,82 eta 89,03 metro koadro artean.
- **Prezioa** 154.900 eta 178.200 euro artean (%10eko BEZa barne).

**Mugikortasun behar bereziak dituztenentzat: 3**

- **Azalera** 89,98 metro koadro.
- **Prezioa** 179.500 eta 182.500 euro artean (%10eko BEZa barne).

Horrek esan nahi du eraikitakoa erosleek jabetzakoa dela, baina erakina dagoen lurzorua jabetza publikoa. Hala, behin 75 urteko epea pasata, etxe hori Jaurlaritzaren jabetzakoa izatera pasatzen da –kalte-ordainik ordaindu gabe–, erosleek ez badute aurretik lurzoruaren jabetza erosten. Aldiro-aldira Jaurlaritzak lurzoruaren jabetza propietatean erosteko eskaintzak igortzen dizkie etxeen jabeek.

### 2007tik etxerik gabe

Urte hartan sinatu zuten Udalak eta Visesak ospitale alboko eremu horretan babes ofizialeko etxeak egiteko lehen akordioa. zuten. 5.274.594 euroren truke adostu zuten Zerrajera eremuko D eta F partzelak Jaurlaritzari ematea: F partzela alokairurako 108 etxebizitza egiteko eta D partzelan –egun putzua dagoena– erosketako 216 etxebizitza egiteko, azalera-eskubidean. Azken partzela horretako etxeak ez aurrera ez atzera egon ziren 2007tik 2017ra, bi arrazoi nagusirengatik: bertan egin beharreko lurpeko aparkaleku kopuruagatik eta ANV eta Bildu buru izan zituzten udal gobernuek etxebizitza horiek alokairurakoak izatea eskatzeagatik.

2017k azaroan, ordea, EAJk eta PSE-EEK osatutako Udal Gobernuak egoera desblokeatzeko akordioa lortu zuen Visesakekin, 184 etxebizitza egiteko: 63 erosketarako, 51 alokairurako, eta 70 "egoeraren eta behararen arabera" definitzea adostu zuten. Lurpeko aparkaleku solairu bat egingo du Visesak, 199 plazakoa. Hori jaso zuten bi aldeek akordioan, eta hala berretsi zuen udalbatzak 2018ko azaroko osoko bilkuran. EH Bilduk bi solairu eskatzen zituen, HAPOK hala eskatzen zuela argudiatuta, baina araudi horrek solairu bakarra egitea ahalbidetzen zuela argudiatu zuen Gobernuak.

### Alokairu eskatzaile gehiago

GOIENA Etxebiderek harremanetan jarri da, eta hauek dira gaur egungo eskatzaileen datuak: 761 daude Arrasaten; 156 (%20,4) erosketa modalitatean eta 605 (%79,6) alokairuan. Guzti horietatik 579 herrian erroldatutakoak dira eta 182, aldiz, ez erroldatuak. 2017ko datuen arabera, Arrasaten 587 lagun zeuden Etxebiden izena emanda, horien %83 alokairu modalitatean.



NIRE USTEZ

OSCAR GARCIA

## Fobia

Badira egun batzuk kaletik noanean burura etortzen zaidala nire aitak esan zidan esaldi bat: "Izan errespetua jendearekin, eta jendeak errespetatuko zaitu". Eta zergatik etortzen zait hori burura orain? Bada, duela gutxi ikusi nuen gertakari batengatik. Adineko emakume bat ibai ondoan dagoen banku baten zegoen eserita, eta banku horren ondoan berdegune bat zegoen. Emakumea lasai asko ari zen atsedean hartzen, eta, bat-batean, txakur bat hurbildu eta andreaurrean aurpegia aldatu egin zen, erabat. Zuri-zuri jarri zen eta ezpainak moretu zitzaizkion. Bertara hurbildu nintzen zer pasatzen zitzaien galdetzeko, eta haren erantzunak barruak astindu zizkidan: "Txakurrei fobia diet". Berehala, txakurra lepokotik hartu eta bertatik eraman nuen, eta horra non agertu zen txakurraren jabea, txilioka, esanez txakurra solte uzteko. Esan nion gertatutakoa eta haren erantzunak erabat lur-jota utzi ninduen. "Ez al du beste lekuri esertzeko emakume horrek?".

Errespetua da gure gizartean daukagun gauzarik garrantzitsuenetako bat... aplika dezagun gure egunerokotasunean eta denok zoriotsuagoak izango gara.

## Feminismoari eta arrazakeriari buruzko saioa, hilaren 21ean

ZAS! taldea da antolatzailea, zurrumurruren aurkako euskal sarea. Solasaldia hilaren 21ean egingo dute, Kulturateko Lora-mendi gelan, 18:30ean. Irantzu Varela kazetariak eta islamiar testuinguruan berdintasun gaian aditu den Maya Amraek hitz egingo dute, eta Arrasateko Emakumeen Mundu Martxako Julia Mongek dinamizatuko du.





Aurreko urteetako topaketan, hainbat ikastarotako partaideekin. EMAKUME TXOKOA

# Eskaintza zabala dute emakumeek aukeran

Bederatzi ikastaro, sei tailer eta bestelako ekimen ugari antolatu ditu Emakume Txokoko Jabetza Eskolak. Otsailetik maiatzera, lanketa pertsonala eta kolektiboa uztartzen dituen eskaintza zabala egongo da. Izen emateak, urtarrilaren 20tik 24ra

**Amaia Aranegi** ARRASATE  
Emakume Txokoak otsailetik maiatzera bitartean eskainiko dituen ekintzen eta ikastaroen berri eman du. Antolatzailerak diotenez, lanketa pertsonala eta kolektiboa uztartzen duten jarduerak dira: "Elkarrekin lan egiteko aukerak, giro onean, emakumeon eskubideak erdigu-

nean ipiniz eta geu, emakumeok, protagonista izanik".

**Gorputzaren lanketa**  
Gorputzak lantzeko proposamen ugari aurkitu ditzakegu sei hilabete honetako egitarauan. "Osasunean erreparatu, ahalduntzea sustatu, plazak hartuz, sorkuntzatik eta feminismitik...

emakumeok garelako protagonistak", azaldu dute antolatzailerak. Esaterako, astelehenero, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eta *Gure gorputza despatriarkalizatuz* ikastaroak egongo dira. Izen-emateak urtarrilaren 20tik 24ra bitartean egin behar dira Emakume Txokoa, posta bidez edo telefonoz.

## Egitaraua otsailetik maiatzera

### Ikastaroak

- **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa** Otsailaren 3tik aurrera, astelehenero, 09:30etik 11:00etara. Guztira, 12 saio.
- **Gure gorputza despatriarkalizatuz** Otsailaren 10etik aurrera, astelehenero, 18:30etik 20:30era. Guztira, 8 saio.
- **Xilografia tailerra linoleo gainean** Otsailaren 3tik martxoaren 9ra, 18:00etik 20:00etara.
- **Emakumeon osasuna eta mindfulness-a** Otsailaren 4tik aurrera, asteartero, 15:30etik 17:30era. Guztira, 14 saio.
- **Autofikzio feministaren tailerra** Otsailaren 18tik aurrera, asteartero, 17:30etik 20:00etara. Guztira, 12 saio.
- **Musika eta ahalduntzea** Otsailaren 5etik aurrera, asteazkenero, 18:00etik 20:00etara. Guztira, 14 saio.
- **Autoestimu feminista lantzeko tailerra** Otsailaren 6tik aurrera, ostegunero, 17:30etik 20:30era. Guztira, 3 saio.
- **Jendaurrean hitz egiteko ikastaroa** Apirilaren 23tik aurrera, 17:30etik 20:00etara, ostegunero. Guztira, 6 saio.
- **Autoen oinarriko mekanika ikastaroa** Apirilaren 23tik aurrera, ostegunero, 18:00etik 20:30era. Guztira, 6 saio.

### Tailerak

- **Eztabaida feministak: amatasuna.** Otsailaren 29an, larunbata, 10:00etatik 13:00etara.
- **Nire baitan.** Otsailaren 16an eta martxoaren 1ean, 10:00etatik 13:00etara.
- **Ekintzailatza eta zaintza-lanak.** Martxoaren 15ean, igandea, 10:00etatik 13:00etara.
- **Jaiak, genero harremanak eta feminismoa.** Apirilaren 24an eta 25ean, 16:30-20:30 eta 10:00-14:00, hurrenez hurren.
- **Gorputzak eta disidentziak klabe deskolonial eta transfeministatik.** Maiatzaren 8an eta 9an, 16:30-20:30 eta 10:00-14:00, hurrenez hurren.
- **Mikroestapanpako tailerra.** Maiatzaren 16an eta 23an, 10:00-13:00 eta 14:30-19:30, hurrenez hurren.

Bestelako ekintzak: Martxoaren 8ko kartelen lehiaketa eta ondoren erakusketa; *Erroa eta geroa* dokumentalaren emanaldia eta solasaldia martxoaren 3an; *Nik sinisten dizut* liburuaren aurkezpena martxoaren 17an...

## 220 zuhaitz landatuko dituzte zapatuan, Zuhaitz Egunean

50 haltz eta 170 sahats landatuko dira Antoniñan eta bertara joateko hitzordua 10:00etarako finkatu dute

**A.A.** ARRASATE  
Urtarrilaren 18a Zuhaitz Eguna da, eta Arrasateko Udalak, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, hainbat ekintza antolatu ditu: VII. Zuhaitz Azoka, 220 zuhaitzen landaketa eta hitzaldi bat.

Egunean bertan, ohi bezala, herritarrekin batera 220 zuhaitz landatuko dira. Aurten, Antoniñako ingurua izango da kokaleku. Musakola auzoan dago, Anporreta mendira igotzeko hasieran. Bertan, mineral-garbitokiaren aztarnak daude. Hi-

tzordua 10:00etarako ezarri dute, Musakolako Institutuko goiko eraikinean. Landaketaren ondoren hamaiketako eskainiko dute. Udalak gomendatu du gomazko botak eramatea.

Bestetik, baserriko produktuen azokan ere ospatuko da Zuhaitz Eguna, VII. Zuhaitz Azoka berezia eginda. 08:00etatik 14:00etara izango da, Seber Altube plazan, eta sei mintegiren produktua izango dira bertan.

Zuhaitz Egunarekin lotutako azken ekintza hilaren 22an egingo dute, eguaztenean. *Klima*



Zuhaitz bat landatzen, Zuhaitz egunean. GOIENA

*larrialdia eta basoen ekarpena* izenburupeko hitzaldia eskainiko du Garazi Auzmendi Arkarazo komunikatzaileak. 18:30ean izango da, Kulturateko areto nagusian. Komunikatzaileak azaldu duenez, basoek

klima larrialdiari aurre egiteko duten potentziala ezagutarazi eta basoen kudeaketaren inguruan iritzirik kritikoa sustatuz, baso ekosistemak naturalizatzearen onurez jabetzea helburu du hitzaldiak.

## Gurasoei zuzendutako hiru tailer antolatu ditu Udalak

Arrasateko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako hiru tailer antolatu ditu: hazkuntza osasuntsua izateko tailerra, garapen emozional osasuntsua eta gurasotasun positiboari buruzko tailerra. Gurasoei seme-alaben heziketaren inguruko hainbat gairen inguruan hausnartu eta gurasoei egunerokotasunean sortzen zaizkien kezka eta zailtasunak konpartitzeko gune bat eskaintzea helburu dute tailer hauek.

Izen-ematea urtarrilaren 22ra arte izango da eta Udalaren webgunean, BAZen eta Gizarte Zerbitzuetan egin daiteke. Plazak mugatuak dira.

# "Ordu asko sartzen ditut, baina oso pozik nago"

**IZAR BEDIA SASKIBALOI JOKALARIA**

Araskirekin lehen maila nazionalean eta tarteka elite mailan dihardu arrasatearrak. Denbora asko eskaintzen dio, baina gogoko du intentsitate handiko saskibaloia

**Amaia Aranegi** ARRASATE

Izar Bedia arrasatearra Eskoriatza Klubeko harrobikoa da, baina bost urte daramatza Araski taldean jokatzeko. Emakumezkoen lehen maila nazionaleko taldearekin jokatzeko eta batzuetan ligako taldean aritzen da entrenatzen eta partiduak jokatzeko.

**Nola hasi zinen saskibaloia munduan?** 11 urte nituen eta multikirola egiten nuen; saskibaloia eta eskubaloia artean nengo. Nire ahizpa Eskoriatzako saskibaloia taldean entrenatzen zen eta beraiekin joaten nintzen entrenatzera. Gero, Eskoriatzako infantil mailan sartu nintzen. 18 urte arte Eskoriatzako klubean egon nintzen.

**Gero, ikasketak direla eta, Gasteizera joan zinen bizitzera.**

Bai. Graduak lehen mailan Eskoriatzako taldean jarraitzen nuen. Entrenatzailearekin hitz egiten, Gasteizen emakumeen saskibaloia munduan auzera desberdinak nituela esan zidan. Araskiren nazionaleko taldearekin entrenamendu batzuk egin nituen eta bertan jokalaria hasi nintzen orain dela bost urte. Gauza berriak probatu nahi nituen, eta beste ligan batean jokatzeko maila nuen probatu nahi izan nuen lehen burua.

**Emakumezkoen lehen maila nazionalean zaude, baina, batzuetan, saskibaloia elitean aritzen zara.** Ligako lehen mailan jokatzeko izugarriko saltoa izan da. Lehenengo bi urteetan erritmoa hartzea kostatu egin zitzaidan, maila fisiko, taktiko eta teknikoaren aldetik alde handia zegoen. Baina gero, pixkanaka, hobetzen joan naiz. Izugarriko hobekuntzak egin ditudala uste dut.

**Lanak eta esfortzuak badauka bere saria.**

Orain, lehenengo mailakoekin entrenatzen nago eta oso gustura sentitzen naiz. Urduri joaten



Izar Bedia, Araski taldearekin jokoan. JULI ROC

## "EMAKUMEZKOEN SASKIBALOI MUNDUA EZ DA GIZONEZKOENA BEZALAKOA"

naiz entrenamenduetara, presioa handia da eta nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. 11 urte zenituenetik zaude saskibaloia munduan...

Ordu asko eskaintzen dizkiot kirol honi, baina asko gustatzen zait. Ez dut oraindik ixtea pentsatu, baina egia da etorkizunera begira lanagatik utzi beharko dudala pentsatu izan dudala. Baina lanaren kontuengatik hartuko nuke saskibaloia ixtearen erabakia, ez nigatik. Emakumezkoen saskibaloia mundua ez da gizonezkoena bezalakoa. Guk lanarekin partekatuko behar dugu.

**Kirolarekin lotutako ikasketak egin dituzu.**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua bukatu nuen orain dela bi urte. Orain, Gizarteratzeko Teknikari goi mailako zikloa egiten ari

naiz; arazo sozialak dituzten edo gizartearen baztertua dauden pertsonen eta kolektibo desberdinekin gizarteratzeko prozesua lantzeko. Graduak praktikak Aspacen egin nituen eta Downen sindromea zuten pertsonen saskibaloia irakasten jardun nuen. Askok gustatu zitzaizkidan kirola eta puntu sozial hori uztartzea.

**Jokatzeaz gain, entrenatzaile lanetan ere ari zara.**

Bai, Araski taldeko infantilak entrenatzen ditut. Horrez gain, Baskonia klubak arazo sozialak dituzten pertsonen osatutako taldea dauka eta horiek astean ordubetez entrenatzen ditut.

**Etorkizuna nolako izango den jakitea zaila da.**

Bai, ez dakit zer gertatuko den etorkizunean. Orain, Araskin nago, baina ez dakit non egongo naizen hurrengo urtean. Lanean hasi nahi dut eta saskibaloiarekin partekatzea gutatuko litzaidake, baina zaila izango da. Askok disfrutatzen dut kirol honekin eta mundu honetan jarraitzea gustatuko litzaidake. Baina badakit momenturen batean erabakiak hartu beharko ditudala.



Arrasate Rugby Taldeko seniorrak eta Julen Barrutia entrenatzailea. IÑIGO ARRIARAN

## Kanpanzar Arrasate igoera faseari ekiteko prest dago

Arrasate Rugby Taldeko seniorrek garaipen plenoarekin itxi zuten aurreko astean sailkapen fasea

**A.A. ARRASATE**

Gabonetako etenaldiaren ostean, domekan izan zen sailkapen faseko azken jardunaldia. Arrasateko taldeak Gaztediren aurka jokatu zuen, Gamarran, eta, nahiz eta partidu gogorra izan, garaipena lortu zuten. "Zelaia ez zegoen oso egoera onean, izoztuta zegoen. Gainera, beste taldea ere indartsua zen. Hala ere, taldeak ondo jokatu zuen, oso pozik gaude lortutako emaitzarekin", dio Julen Barrutia entrenatzaileak.

Igoera lortzea helburu du taldeak eta gogor ari dira lanean, baina badakite igoera fasea zailagoa izango dela: "Orain, hiru partidu gogor ditugu; Iruñearen, Baztanen eta Zarautzen aurka jokatu dugu, eta aurkari gogorak dira hauek. Gainera, etxetik kanpoko partiduak belarrezko eta lokaztutako zelaian jokatzeak zaildu egiten du,

ez digutelako uzten gure joko azkarra egiten".

Hamar partidu dituzte oraindik aurretik, baina taldea indartsu eta gogotsu ikusten du entrenatzaileak: "Jokalariak motibatuta daude eta emaitza onak ateratzeko entrenamenduetan gogor egiten dute lan".

**Igoera fasea bidean**

Arrasatearekin batera beste bost talde ibiliko dira lehen Euskal Ligako Lehen Mailara igotzeko: Iruñea, Zarautz B, Uni Bilbao B, Baztan eta Zornotza. Liga honetako txapelketa zuzenean igoko da goiko kategoriarako. Bigarren sailkatuak promozioa jokatu du Euskal Ligako Lehen Mailako azken aurreko sailkatuaren kontra.

Kanpanzar Arrasatek urtarriaren 25ean 16:00etan etxean jokatu du sailkapenean bigarren dagoen Iruñearen aurka.

## Besaide elkarteak batzar orokorra deitu du eguaztenerako

Besaide Mendizale Elkarteak batzar orokorra egingo du urtarriaren 22an, eguaztena, Kulturategiaren Jokin Zaitegi gelan. Batzarrerako bi deialdi izango dituzte bazkideek: 18:45ean eta 19:00etan. Besteak beste, 2018ko jardueren azalpena eta balantzea, 2019ko ekintza programaren azalpena eta 2020ko kuoten onarpena jorratuko dituzte.

## Arrasate-Udalatx lasterketaren izen-ematea, otsailean

Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren seigarren aldian izena emateko epea otsailaren 2an goizeko hamarretan zabalduko da. Aurten, apirilaren 5ean izango da 21 kilometroko lasterketa eta parte hartu nahi duen edonork [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) atarian lortu ahaliko du dortsala. Lasterketaren informazio gehiago, [www.mon-draitx.eus](http://www.mon-draitx.eus)-en.



# Txakurrak taldeak diskoa kaleratuko du aurten

Hiru urteko ibilbidea duen taldeak kide eta izen aldaketak izan ditu. Orain, taldea egonkortuta dago eta diskoa kaleratuko dute urrian. Lehenago, bi kontzertu finkatuta dituzte, eta, diskoa kaleratu ostean, berriz izango dira oholta gainean

## Amaia Aranegi ARRASATE

Etenaldia egin ostean, abenduan hasi ziren berriz ere kontzertuak eskaintzen eta geroztik lanean dihardute; proiektu bat ere badute esku artean. Xabi Zugasti –bateria–, Ander Azkarate –gitarra–, Aitor Jauregi –baxua–, Jokin Mendizabal –gitarra– eta Andoni Muguruza –abeslaria– dira kideak.

Zaunk-and-roll izendatzen dute euren musika estiloa, baina rock-and-roll azeleratua dela dio Mendizabalek: "Punk-rock moduko zerbait egiten dugu, baina azkarra eta zuzena. Kontzertuetan dena ematen dugu, ez gara geratzen. Izan ere, aha-



Txakurrak taldearen bost kideak. TXAKURRAK TALDEA

lik eta gutxien egiten ditugu pausak".

Tabernetan eta gaztetxeetan eskaintzen dituzte kontzertuak eta harrera ona izaten dute. Emanaldietan jendea animatu egiten dela dio Mendizabalek: "Oraindik ere rock-and-rollean mugimendua dago. Nahiz eta beste musika estilo batzuk indarra hartzen hasi, badago lekua rock-and-rollarendako".

Emanaldietan, bertsoiak eta abesti propioak abesten dituzte, eta, gehienak erdaraz eta ingelesez izan arren, horri buelta ematen saiatzen ari da taldea: "Orain, egiten ditugun bertsoiak gehienbat euskaraz dira eta helburua euskarak taldean presentzia handiagoa izatea da".

Aurrera begira, bi kontzertu eskainiko ditu taldeak: urtarrilaren 24an Aretxabaletako Ezkutu tabernan eta urtarrilaren 31n Iruñeko Aitzina tabernan. Horrez gain, otsail aldean, berderatzi abestiz osatutako diskoa grabatuko dute eta urrian izango da kalean: "Martxo hasieran, Arrasaten jotzen saiatuko gara, eta gero, urrian diskoarekin izango gara berriz bueltan".

## Ipuin kontaketak egingo dituzte Udal Bibliotekan

Urtarrilaren 22an eta 23an, ipuin kontaketak egongo dira 15 urte baino gehiago ipuin kontalaritzan diharduen Ines Bengoaren eskutik. Bi saio eskainiko ditu: urtarrilaren 22an, eguaztena, arratsaldeko seietan Santa Marina auzoko bibliotekan eta urtarrilaren 23an, 18:00etan, Kulturatan. Biak 4 urtetik gorakoentzat zuzenduta daude.

## Pelax taldea izango da datorren asteko Kooltur Ostegunean

Pelax talde donostiarrak hartuko du lekukoa urtarrilaren 23an. Laukote batek osatzen du taldea: Iker Vazquez (bateria), Iñigo Ozaeta (baxua), Andoni Olaetxea (gitarra) eta Unai Pelayo (gitarra eta ahotsa). Gitarra doinuak ahots gordinez jantzi eta rock doinuak zabalduko dituzte urtarrileko azken kontzertuan.

**445 ETXEBIZITZA SALDU ONDOREN**

**GELMAKO AZKENAK**

Erregistroaren kopia: GEE/CAP/02/19/001/529637  
Nº de registro: C 84 17

**Nire etxea saldu behar badut?**

**EZ KEZKATU** zurea saldu arte ez duzu eskuraturatuko

**%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan**

16,80 m² berandu saldu  
12,80 m² berandu saldu  
14,80 m² berandu saldu

www.inmobibai.com

**Tel 943 25 38 21**  
E-mail info@inmobibai.com  
Deba kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)





Landaketak egiteko lanean, Larrano inguruan, Urkiolako Parke Naturalean. BASOA FUNDAZIOA

# Klima aldaketari aurre egiteko, landaketak

Basoa Fundazioak proiektu bat eraman du aurrera Urkiolako Parke Naturalean, klima aldaketaren aurrean goi mendietako ekosistemak egokitzen laguntzeko helburuarekin. Ikus-entzunezko dokumental baten bidez azalduko dute proiektua, urtarilaren 28an

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Basoa Fundazioak Urkiolako Parke Naturaleko Larrano inguruan –Atxondon, Aramaioko mugatik gertu; bertako lan eta ikasbideek berdin balio dezakete inguru denerako– gauzaturako proiektuaren egintza nagusia "zuhaitzen landaketa" izan da, Aitor Onaindiaren esanetan: "Arazoa da karbono asko dagoe la atmosferan, orain arte inoiz egon izan dena baino gehiago, gizakiaren azken urteetako zenbait aktibitatearen eraginez; horrek dakar berotzea, eta, horrekin, klima aldaketa, tenperatura, hezetasuna... aldatzen direlako. Eta horri aurre egiteko era bat izango litzateke zuhaitzek egiten duten fotosintesia erabilteza. Atmosferako karbonoa hartu eta bizidunon zelula batzuk-eta sortu ahal izateko erabiltzen dute zuhaitzek fotosintesia. Beraz, klima aldaketaren aurrean, aukera bat da landareak ereitea eta landatzea eta fotosintesia ugartzea".

Hortik joan da Basoa Fundazioaren Larranoko proiektua; Madrilgo dirulaguntza bati esker gauzatu dute, eta, klima aldaketarekin lotutakoa ez ezik, biodibertsitatea handitzeko helburua ere izan du. Honela, ohiko hesi batzuk zeuden lekuan zuhaixka lerroa landatu dute, mugatze funtzio bera betetzeko, fotosintesia egingo duten elementuen bidez, baina, kasu honetan: "Bestetik, lur haien jabeek pago landaketa bat egina zuten 2000. urtean, baina ganadua sartu eta puntak-eta jan zizkieten. Pagadi horretako hutsuneetan zuhaitz gehiago landatu ditugu; jabeek pegoa sartzeko asmoa zuten, baina beste espezie batzuk sartu ditugu, bertakoak, ondo

**KARBONOA ETA BERE ERAGINA MURRIZTEKO MODUA DA ZUHAITZAK LANDATZEA, ETA HORI EGIN DUTE LARRANON**

egokitzen direnak, baina beste batzuk, biodibertsitatea ugartzearen. Zortzi hektarea ziren, eta milaka landare izan dira, zuhaitz eta zuhaixken artean".

**Dokumentala, Aramaion**

Mintegian hazietatik landare horiek guztiak sortzeko prozesua, kofradia bidezko lur jabego modua –kasu honetakoa–... eta aurreko lerroetan azaldutako kontuok jaso ditu proiektuaren gainean Basoa Fundazioak egingandako ikus-entzunezkoak. Hilaren 28an emango dute, 18:00etan, kultura etxean. Emanaldia –45 minutukoa– doakoa izango da, eta gaiari buruzko solasalditxoak egiteko aukera ere izango da amaieran.

"Egon daitezke beste lur jabe batzuk antzerako egoeran eta interesa izan dezakete ikusteko beste batzuek zer egin duten, ze Aramaioko terreno asko ere Urkiolako parkean daude eta Larranokoa moduko habitatak ere badaude", dio Onaindiak.



Arnasa Gara aurkezpen ekitaldiaren protagonistetako batzuk. IMANOL SORIANO

## Mahai-ingurua, euskararen erabileraz hausnartzeko

'Aramaio arnasa gara! Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan' izenburupean, eguaztenean izango da

**J.I. ARAMAIO**

"Euskararen erabilera jaitsi egin da herrian, eta eskolan ere igarzen dugu gutxiago erabiltzen dela, nahiz eta Aramaio hizkuntzaren arnagune izan; horregatik planteatu dugu hausnarketa egitea", dio San Martin eskolako zuzendari Saioa Uriartek.

Eta, honela, eskolaren ekimezez baina herritar orori zuzenduta eta hainbat eragile eta elkartetako ordezkarien parte-hartzearekin egingo dute hilaren 22ko mahai-ingurua –18:00etan, Sastiñan–; izenburuan erreferentzia egin diote berriki aurkeztutako Arnasa Gara ekimenari eta aurtengo Euskaraldia-ri, haren leloa ere erabilita.

renzia egin diote berriki aurkeztutako Arnasa Gara ekimenari eta aurtengo Euskaraldia-ri, haren leloa ere erabilita.

**Txema Abarrategi moderatzaile**

Txema Abarrategi izango du solasaldia moderatzeko zeregina, eta bertan parte hartuko dute Alaiak erretiratuen elkarteak, bertso eskolak, Txirritolak, Udalak, Gazte Asanbladak, Guraso Elkarteak eta areto futbol taldeak.

"Ea zerbait irteten den aurrera begira ere lanean jarraitzeko modukoa", adierazi du Saioa Uriartek.



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

## Euri tantak

Gaur, nor naizen galdetu dit ispiluak. Malko isil bat amildu zait masailean behera galderari erantzunez. Eta beste bat, eta beste bat. Jantzia daramadan maskara bustiz. Sinestezina dirudi nola itzal dezaketen euri tanta gutxi batzuek norbere barneko sua. Tamalez, gizona naiz eta ezin dezaket negarrik egin zure aurrean, erantzun dit ispiluak. Beste malko bat aurpegian behera, nire gizonetako maskara hau pitzatzen hasiz. Erosioaren indarra. Botere geldiezina, nola urak harriak desagerraraz ditzakeen, mendiak aran bihurtzeraino. Malkoak ere ura dira, indar geldi ezinak. Hala behar luke, behintzat, negar egiteak, erreakzio geldi ezina, bizitzan zehar aurkitzen ditugun gaindiezin diruditen egoeren aurrean, irtenbidea. Zein da ba negar egiteari alternatiba? Nire sentimendu, uste, maitemin eta beldurrak nire izatearen barreneko zoko ilun batean giltzapean gordetzea, bertan ustel daitezen? Ez zait osasungarria iruditzen, eta, gizon izan baino lehen gizaki naizen heinean, publikoki nire sentimenduak erakusteko eskubidea aldarrikatzen dut, gizartearen kritikatik at.





Txotxetik sagardoa hartzen, 2016ko irekieran; Mendibitzu sagardoa egiten duen Juan Antonio Aretxaga, aurrealdean. M. ALTUBE

# Gaur hasiko da txotx denboraldia Iturrietan

Sagar asko eta sano-sanoko urtea izan zen iazkoa, eta 20.000 litro sagardo egin dituzte Arragako sagardotegian. 19:30ean zabalduko dituzte kupelak, jatekoarekin eta txalapartari, trikitilari eta bertsolariekin; herritar oro gonbidatu dute irekierara

## Julen Iriondo ARAMAIO

Bertso eskolako bertsolariak, herriko txalapartariak eta Oñatiko trikitilariak izango dira 2020ko txotx denboraldiaren irekieran. Arabako sagardotegietako txotx irekiera Kuartan-gokoari zegokion aurten –atzo, eguna, egin zuten–, eta haren ostean dator Iturrietan ere kupeletik edateko aukera.

Arabako lau sagardogileren artean –Iturrietaz eta Kuartan-gokoaz gain, Trebiñukoa eta Mendibitzu, Aramaiokoa azken hau ere– 95.000 litro egin dituzte aurten, eta horietatik 20.000, herrian. Sagardo hori guztia zazpi kupeletan ondu dute Iturrietan, eta horietako lautatik edateko aukera egongo da, denak desberdinak. "Ez da berdina irail bukaeran sartutakoa izan, edo azaro erdialdera –orduaz jasotzen dira azken sagarrak–; beraz, sagar mota berberak izanda ere, ez da sagardo berdina irteten", dio Iturrietako Juanjo Peciñak.

"Azukre puntuan, heldutasunean..." egoten da aldea, eta, Peciñaren esanetan, hori da, hain justu, polita: "Kuadrilla batean beti dago bat gehiago gustatzen zaiona eta beste bat nahiago duena. Gainera, da produktu natural bat kupelean bilakaera izaten ari dena, eta kupel bereko sagardoak ere ez du zapora bera orain eta hemendik bi hilabetera".

Sagar urtea izan zen 2019a, eta Iturrietan aurreko urtean baino 750 litro sagardo gehiago egin dituzte aurten, dena bertako sagarrarekin, gainera –aurreko urtean, kanpotik ekarri behar izan zuten, etxean nahikoa ez zutelako; Euskal Herritik, hori bai, hori da-eta jatorri izenda-

**LAU KUPELETAKO SAGARDOA EDATEKO AUKERA EGONGO DA ITURRIETAN, GUZTIAK DESBERDINAK**

penaren baldintzetako bat–. 40.000 sagar kilotik gora batu zuten iaz, "inoiz baino gehiago, eta oso sana, gainera".

Sagardoaren kalitateari dagokionez, Peciñak dio "oso ona" dela, hala berretsi duela eurekin diharduen enologoak ere; ohi baino graduazio txikiagoa du, eta "erraz edatekoa" omen da, horrenbestez. Maiatz erdialdera arte egongo da Iturrietan sagardoa txotxetik edateko aukera; ondoren, botilaratu egingo dute geratzen dena.

## Mendibitzu ere Iturrietan

Nobedade moduan, Mendibitzu –merkatuan dagoen Aramaioko beste sagardoa– Iturrietara batu da, eta aurten, lehen aldiz, Arragan egin dute Untzillako sagastietako sagarretatik eratorritako sagardoa ere. Beste ehunka batzuk sagarrondo gehiago, beraz, Iturrietako 1.300 inguruei batzeko. Honela, txotx denboraldia ixtean, bietako sagardoa etiketatuko dute Iturrietan.



Iazko santa-eskean batutako lagunetako batzuk. GOIENA

## Otsailaren 1eko santa-eskerako lehen entsegua, egunean

Bi egingo dituzte, astebetera, hilak 30, bigarrena, eta hainbat auzotan kantuan jardungo dute gero

## J.I. ARAMAIO

Otsaila gerturatu ahala, urteroko usadioak berritzeko prestatzen hasteko garaia da, eta horixe da herriko lau kultur eragilek egin duten deialdiaren helburua ere. Datorren hilaren lehenean, zapatuarekin, egingo da Aramaion santa-eske herrikoia –otsailaren 5a da Santa Ageda eguna–, eta bi entsegu egingo dituzte aurretik.

Bertso Eskola, Papargorri abesbatza, Bizente Goikoetxea abesbatza eta Triki Kalejira taldea dira ekimenaren antolatzaile, eta entseguak deitu dituzte

santa-eske aurreko bi egunetarako, urtarrilaren 23rako eta 30erako. 19:00etan izango dira, Sastiñan.

## Egunean, bazkaria

Otsailaren 1ean, 10:00etan plazaatik abiatu eta Aramaioko hainbat auzotan ibiliko dira kantuan, ohitura zaharra berrituz, eta parte-hartzaileak Iturrieta sagardotegian batuko dira 14:00etan, bazkaltzeko.

Bazkarirako izena lehen entseguan eman beharko da. Helduak 20 euro ordaindu beharko dute eta umeeak, 15.



JULEN IRIONDO

## Musika etxea, eraikitzen hasita

Atzo, eguna, ziren musika etxea hartuko duen orubeko barruko azken pareta botatzekoak, hortik aurrera eraikitzen hasteko –zoria jartzea da aurrena egin beharrekoa–. Abendu amaieran hasi ziren lanak, eta bost hilabete iraungo dutela dago aurreikusita. Musika etxeak hiru gela izango ditu, horietako bat bitan banatzeko aukerarekin.





Txin Txin, Txapel Txin eta AZ Gaubelak taldeko kide Mikel Alberdi iaz, Herriko Plaza giroten. IMANOL SORIANO

## Berritasunak Aratusteen bueltako ospakizunetan

Txapel Txinek iragarriko du mozorro festa otsailaren 15ean eta egun osoko jaiak egingo dute, bazkari eta guzti aurten. Aratusteeetan, osteran, bi bazkari izango dira: bata kiroldegian eta bestea pilotalekuan; txartelak hilaren 25ean jarriko dituzte salgai

### Mirari Altube ARETXABALETAK

Behin Gabonak pasatuta, dagoneko jarri dira Aratusteei begira aretxabaletarrak, eta Karnabalen Lagunak batzordea eta Kultura Saila hasi dira gertatze lanetan. Gaur, egubakoitza, beste bilera bat egingo dute Karnabalen Lagunek udaletxe zaharrean (19:00), kontuak lotzen

joateko; atek zabalik dituzte edonorendako.

### Otsailaren 15ean paella-jana

Urtero legez, Txapel Txinek iragarriko ditu Aratusteeak: aurten, otsailaren 15ean. "Egun horri buelta bat ematea pentsatu dugu, urteak aurrera doaz eta beti berdintsua egin izan dugulako",

adierazi du Ibai Zangituk, Karnabalen Lagunak taldeko kideak, eta egun osoko jaiak antolatu dute. Hala, eguerdi partean, erraldoi txikiekin girotuko dituzte kaleak hainbat umek, gaitariak lagun eginda, eta gero, herri bazkaria egingo dute: "Orain arte, antolatzaileok elkartu izan gara bazkaltzeko egun

horretan, baina aurten irekia izango da. Komentuan elkartuko gara eta 150 bat lagunendako lekua egongo da; txartelak asteburuan jarriko ditugu salgai". Paella izango dute menu nagusia, "herriko paella egile ofizialek" gertatuta: Joselu Gonzalez, Iñaki Uribebarria eta Jesus Mari Errasti.

Aurten, osteran, ez da izango torrada lehiaketarik, "azken urteetan behera egin duelako parte hartzeak", eta trukean, txapel lehiaketa indartuko dute: "Ea herritarrek animatzen diren txapel originalak janztera!". Txapel Txinen pregoiaren ostean, Orkresta elektrotxararak girotuko ditu plaza eta kaleak.

### Aratusteeetan bi herri-bazkari

Otsailaren 23an ospatuko den Aratuste-domekan ere bada berritasunak: Ibarra kiroldegian egiten den herri-bazkariak gain, beste bat egongo da Iturrigorri pilotalekuan. "Bazkari golfoagoa izango dela esan genezake. 300 bat lagunendako lekua egongo da, eta saiatuko gara pilotalekua berotzen, goxo-goxo egoteko", iragarri du Zangituk. Musikak girotuko du bazkalostea: AZ Gaubelak taldeak, hain zuzen ere. Bi bazkarietarako txartelak urtarrilaren 25ean, zapatuan, jarriko dituzte salgai: kiroldegirako lekua hartzeko, betiko legez, Arkupera joan beharko da: pilotalekuko bazkariak hainbat tabernatan izango dituzte.

### Mozorroak gertatzeko lokala

Mozorroak prestatzeko lokala ere gertu dute dagoneko. Azken bi urteotan lez, industrialdean dagoen C pabiloia izango da, eta hango giltza eskuragai dago Arkupeko harreran.

Lokalaren erabilera zuzena bermatzeko arauak gogorarazi dituzte. Giltza eskatzerakoan 20 euroko fidantza ordaindu beharko da –giltza bueltatzean itzultzeko–, eta erabiltzaileek hainbat konpromiso hartuko dituzte. Hona hemen garrantzitsuenetako batzuk: talde bakoitzak arduradun bat izango du, konpromiso dokumentua sinatuko du horrek, eta berea izango da taldekideek egiten dutenaren erantzukizuna. Adin txikiak kasuan, ardura heldu batek izango du eta hark sinatuko du konpromiso dokumentua; gainera, lokalean bertan egon beharko du gaztetxoekin. Talde bakoitzak bere tresnak eta materiala eramango ditu, eta lan jarduna bukatzean garbi eta txukun utzi beharko du guztia; eta gaur ezingo da erabili lokala. Martxoaren 13rako giltzak bueltatu beharko dira Arkupera, lokala txukundu ostean.

## MOZORROAK GERTATZEN HASTEKO, LOKALEKO GILTZA DAGOENEO ESKA DAITEKE ARKUPEN

## Filmak zapatu iluntzeetara aldatuta, ikusleak gustura

Inkesta egin du Udalak Arkupeko ikusleen artean eta hobetsi dute 22:00etan beharrean 19:30ean ematea

### M.A. ARETXABALETAK

Herriko zinema erabiltzaileen iritzia ezagutu nahian filmen ordutegiaren gaineko galdeketa egin zuten Kultura Sailak ikusleei abenduan. Izan ere, azaroaz geroztik zapatuetan 22:00etan beharrean 19:30ean ematen dituzte pelikulak Arkupen, "herritar ugari hala eskatuta". Aldaketa hori begi onez hartu dutela ikusleek adierazi dute orain udal ordezkariak.

Udalak telefono mugikorrerako sortutako aplikazioaren bidez eta Arkupera joandako ikusleen



Intemperie filmaren une bat. INTEMPERIE

arte egin zen galdeketa. Eta jasotako emaitzak honako hauek izan dira: aplikazioaren bidez erantzundakoen artean %61,54 aldaketaren alde agertu dira; %7,69 kontra; eta %30,77k zuri bozkatu dute. Arkupen jasotako bozketaren emaitza ildo beretik dute, 34k kontra eta bik zuri.

Emaitza horiek kontuan hartuta, eta probako lehen hilabetea pasatuta, zapatutako 22:00etako saioa behin betiko kenduko dute, eta haren ordez 19:30ean eskainiko da. Gainontzeko egunetan ez dago aldaketarik.

Asteburuan –egubakoitza, 22:00; zapatua eta domeka, 19:30; eta astelehena, 16:00– *Intemperie* filma (Espainia, 2019, 103 minutu) izango dute helduek; eta umek *Frozen II* animaziozko filma bi asteburutan –zapatu eta domeka, 17:00–.



ANABEL DOMINGUEZ

## Berrekin diete lanei ibai alboan

Deba ibaiaren alboko pasealekua kiroldegiraino irits dadin egin beharreko lanei berrekin diete –laugarren alde egin du Udalak deialdia–. Bergarako Construcciones Artzamendi enpresari esleitu dizkiote lanak, eta 229.207 euroko aurrekontua dute. Ondo bidean, lau hilabetean bukatuta izango dute Loramendi kaletik Markole auzoraino dagoen 62 metroko tartea.



# 'Txerrikumeen' kantuak, lehen diskoan batuta

Orain dela zortzi urte inguru hasi zuen musika ibilbidea Txerrikumeak laukote aretxabaletarrek, eta, kontzertu askoren ostean, 'Gorabeherak' lehen diskoa argitaratu berri du; emaitzarekin gustura, egunotan jarri dute salgai tabernetan

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Ez du aurkezpen beharrik Txerrikumeak taldeak Aretxabaleta aldean; izan ere, azken urteotan, kontzerturik kontzertu dabilta. Ibilbide luze horren ostean, lehenengo diskoa kale-ratu dute: *Gorabeherak*.

**Zazpi kantu, hainbat estilo**

Xabi Muñoz (ahotsa eta gitarra), Xabi Zuazabeitia (baxua), Iñaki Azkunaga (gitarra) eta Julen Ibabe (bateria) dira Txerrikumeak musika taldeko kideak, eta punk-rock estiloa lantzen dute. Zenbait kanturekin osatutako maketa baduten arren, *Gorabeherak* izena duen lehe-



Iñaki Azkunaga, Xabi Zuazabeitia, Xabi Muñoz diskoarekin eta Julen Ibabe. I. BELOKI

nengo diskoa argitaratu berri dute. Hain zuzen ere, eguazten honetan iritsi zaizkie diskoak, eta emaitzarekin pozik agertu dira. Hori horrela, Aretxabale-tako eta Arrasateko zenbait tabernetan salgai jarriko dituzte bost eurotan.

Xabi Zuazabeitia taldeko kideak adierazi duenez, lan gogorra eta luzea izan da diskoaren grabaketa: "Asel Errasti lagunarekin grabatu dugu, kuarter zaharrean bertan, eta, emaitzarekin gustura geratu garen arren, luze joan den lana izan da. Guztira, zazpi kantu batzen ditu diskoak, eta estilo ezberdinak uztartu ditugu, nahiz eta oinarrian punk-rocka dagoen".

**Disko bakarra, ibilbide luzea**

Duela zortzi urte hasi ziren musika egiten Muñoz, Azkunaga eta Ibabe. Lagunarteko proiektu moduan, ondo pasatzeko helburuarekin hasi ziren. Lokalean elkartu eta zenbait kantu atera ostean, Zuazabeitia taldera batu eta serio jarri ziren Txerrikumeak proiektuarekin.

Orduetik, kontzertu ugari eman dituzte; batez ere, Aretxabaletan.

Hala ere, azkenaldian, Oñatin izan dira, eta baita Nafarroako Totem aretoan ere. Proiektu berriaren hedapena egiteko, bihar, zapatua, Arrasateko Jai-zale tabernan izango dira kontzertua ematen, eta urtarrilaren 24an, egubakoitzean, aldiz, Aretxabale-tako Ezkutu tabernan.

Kontzertu gutxi batzuk eman ostean deskantsua hartuko dute, Julen Ibabe bateria-jolea Erasmus doa eta. Hain zuzen ere, atsedenaldi hori aitzakia hartuta, taldeko gainontzeko musikariek abesti berriak sortzeko tartea hartuko dute.

**Bideoklipa kolaborazioarekin**

Diskoa bakarrik ez, bideoklipa ere egin dute. Abenduan zabaldu zuten *Berridazten* izeneko abestiaren bideoa. Aretxabale-tako kuarter zaharrean duten lokalean egin zituzten grabaketak, eta, horretarako, The Potes taldeko Beñat Abasoloren laguntza izan zuten, baita talde bereko Asier Sala musikari arrasatearraren kolaborazioa ere. Lanarekin gustura, ez dute baztertu beste bideo bat grabatzea laster.

PROIEKTUEN BIDEZKO  
PUBLIKOA IKASKUNTZA  
EUSKALDUNA  
KALITATEZKOA  
ARRETA GOIZTIARRA  
HURBILA INKLUSIBOA

Zaintza zerbitzua ( 2 - 12 urte )

**Bilera informatiboa:**  
Urtarrilaren 23an, 18:00etan

**Matrikulazio epea:**  
Urtarrilaren 27tik Otsailaren 7ra

Banakako bisitaldien hitzordua hartzeko deitu eskolako telefonora  
**Telefonoa: 943 79 00 49**

Bihotzez  
ikasi

Kurtzebarri Eskola

Haur eta lehen Hezkuntza  
( 2 - 12 urte )








Oihana Aldai futbol jokalaria aretxabaletarra, Pozoalbense taldearekin kontratua sinatu ondoren. OIHANA ALDAI

## Pozoalbense taldeak fitxatu du Oihana Aldai

Aldaketa baten beharra ikusita, Aretxabaletako atezainak Eibar taldea utzi eta Kordobako Pozoalbense taldean hasi du etapa berria. Jokatzeko irrikaz dago, baina badaki gogor entrenatu beharko duela titular izan gura badu

**Imanol Beloki** ARETXABALETAKO

Kordobako Pozoalbense taldeak fitxatu berri du Oihana Aldai atezain aretxabaletarra. Eibarrek kontratua amaitu ondoren, etapa berri bati ekin dio Realeko jokalaria ohiak, etxetik urrun, baina bere esperientzia taldeari erantsi guran eta, era berean, sentsazio onak berrartzeko asmoz.

Reto Iberdrolako ligan, bigarren mailan, hegoaldeko multzoan dagoen taldea da Pozoalbense, eta, taldeko atezain titularra lesionatuta, jokatzeko aukerak izango dituelakoan eman du pausoa Aldaiki. Hala ere, badaki gogor entrenatu beharko duela talde andaluziarrean titular izan gura badu.

**Aldaketa beharra**

Eibarren denboraldi gazi-goza izan ostean, Kordobara iritsi berri, Pozoblanco herrira ohitzen ari da egunotan Aldai. Andaluziako taldera joateko erabakia hartzea erraza izan ez den arren,

aldaketa beharra zuela adierazi du aretxabaletarrak: "Eibarren ez nintzen ari oso gustura, eta aldaketa baten beharra nuen. Klubarekin hitz egin eta uzteko asmoa nuela adierazi nirenean, kontaktuan jarri zen nirekin Kordobako taldea, eta, eskaintza iristean ondo baloratuta, erabakia hartu nuen".

**Jokatzeko gogoz**

Pasa den astean egin zion fitxa Pozoalbense taldeak, eta entrenatzen hasi da dagoeneko. Hurrengo jardunaldia etxean jokatuko dute, asteburuan, sailkapenean azkenengo postuan dagoen Tacuense taldearen aurka, eta jokatzeko gogoz dago: "Zer bait entrenamendu eginda, do-

**ALDAKETA BATEN BEHARRA IKUSITA, POZOALBENSE TALDERA JOAN DA OIHANA ALDAI**

mekan minutu batzuk jokatzea ondo egongo litzateke. Hala ere, Tacuense azkenengo postuan dagoen arren, maila honetan ezin zara fidatu zein postutan dagoen aurkaria... edozer gerta liteke".

**Debagoieneko Kirol Sariak**

Oihana Aldaiki Aretxabaletako Udalaren saria jasoko du urtarrilaren 28an egingo den DKS ekitaldian. Horrekin batera, Herritarren Sarirako hamar hautagaietako bat da, eta "ilusionatuta" eta "eskertuta" agertu da albistearekin. "Sorpresaz jaso nuen Herritarren Sarirako hautagaia izatea, eta gero, Udalarena jakinda, ez nuen espero, eta errekonozimendu hori izatea ederra da...".

Horrekin batera, Donostiako Urrezko Danborra Realeko emakumeek jasoko dute, urtarrilaren 20an, astelehenean. Hala, Realekin Erreginarene Kopa irabazi zuenez, Oihana Aldai ere bertan izango da.

## Aretxartek egunotan banatu ditu Gabonetan zozkatutako bonuak

Mari Karmen Romerok jaso du sari nagusia, 200 eurokoa, eta beste berrogei bat herritarrek 50 eurokoak

**M.A. ARETXABALETAKO**

Aretxabaletako Aretxarte merkatarien elkarteak hainbat bonu oparitu dizkie bezeroei Gabonetan. Horien zozketa egin berri du eta 200 euroko sari nagusia Mari Karmen Romeroentzat izan da.

Horrez gain, 50 euroko mordoak banatu dituzte. Saritu bakoitzak herriko komertzio batean izango du bonua gastatzeko aukera. Hona hemen bonuak jaso dituztenen zerrenda: Susana Berasaluze, Kontxi, Xabier, Marga Zubizarreta, Satur, Maialen Eldeza, Resu Abasolo, Mertxe Zapata, Maria Josefa Iturrospe, M. Asun Lonbide, Carmen Arenaza, Emilia Luelmo, Alberto, Dorleta Letona, Nahikari Some, Jaione Izagirre, Eneida Egurza, Conchi, Ane Gonzalez, Loly Mayoral, Maria Fernandez, Maria Miranda, Ainhoa Vitoriano Feli,



Mari Karmen Romero. ARETXARTE

Susana, Ana Maria Gaztañaga, Juan Ramon, Ekaitz Larrinaga, Arantxa Uzarraga, Rosa Mari Arrieta, Manoli, Usoa Egurbide, Kontxi Romano, Mari Carmen, Ane, Clemente Olivenza, Raquel Fernandez eta Maitane Barretxea.

## Haurren larrialdietarako lehen sorospenen saioa

**Goiena komunitatea**

**Kukumiku elkarte / ARETXABALETAKO**

Haurren larrialdietarako lehen sorospenen inguruko solasaldia antolatu dugu Kukumikun. Arrasateko ospitaleko larrialdiz berbitzuetan lan egiten duten Iñaki Agiriano medikua eta Inma Escribano erizaina etorriko dira Kukumiku elkartearen egoitzara (Durana kalea, 30)

urtarrilaren 22an, asteazkena, 18:00etan.

Saioaren helburua izango da 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoen zalantzarik ohikoenak argitzea, haurrak gaixo daudenean nola artatu jakin dezaten.

Bihotz-birikak berpizteko maniobra egiteko panpina ere ekarriko dute, bertaratutakoek ikus eta proba dezaten. Solasaldia doakoa eta irekia izango da, Kukumikuko bazkide zein ez bazkideentzat.

## OHARRAK

### San Sebastian

Astelehenean, danborrak astinduko dituzte Kurtzebarriko haurrek, 15:40an. Herriko Plazan, eguraldi ona bada; bestela, Iturrigorri frontoian.

### Hitzaldia martitzenean

*Nafarroa, euskal estatua* hitzaldia izango da, 17:00etan, Kurtzebarri eskolako liburutegian.

## Hitanoa ikasi edo hobetzeko ikastaroa antolatu du Loramendik

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, hitano ikastaroa izango da otsailaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an, udaletxe zaharrean. Ikastaroa 10:00etatik 12:30era izango da, eta parte hartu nahi duten bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute; gainontzekoek, berriz, 15 euro. Izen-ematea, Loramendi elkarreko bulegoan.



# "Presara barik idazten dut, inspirazioa datorkidanean"

JAIONE FERNANDEZ DE JAUREGI IDAZLEA

Eskoriatzarrak argitaratuko duen bigarren liburua da 'Al timón de mi barco'; testu motzekin osatuta dago, eta, maitasuna ardatz, gogoetaz osatuta dagoen lana da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarrak *Al timón de mi barco* izenburupean bere bigarren liburua idatzi berri du, eta datorren astean kaleratuko du. 100 ale argitaratuko ditu, hasiera batean, eta Eskoriatzako eta Arrasateko biblioteketan eta bi herri horietako zenbait komertziozian izango dira eskuragarri. Horrekin batera, liburuaren aurkezpena egingo du otsailaren 7an, 19:00etan, Eskoriatzako bibliotekan.

**Laster izango da idatzi berri duzun liburua eskuragarri. Zer idatzi duzu?**

Testu laburrez osatuta dagoen lana da; batzuk poesiak dira, beste batzuek hausnarketarako bidea ematen dute... zenbait gogoeta dira; betiere, maitasuna ardatz izanda. Prosa poetikoan espresatuta, gaur egun bizi ditugun zenbait egoeraren kritika dira testu batzuk... 2018an, *Sentimientos tuyos y míos* liburua argitaratu nuen, eta, Eskoriatzan izan zuen harrera onagatik, bigarrena argitaratzera animatu naiz. Oraingoa ere bide beretik doa.

**Nola hasi zinen idazten?**

Hasiera batean, inork ez zekien idazten ari nintzela. Hiru letrero poesia txiki bat idatzi eta lagunekin konpartitu ostean hasi nintzen idazten. Honako hau dio *El amor* izeneko poesiak: *Si me miras y no me ves/Si me buscas y no me encuentras/Tal vez no sepas que el lugar que ocupo es ínfimo, y el lugar donde habito crece porque está en ti, y en ti, y en ti...* Hala, hori idaztean, forma ematen hasi nintzen, eta, handik aurrera, erraztasunez ateratzen zitzaidan. Hala, testu multzo handi bat osatzean, lehenengo liburua argitaratu nuen. Bigarren liburua ere idatzi berri, bi horiez gain zenbait testu eta iritzi ere idazten ditut Facebook sare sozialean; hain zuzen, ho-




Jaione Fernandez de Jauregi eskoriatzarra. JAIONE FERNANDEZ DE JAUREGI

## "OTSAILAREN 7AN, 19:00ETAN, EGINGO DUT AURKEZPENA ESKORIATZAKO BIBLIOTEKAN"

rietako batzuk argitaratutako liburuetakotasunak dira.

**Nola eta noiz idazten duzu?**

Presara barik idazten dut, inspirazioa etortzen zaidanean. Ez



Al timón de mi barco

- **Egilea** Jaione Fernandez de Jauregi.
- **Urtea** 2020.
- **Editoriala** Letrame.

dut ordutegi finkorik idazteko. Kezka edo egonezinen bat badut, honako hau da nire espresatzeko modua, prosa moduan. Ez naiz zerbaite bilatzera joaten... etortzen denean idazten dut. **Otsailaren 7an emango duzu liburuaren berri Eskoriatzako bibliotekan. Urduri zaude?**

Urduri nago, bai, baina lagun batek bereziki esan zidan hazkuntza pertsonalerako baliagarria izango zela liburuaren aurkezpena egitea, eta nik aholku onei kasu egiten diet; beraz, aurrera. Hala, besteak beste, egunerako aukeratu ditudan *Al timón de mi barco* liburuko bi testuren errezitaldia eskainiko diet bertaratzen direnei.

**Zer egingo duzu irabaziekin?**

Liburuaren aurkezpenean adieraziko dudun moduan, liburuaren salmentetatik ateratako diru irabazi guztia Pasqual Maragall fundaziorako izango da. Alzheimerre prebenitzeko ikerketarako bideratuko dut. Liburua 15 eurotan izango da salgai Eskoriatzako eta Arrasateko zenbait komertziozian, eta, horrez gain, bi herrietako biblioteketan ere dohaintzan emango ditut zenbait ale.

## Mendi irteera egingo dute urtarrilaren 19an, domekan

'Makila eskuen eta ibili basuen' egitasmoaren irteera Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak antolatu du

Goiena komunitatea

'Makila eskuen eta ibili basuen' / ESK.

Oraingoan, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeari egokitu zaio *Makila eskuen eta ibili basuen* irteera antolatzea. Urtarrilaren 19an, 09:30ean, Fernando Eskoriatza plazatik irtenda, Eraña-Lete-Mendiola-Mendibitza-Arkarazo-Eskoriatza ibilbidea egingo dugu.

Talde honek feminismoaren aldarri nagusienetakoa du, hain zuzen, pertsonaren, norberaren identitate hutsetik bizi ahal izatearena, kultura hegemonikoek

eragindako zapalkuntza oro albo batera utziz. Irteeran zehar genero estereotipo tradizionalak hautsiko dituzten bi istorio berezi ezagutuko ditugu. Honez gain, Arkarazon kokatutako Mendibitza izeneko baserria ere ezagutuko dugu; bertan, abereen zaintza eta ekoizten dituzten gazta goxo horien eratzeko prozesua erakutsiko digute.

Honek guztiak balioko digu gutako bakoitzak herri edota auzoko bizilagunekiko eta gure ama-lurraren hizkuntzarekiko duen lotura areagotzeko.

## Domekan Mus Txapelketa jokatu da Inkernu tabernan

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketaren barruan, herrietako kanporaketak jokatu dira asteburuan, eta, urtero moduan, Eskoriatzan ere batuko dira zenbait bikote kartetan jokatzeko.

Txapelketa Inkernu tabernan izango da, 16:30ean hasita, eta bikote bakoitzak 20 euro jarri beharko ditu jokatzeko -izen-

ematea egunean bertan egingo da-. Sariak, berriz, honako hauek izango dira: bikote irabazleak 100 euroko saria eta bigarren postuan geratzen den bikoteak 50 euroko saria.

Domeka honetako kanporaketaren ostean, herrialdeetako finalak otsailaren 29an jokatu dira eta final nazionala, aldiz, Araban izango da, Gopegin (Zigoitia), martxoaren 14an. Informazio gehiago nahi duenak *Ehmus.eus* webgunean kontuslta dezake.



ETB

## Hurrengoan probatu behar

Asier Urtelai eskoriatzarra ETB2 katean emititzen den *El conquistador del Caribe* saioaren casting-ean izan zen Gasteizen. Programa astelehenean hasita, eskoriatzarra ez da biziraupen lehiaketaren partaideetako bat, baina casting-eko hautagai hobereenen artean egindako bideoan momentu dibertigarriak eskaini ditu.





Eguaztenean izandako hitzaldian kultura etxeko aretoa beteta izan zen. URRI URIZAR

# Programaren lorpenak eta testigantzak ezagutuz

Mozambikoko programa ezagutzera emateko asmoz, Mundukideko Mari Luz Tomek, Harremaneko Andoni Uribeberriak eta Hiruatxeko Oihana Arietaleanizbeaskoak hitzaldia eskaini zuten eguaztenean, kultura etxeko areto nagusian

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Eguaztenean, Harreman, Mundukide eta Hiruatx gobernu kanpoko erakundeek Mozambikentzuzko proiektuen berri eman zuten kultura etxeko areto nagusian. *Lanaren balioa da ezberdin egiten gaituena* izenburupean, berbaldi-solasaldi formatuan eskaini zuten saioa, eta gidari lanetan Andoni Uribeberria (Harreman), Mari Luz Tome (Mundukide) eta Oihana Arietaleanizbeaskoa (Hiruatx) aritu ziren. Aretoa, beteta, gobernu kanpoko erakundeetako ordezkariak garapen lankidetzarako programaren inguruko testigantzak eskaini zizkieten bertaratutakoak.

## Lorpenak eta testigantzak

Aurreko udan, Mozambikoko programa ezagutu zuten Mundukideko patronatuko hainbat ordezkariak, eta, Eskoriatzako herria ere programaren laguntzailea den neurrian, Afrikako herrialde horretan ikusitakoaren

berri ematea izan zen hitzaldia- ren helburua. Hitzaldiari, bidaiari zehar grabatutako aurkezpen bideo batekin eman zioten hasiera, eta, ondoren, herrialdeen eta biztanleen hainbat ezaugarri ezagutzera emateaz gain, Mundukideko programaren lorpenak eta bidaiarien testigantzak ezagutzeko aukera izan zen.

## Solidariteta ardatz

Besteak beste, solidaritatearen garrantzia izan zuten hizpide hizlariak. Mari Luz Tomek honako hau adierazi zuen: "Emakumeak bereziki daude zigortuta horrelako herrialdeetan, eta Mundukidek beti izaten ditu oso kontuan, burujabe izan daitezten aukerak eskainiaz. Ando-

ni Uribeberriak, berriz, hauxe adierazi zuen: "Oso pobeak diren paraje hauek pentsatzen dugun baino gertuago daude hegazkinean. Sentsibilitate handiagoa izan beharko genuke Euskal Herrian; gure bizi kalitatea etengabe hobetzen aritu beharrean, behar gehiago duten pertsonekin solidarioagoak izan beharko genuke".

## Ezinbesteko laguntza

Eskoriatzako Udalak Mundukide Fundazioari eskaintzen dion laguntza ere nabarmendu gura izan zuten. Honela adierazi du Urri Urizar Mundukide Fundazioako kideak: "Eskoriatza Mozambikerekin solidarioa den herria da, alde batetik, hainbat biztanle partikular Mundukideko partaide eta babesle direlako, eta, bestalde, Eskoriatzako Udalak urtero lankidetzara programarekin jarraitu ahal izateko ekarpen ekonomikoa egiten duelako. Hala, eskuzabalak izan behar gara tokatzen zaigunagatik".

**MOZAMBIKEN EGITEN ARI DIREN LANAREN BERRI EMATEN IZAN DIRA HIRU HIZLARI KULTURA ETXEAN**



Ibarraundi museoan, AuzoLab jardunaldiaren barruan. CONEXIONES IMPROBABLES

## Mugikortasuna ardatz, AuzoLab jardunaldietan murgilduta

Zenbait mugikortasun arazo identifikatu, eta proiektu berritzaileak ari dira ateratzen mahai gainera

## I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatuta, Conexiones Improbables erakunde AuzoLab izeneko jardunaldiak egiten hasi da Eskoriatzan. Pasa den eguenean egin zuten lehenengo saioa, Ibarraundi museoan, eta urtarrilaren 24an eta 25ean jarraituko dute lanketarekin.

AuzoLab berrikuntza sustatu eta erakunde sozialak eraldatzeko hibridazio-metodologia da. Erakunde berberari lotuta egon edo ez, identifikatuta dituzten premientzat erantzunak aurkitzeko buruak eta esfortzuak

batzeko borondateak elkartzen ditu.

## Hiru proiektu esku artean

"Eskoriatzatik Gatzagarako Gatz Bidea, Angiozarko eraikin bat balioan jartzea eta Eskoriatzako elizateetatik herrirako mugikortasuna dira lantzen ari garen proiektuak. Aurrera eramateko, elizateetako zenbait auzotar eta erakundeak jarritako zenbait teknikari ari gara elkarlanean. Azken hauek gaiarekin zerikusirik ez dutenak dira...", adierazi du Iñaki Kerexetak, Elizateen Elkarteko bozeramaileak.

## GORA ETA BEHERA




## Farolak jarri dituzte bidegorrian

Aingeru Guarda eta Kuartuena arteko bidegorri zatian farolak jarri dituzte. Horrekin batera, Mazmela auzoko herritarren eskaerari erantzunez, bidegurutzean ere jarri dute argia, bertan paseoan ari diren oinezkoen segurtasuna bermatzeko asmoz.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.





Pinuak ateratzeko lanetan izan dira Intxaurtxuetatik Olazar auzoko tunel gaineko mendi zatiraino. IMANOL BELOKI

## Pinuak ateratzen aritu direnez, bidegorria itxita

Pinuen bakanketa-lanak egiten izan dira kanposantu gaineko basoan. Hori horrela, 08:30etik 17:30era itxita egon da bidegorri zati bat martitzenetik eguenera bitartean. Horrekin batera, lorezainak zuhaitzak kimatzen aritu dira herri barruan

### Imanol Beloki ESKORIAITZA

Intxaurtxueta auzoko herriko sarreratik kanposanturainoko basoan dauden pinuak ateratzen aritu dira egunotan. Hori horrela, oinezkoentzako segurtasuna bermatzearren, bidegorri zati bat itxita egon da martitzenetik, hain zuzen ere, Intxaurtxuetako oinezkoentzako pasabidearen eta Olazarko tunelaren arteko bide-zatian.

Lanak 08:30etik 17:30era bitartean egiten izan dira; horrenbestez, ordutegi horretan bertan egon da itxita. Gainontzean, bidegorria erabiltzeko moduan egon da, eta, aurreikuspenak betetzen badira, gaurtik –egubakoitza– aurrera nor-

mal ibili ahal izango da bidegorrian.

Lur-zati horretan zenbait lurjauzi izan dira azken urteotan, eta maldan behera jausi daitezkeen lurrei eusteko jarrita dago hormigoizko blokea. Hala ere, gehiago gertatzen badira, pinuak baztertu beharrik ez da egongo, eremu guztia garbituko baitute.

Bidegorria ixtearen arrazoi berri ere eman gura izan du Ibon Segura Eskoriatzako udaltzainak: "Elortza Garraioak enpresakoak ari dira pinuak botatzen. Egun batzuetako lana denez eta pinuak bidegorritik gertu daudenez, ixtea erabaki da, harriren bat edo adarren bat jausi daitekeelako bidera...".

### Zuhaitzei adarrak kimatzen

Eduardo Gorosarri plazan Anbolategi atzeko kalean dauden zuhaitzak kimatzen ere izan dira asteon lorezainak. Horrekin batera, Dorleta auzoan ere aritu dira zenbait zuhaitzetako adar luzeak mozten, eta hurrengo egunetan herriko beste txoko batzuetako zuhaitzak ere kimatuko dituztela adierazi du Joseba Olmo Eskoriatzako lorezainak: "Gorosarriko zuhaitzetako adarrak laster batean moztu genituen, eta, Dorletako zenbait zuhaitzetako adarrak ere oso luze zeudenez, horietan ere izan gara lanean. Datorren astean jarraituko dugu herrian zuhaitzak kimatzen".

### Haurrentzako antzerkia: 'Kalean otso, etxean uso'

Domekan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako antzerkia izango da ikusgai, 17:00etan, Zaldibar antzokian. Patata Tropikala Antzerki Laborategia konpainiaren lana *Kalean otso, etxean uso* deitzen da eta bizikidetzaz izango du ardatz istorioak.

Zenbait ipuin nahastuta eraman dituzte oraingoan oholta

gainera Patata Tropikala konpainiako kideek, eta Judith Poves eta Iker Etxarri antzezleek modu didaktiko eta errazean zenbait gai landuko dituzte. Horretarako, txotxongiloez, antzerkiaz, ilusioaz eta irudimenaz baliatuko dira antzezlan dinamiko eta dibertigarria sortzeko. Baina baita ere ikusleari pentsarazteko helburuarekin.

Saioak ordubete iraungo du, eta sarrerak hiru eurotan aldeztu aurretik erosi beharko dira kiroldegian.

### ZUZENKETA

Eskoriatzako Aldatz taberna – Aranburuzabala 11 – mitikoa itxita dago egunotan, baina behin betiko itxiko dutenik ez dago erabakita oraindik.

Gaur egun alokairuan duenari kontratua amaitu zaio, baina horrek ez du esan gura taberna betirako itxiko dutenik. Lokalaren jabeak kontratua berri gura badu, berriz irekiko dute, eta hori da azken urteetan negozioa eraman duenaren nahia.



Txirrindulari bat Gatzagatik Eskoriatzara bidean. GOROSARRI LANDETxea

## "Bizikleta elektrikoak geroz eta gehiago erabiltzen ari dira"

Labidean dagoen Gatzebike bizikleta elektrikoen alokairu zerbitzua indartzen ari da

### Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzebike Gatzagako bizikleta elektrikoen alokairuen zerbitzua sare bat osatu guran ari da, bizikleta elektrikoen onuren berri emateko, kirola egiteko eta, bide batez, mendiko bizikletak erabiliaz Debagoieneko mendi, gailur eta bideak bertatik bertara ezagutzeko.

Labidean eskaintzen duten zerbitzua 2019ko maiatzean jarri zen martxan, eta duela gutxi ireki zuten webgunea honen berri emateko. Mendiko sei bizikleta aukeran, jendeak interesa duela adierazi du Inazio Gabilondo Gatzebike zerbitzuko arduradunak: "Batez ere, udan izan genuen arrakasta handiena, eta, halako kontuak ahoz aho zabaltzen direnez, pazientziak hartu beharko dugu. Modan daude bizikleta elektrikoak gaur egun, eta geroz eta gehiago erabiltzen direla uste dut".

### Gatzebike webgunea

*Gatzebike.com* webgunea gehiago osatzea eta hedapena ematea da momentu honetan duten erronka nagusia. "Webgunea gertu dago, eta bertan, alokairuan ditugun bizikletak, ibilbide proposamenak, prezioak... ditugu jarrita. Hori horrela, webgunean nabigatu eta bizikleta elektrikoan aritu nahi duena animatu gura dugu bertara etorri eta probatzera. Gainera, jende asko dago halako bizikleta erosi aurretik probatu gura duena, eta horretarako bide ematen du gure zerbitzuak".

### Gatzaga saretzeko asmotan

Debagoieneko sarea sortzea ere badela etorkizun laburrean euren erronketako bat adierazi du Gabilondok. Hau da, bailarako komertzioekin, jatetxeekin edota landa-turismoekin elkarlana sustatzea.

### Txokolate gatzduna

Gatzagako Gatz Museoan gatza ekoizteaz batera, zenbait produktu ere egiten dituzte: gatz-xaboiak, Gernikako piperra gatzarekin, curry edo piperrautsez, eta azpimarratzekoa den txokolate gazia. Azken honi dagokionez, gozoa edo gazia den eta nolako gustua duen jakin nahi duenak aukera du Gatz Museoan probatu eta erosteko.







2019ko urriaren 19rako eta 20rako Pop Up azoka antolatu zuten Bedelkarrek eta Udalak, Oxirondo azokan. IMANOL SORIANO

## Komertzioaren argazkia eguneratzeko ordua da

Herrian "kezka handia" dagoela-eta hurbileko merkataritza sustatzeko plan berezia berrituko du Udalak, hurrengo astean hasita, telefono bidez herritarrei egin zaizkien inkestekin; bigarren fase baten, merkatariekin aurrez aurreko elkarrizketak egingo dituzte

### Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko eta hurbileko merkataritza sustatu beharra dagoela uste du Udal Gobernuak, eta, horregatik, PERCO moduan ezaguna den plana -Komertzioaren Birgaitze Plana- eguneratzeko unea dela ondorioztatu du. Izan ere, Udalak "kezka handia" dauka merkataritza sektorea jasaten ari den "aldaketa nabarmenekiko", eta Udalaren baliabide guztiak jarriko dituzte gaur egungo herriko merkataritzaren egoeraren gaineko ahalik eta diagnostiko zehatzena izateko. "Azken urteetan erosketa ohiturak asko aldatu dira, eta horren aurrean hurbileko merkataritza indartzea eta sendotzea nahi dugu", adierazi du Sustapen Ekonomikora-ko zinegotzi Ainhoa Letek.

### 2003an bat, eta 2011n azkena

Merkataritza sustatzeko plan berezia kokatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak merkataritza bultzatzeko dituen egitas-

moen barruan. Hala, udalek aukera dute zazpi urtetik behin merkataritza sektorearen azterketarako laguntza jasotzeko. Bergarako Udalak 2003an eta 2011n egin zituen azterketa horiek, eta gaur egungo Udal Gobernuak aproposa ikusten du plan berri bat egitea orain. Horretarako, Udalak bi enpresari adjudikatu die azterketa egiteko lana: Ikei eta Datakey. Ikei 18.000 euro jasoko ditu eta Datakeyk 11.000 euro (biak BEZA barne). Eta Eusko Jaurlaritzak 20.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalari.

### Eskaria eta eskaintza analizatu

Lehen fasean, Datakey enpresak Bergarako testuingurua azter-

**AURREKONTUA 29.000 EURO DA ETA JAURLARITZAK 20.000 EUROKO LAGUNTZA BIDERATU DU**

tuko du eta arreta jarriko du eskariaren analisisan: erosketa ohiturak, fluxuak, horien balorazioa... Horretarako, bergararrei eta inguruko herritarrei hainbat bizilaguni telefono bidezko inkestak egingo dizkiete. Horretarako, urtarrilaren 22an hasiko dira herritarrei galderak egiten. "Etxean dei bat jasoz gero Udalaren izenean doala jakinarazi nahi dugu, eta eskertuko genuke galdetgia erantzutea", dio Letek. Datakeyko langileek galdetuko dute, besteak beste, zeintzuk diren gaur egun herritarren erosketa ohiturak; udalerriko eskaintza nola baloratzen duten; eta Bergara Bizi egitasmoa ezagutzen duten eta zer iruditzen zaien.

Bigarren fase baten, merkatariekin eurekin egongo dira Ikei enpresakoak, aurrez aurre. Haiekin egon ostean, Ikei ekintza plan bat bideratuko dio Udalari; data zehatzik ez dago, baina Udalak espero du ekintza plan hori udaberrirako gertu egotea.



Etxartek Osintxuko liburutegian eman zuen hitzaldiaren une bat. ANGIOLILLO LIBURUTEGIA

## Auzoen gainbeheraz, "gero eta indibidualistagoa" den gizartean

Angiolillo liburutegiak gonbidatuta, Hedoi Etxarte idazleak saio interesgarria eskaini zuen eguaztenean, Osintxun

### J.B. BERGARA

Angiolillo liburutegiaren margaren urteurreneko ekitaldien barruan, Hedoi Etxarte idazleak auzoen gainbeheraren gaineko hitzaldia eman zuen eguazten iluntzean Osintxuko liburutegian. Angiolillo liburutegiko arduradun Aser Polvorosak auzoen "izaera berezia" mantendu egin behar dela esan zuen saioaren hasieran: "Osintxuarrek Osintxun bizi direla diote, harrotasunez. Hori bizirik mantendu behar dugu". Ondoren, Etxartek auzoak zer diren, zertarako balio duten, zer garran-

tzi duten eta desagertuz gero zer gertatuko litzatekeen azaldu zuen, besteak beste. Gainera, gero eta gizarte indibidualistago batean bizi garela esan zuen: "Egungo joera da familiabakarreko etxebizitzak eraikitzea, ingurukoekin ahalik eta harreman txikiena izatea, eta sozializatzeko esparruak izan daitezela kontsumorako lekuak".

Antolatzaileak pozik agertu ziren hizlariak gaia landu zuen moduarekin eta, gainera, saiora 26 lagun hurbildu zirelako: "Osintxun 26 lagun elkartzearrarakatsua da. Pozik gaude".



OIHANA ELORZA

## Labegaraieta berria, martxa onean

Labegaraieta kiroldegia berritzeko lanak martxa onean doazela esan du Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk. Argazkiko eraikina maiatz amaierarako bukatuko dutela espero da; betiere, epe barruan. Bigarren fasean berrituko dira kantxa, sarrera eta rokodromoa, besteak beste; Udalaren asmoa da uda aurretik lan horiekin hastea. Pleguak hurrengo astean aterako dituzte.

# Gizakiaren lagun onenak leku barik jarraitzen du

Bergaran erroldatuta dauden 1.822 txakurrak aske eramateko nahikoa leku ez dagoela dio Guau elkarteak, eta jabeek eskatu die gizalegez jokatzeko elkarbizitza hobetu dadin; Udal Gobernuak konpromisoa hartu du arazoari epe luzerako irtenbide bat topatzeko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Herritarren eta txakurren arteko herri barruko elkarbizitza hobetzeko neurri berriak behar direla uste du Bergarako Guau elkarteak. Azken datuen arabera, Bergaran 1.822 txakur daude erroldatuta, eta horietatik 42 dira arrisku potentziala dutenak. Txakur bat hiltzen denean jabeek albaiari eman behar diote heriotzaren berri eta albaiariak, gero, Udaltzaingoari pasatu ohi dio abisua. Hala ere, jabe guztiek ez dute hori egiten eta horrek eragozten du datu eguneratuak izatea.

Datuak datu, ia 2.000 txakur daude Bergaran; Guau elkarte-ko Irene Martinezen arabera, txakurren eskubideak ez daude bermatuta: "Eskatzen duguna da txakurrak aske izateko espazio berdeak ahalbidetzea. Herri osoan debekatuta dago txakurra solte eramatea, eta baita herri arteko oinezkoendako guneetan ere bai, salbuespenak salbuespen.



Lehen elkarretaratzea, 2019ko azaroaren 28an; orain, eguenero elkartzen dira. GOIENA

Txakur gehienek ariketa fisikoa beharrezkoa dute euren garapenerako eta ezin duguna da eguneroko birritan edo hiru aldiz txakurra mendira eraman".

Alkatearekin azaro amaieran elkartu ziren, eta, Martinezen

arabera, arrazoa eman zien: "Esan ziguten ordenantza zaharkituta geratu dela, horrenbeste txakur ez zeuden garaian egindakoa edo egungo ezaugarrietara egokitzen ez dena. Ordenantza aldatu gabe, eskatu genien

egungo *pipican*-ak handitzeko, inguruan dituzten espazio berdeak aprobetxatuta".

**Epe luzerako irtenbide baten bila** Gorka Artola alkatearen arabera, konpromisoa hartu zuten Guau elkartekoekin arazoa aztertzeke; epe luzera begirako irtenbide bat topatzeko lanketan dihardute: "Ez dauka soluzio errazik eta azkarrik; *pipican* batzuk handitzeko aukera badago, baina ez dugu uste arazoari erantzuteko neurri orokor egokia denik. Argi dago txakurrek solte joateko espazioak behar dituztela herri barruan; elkarbizitarako aurrerapausoa litzateke, txakurrak gustuko ez dituztenek ez dutelako kalean txakur askatuekin topo egingo".

Egun, parkeetan ezin dira txakurrak sartu, eta ordenantza aldatu egin beharko litzateke horretarako. Baina badira parkeak ez diren bestelako berdeguneak txakurrak solte eraman ahal izateko –etxe bloke batzuetako lorategiak, hilerrri ingurua, Labegaraieta kiroldegiko ataria, Migel Altuna berriaren inguruak–; aukera horiek guztiak "ondo" aztertu nahi ditu Udalak.

**Betebeharrak, eta eskubideak**

2019ko azaroaren 28an egin zuten lehen elkarretaratzea San Martin plazan, eta orain, eguenero elkartzen dira. Hala ere, bestelako ekintzak antolatzea ari dira pentsatzen: "Txakurren

erakustaldi batzuk prestatzen ari gara herritarren arreta erakartzeko. Ekitaldi horiek aprobetxatuko genituzke informazioa banatzeko". Hain zuzen ere, jabeengan jarri du arreta Martinezek: "Jabeek txakurren kakak jaso behar dituzte; gehienek egiten dute, baina ez guztiek. Gizalege kontua da. Txakur jabeok batuago egotea komeni zaigu, gizalegez jokatzeko ez dutenei gizalegez jokatzera behartzeko; txakurrek ez dezaten faxadetan edota erakuslehoetan txiza egin edota kaka egiten dutenean kakak jaso ditzaten".

**DNA probak eta "isun gogorak"**

Martinez harago doa, eta DNA probak proposatu ditu: "Udalera jo genuenean proposatu genuen; kakei jarraipena egin diezaiekegu DNA jasota. Ikertu eta txakurraren jabea identifikatu ostean, isun gogorak jar daitezke; isun horiekin jasotzen den diruaz finantza daitezke DNA proba horiek. Alkatearekin berriro ere biltzeko asmoa dute: "Txakurren espazioak behar ditugu; txakurrak aske eraman ahal izatea behar dugu bestelako eragozpenik sortu gabe".

**KAKAK JASOTZEN EZ DITUZTEN JABEEI DNA PROBA EGIN ETA "ISUN GOGORAK" JARTZEA NAHI DUTE GUAU-KOEK**



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

## Ingurugiroaren heriotza taupadak

Zer ikusten ari gara? Australian milaka baso, etxe, zelai, eta abar su garretan kiskaltzen eta ehunka espezie desagertzen. Bitartean, Trump presidentearen antzera, klima aldaketa eta horrelako esaldiak kontu merkeak direla entzun behar.

Alexander Von Humboldt (1769-1859) alemaniarra gai honetan zientzialaria, astronomoa, geografoa, ikertzailea, eta abar. Duela 200 urte ikerketa alorrean egin zituen lanak bere garaiko eta ondorengo zientzialarien aitortzea izan du. Humboldt-ek garbi azaldu zuen ekonomia eta politika arloko eraginak ingurugiroan zerikusi osoa duela, txarrerako.

Zer gertatzen da? Klima aldaketari buruz hitz jarria handia, baina ekintzarik bat ere ez. Zientzialarien mezuak garbiak dira. Baina politikari bati tertulia batean entzun nioenez, "ondorengo belaunaldien arazoa eta eginkizuna izango da". "Hor konpon!" esatea bakarrik falta zitzaion. Arazo honetan zerikusi handia dute multinazionalak. Baina aginte publikoak neurriak hartu behar ditu, udaletatik hasi eta gainerako erakundeetan. Planteamendu zehatzik egiten ez duen alderdiari, botorik ez.

## Langile bat behar dugu Euskaraldia dinamizatu dezan

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den bigarren Euskaraldia dinamizatzeko langile baten bila ari gara. Lan kontratua otsailetik abendura bitartekoa izango da eta lanaldia, egunean lau ordukoa. Curriculum elkartearen egoitzan aurkeztu edo [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbidera bidali behar da; azken eguna urtarrilaren 24a da. Kontuan hartuko da, besteak beste: euskaltzalea izatea; herria ondo ezagutzea eta jendearekin harremanak izateko gai izatea. Euskaraldia martxan jartzeko lehen bilera hilaren 22an egingo da, Irizar jauregian (19:00).

## OHARRAK

### Pentsio publikoak aldarrikatzeko hitzaldia

Duintasuna eta Gaurgeroa elkartearen eskutik, Oneka plataformako Ana Mezok eta Arabako pentsiodunen ordezkari Jesus Soubiesek hitzaldia emango dute urtarrilaren 21ean Seminararioan (18:30).

### Bilera: Ibargarai berriro urbanizatzeko lanak

Ibargarai 4 eta 14 atarien arteko presidenteekin bilera egingo dute urtarrilaren 23an udaletxeko gobernu gelan (19:00). Tarte horretako merkatariekin egun eta leku berean bilduko dira (15:30).

### Osasun Mahaiaren 2020ko lehen bilera

Gaiak: 2019aren balorazioa, Mugikortasun Plana, bihotz-biriken suspertze saioak... Hilaren 21ean bilduko dira, osasun etxean (19:00).

### Erretzeari uzteko ikastaroa osasun zentroan

Otsailaren 13an hasiko dute beste ikastaro bat. Ordu eta erdiko bost saio egingo dituzte; gehienez, 15 lagunentzat. Ikastaroa doakoa da, eta izena emateko osasun zentrorra jo behar da.

### 1956an jaiotako urteroko ospakizuna

Urtarrilaren 25ean, Zumelagan bazkalduko dute (14:30). Izena emateko azken eguna urtarrilaren 21a da: 630 62 61 30.



# "Baldintzak hobetu arren, bide luzea dugu oraindik"

**MAIALEN ESNAOLA** RACING TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

Lehen itzuliko minutu guztiak jokatu, entrenatzailearen konfiantza osoa dauka atzelari bergararrak; nesken futboleko lehen hitzarmen kolektiboa urtarrilaren 20an sinatuko da

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bigarren Mailako Reto Iberdrola ligako lehen itzulian minutu guztiak jokatu dituzten bederatzik jokalarietako bat da Maialen Esnaola (Bergara, 1994). 2010-2011 denboraldian hasi zen futbolean, Bergara Kirol Elkarteko gazte mailan, eta duela hiru urte BKEan ari zen: "Profesional mailara egin dut salto hiru urte eskas-tan. Balio dezala Bergarako neska gazteak ere motibatzen".

**Datu esanguratsua da lehen itzuliko minutu guztiak jokatu izana. Zorionak! Pozik egongo zara, ala?**

Oso pozik. Entrenatzaileak konfiantza osoa du nigan, eta, beraz, esan daiteke arlo pertsonalean ezin dudala gehiago eskatu.

**Nola bukatu zenuen Santanderko Racing taldean jokatzeko?**

Iaz, Santanderrera bizitzera etorri nintzen bikotekidearekin; futbol jokalaria da eta Racingek fitxatu zuen. Lehen aldia da kanpora jarraitzen diodana, orain arte ikasten egon naizelako Eus-



Esnaola pase bat egiten, ligako lehen itzuliko partiduan. SANTIAGO MATE

kal Herrian. Baina iaz distantziako master batekin hasi nintzen, berarekin joateko aukera ezin hobea izan nuen. Hala, Santanderrera heldu bezain laster nesken futbol taldeengatik galdezka hasi eta berehala Mon-

te klubarekin entrenatzen hasi nintzen. Bi aste geroago, Bigarren Mailan zegoen lehen taldeak fitxatu ninduen. Iaz, Monte CF taldearekin nabilela, Espainiako Futbol Federazioak aditzera eman zuen liga berri bat eratu

behar zutela bigarren eta lehen mailen artean, eta gure helburua lehen lau postuen artean geratzea zen aurten liga berri horretan lehiatu ahal izateko. Ez genuen helburua lortu. Racing, iazko gure aurkarietako bat, laugarren postuan geratu eta igoera lortu zuen. Uda hasieran, Racing nirekin kontaktuan jarri zen eta kontratu profesionala eskaini zidaten. Ez nuen asko pentsatu behar izan: kategoria bat gorago, futbol profesionala eta hori guztia etxe ondoan.

**Hamaikagarren postuan dago Racing. Gustura postu horretan?**

Denboraldi aurreko helburua mailari eustea zen eta helburu hori bete egin dugula esan daiteke, jaitsiera postuak oso urrun daude eta. Hori bai, ea gai garen hasi berri dugun bigarren itzulian goiko postuetara hurbiltzeko.

**Bigarren itzulia ederto hasi zenuen joan den aste bukaeran...**

Bai, bolada onean gaude. Zangoza 5-0 hartu genuen mendean.

**Zer moduz zaude Santanderren?**

Ederto. Segituan topatu nuen futboleko jokatzeko taldea, eta, gainera, hiri txikia eta eroso da. Hondartza dauka eta mendia ere oso gertu dago. Herrimina sentitzen da, baina, etxetik horren gertu egonda, ahal dugun guztietan joaten gara Bergarara.

**Zure herrikide Vanessa Gimbert erreferente izan da zuretzat?**

Lehen Mailan urte luzez jokatu duen jokalaria da; horrelako jokalariai beti dira erreferente

niretzat. Jarraitu dut. Egia da azkenaldian gehiago jarraitzen dudala, duela urte gutxi hasi ziren-eta emakumezkoen futbola telebistaz ematen...

**Nola ikusten duzu emakumezkoen futbola? Azaroko greba, hitzarmena urtarrilaren 20an sinatuko dela...**

Greba bueltako zalaparta oso gogoan daukat. Lehen Mailan lanean ari dira eta igartzen da baldintzak hobetzen ari direla. Reto Iberdrola liga da horren adibide: maila erabat berria da eta profesionala da. Hau da, pasatu gara maila profesional bat izatetik bi izatera. Aurrerapausoak ematen ari dira, baina gizonzkoen aldean oraindik bide luzea dugu egiteko. Alde itzela dago; nire bikotekidearekin konparatuta, bere baldintzetara hurbildu ere ez naiz egiten. Eta biok gaude maila berean.

**Zer esango zenioke asteen hiru edo lau alditan Ipintzan entrenatzen duen jokalarik gazte horri?**

Gustura badabil segi dezala futboleko, ez dezala beste faktore batzuek utzi. Duela hiru urte, Bergaran nengoen, erregionalean, eta orain, profesional mailan nabil; posible da aurrera egitea, futboleko ez da ezer ezinezkoa.

## "BIKOTEKIDEAREN BALDINTZETARA EZ NAIZ HURBILDU ERE EGITEN, ETA MAILA BEREAN GAUDE BIKOK"

## 2020rako ekintzen berri eman du Pol-Pol Mendizale Taldeak

Gazteek eta beteranoek hamarna ekintza antolatu dituzte; Mendi Astea otsailaren 24tik martxoaren 1era izango da

**J.B. BERGARA**

Pol-Pol Mendizale Taldeak 2020rako ekintzen berri eman du. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzendutako ekintzez gain, gazteek eta beteranoek hainbat ekintza izango dituzte urte zehar. Bihar bertan, adibidez, Arranoaitz, Arrola eta Anzuola arteko txangoa egingo dute gazte taldearen eskutik. Europako mendietara irteera urriko zubian egingo dute aurtenera. Beteranoek, berriz, hamar irteera antolatu dituzte; gehienak Espainian izango dira.

**Mendi Asterako egitaraua prest**

Mendi Astea otsailaren 24tik martxoaren 13ra izango da aurtenera, eta ekintzak zehaztu dituzte dagoeneko. Raul Diazek Nepalen mendiko bizikleta baten bizitakoak kontatuko ditu, otsailaren 24an; Vicente Castro eskalatzaileak Groenlandiako hormak aurkeztuko ditu, otsailaren 25ean; Ana Zamoranok mendiarekin, bizikletarekin eta argazkilaritzarekin duen harreman bereziaz jardungo du, otsailaren 26an; Oihana Azkorbebeitia mendi lasterkariak *Emakumea, ama eta*



2020ko urtarrilaren 1ean Itxumendira eta Gorrara egindako irteera. POL-POL

*kirolaria* izeneko hitzaldia eman go du, otsailaren 28an; boulder txapelketa herrikoia egingo dute Labegarrietako rokodromoan, otsailaren 29an (15:00); eta, bukatzeko, *slack line* erakustaldia egingo dute Bideberrin (13:00).

Azken bi ekintzak izan ezik, besteak Pol-Polen egoitzan izango dira, 19:00etan.

Bestalde, abenduaren 31ko San Silvestre proba antolatzeaz gain, uztailako Ehun Miliak lasterketan laguntzaile arituko dira.

## OHARRAK

**Oñatiko erabiltzaileak**

Oñatiko kiroldegiko lanek iraun bitartean, oñatiarrek aukera dute Agorrosingo erabiltzeko. "Gurean berritze lanak egin zirenean, Oñatira joateko aukera izan genuen. Denon laguntza beharko dugu elkarbizitzarako", dio Udalak. Oñatiko erabiltzaileek Bergarako erabiltzaileen baldintza berak izango dituzte.

**'Body balance'-a**

Kirol jarduerak horrek duen arrakasta ikusita, martitzen eta eguenean beste saio bat jarri dute martxan, 10:30ean.

**Kirol egokitua**

Euskadiko eslalom txapelketa bihar, frontoian (10:00).





June eta Adam (Ikasleak)  
Mamadou, Maite eta Fernando

# MATRIKULA ZABALIK

**URTARRILAK 21: "ESKOLAKO KANPO ESPAZIOA HAURREN GARAPENERAKO ETA IKASKUNTZARAKO BALIABIDEA" IÑAKI LARREA Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlariaren eskutik, Lehen Hezkuntzako Liburutegian 18:00etan.**

(Zaintza zerbitzua egongo da).

**URTARRILAK 28: BILERA INFORMATIBOA** Haur Hezkuntzan 18:00etan. (Zaintza zerbitzua egongo da).

**URTARRILAK 29,30,31: ATE IREKIAK** Haur Hezkuntzako geletan.



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



Certificado  
de Escuela  
Sostenible



**KALITATEA  
HEZKUNTZAN**







Kultura zinegotzi Kristina Markina eta Kultura teknikari Mainer Osa, astelehenero agerraldian.

## Maiatzera arteko kultura ekitaldiak, aurkeztuta

Urtariletik maiatzera arteko kultura ekitaldi nagusiak batzen dituen egitaraua aurkeztu du asteon Bergarako Udalak Seminarixoa aretoan. Diziplina askotariko 26 emanaldi antolatu dituzte: musika, antzezlanak, familientzako ikuskizunak, eta abar

**Jone Olabarria** BERGARA

Urtariletik maiatzera arteko kultura ekitaldi nagusien egitaraua aurkeztu zuten astelehenero Kultura zinegotzi Kristina Markinak eta Kultura teknikari Mainer Osak Seminarixoa aretoan. Hain zuzen, han izango dira ekintza gehienak, eta, besteak beste, antolatu dituzte hamahiru musika emanaldi, familientzako zazpi ikuskizun, lau antzezlan, dantza emanaldi bat eta bertso saio bat.

Ekitaldia bergarar guztien gustukoak izatea espero du Bergarako Udaleko Kultura Sailak: "Denon gustuko kalitatezko emanaldiak aurkitzea espero dugu. Horretan ahalegindu gara oraingoan ere". Horrekin batera, Udal Gobernuak aditzera eman du Kultura Saileko atek zabalik daudela: "Emanaldietako batzuk herriko zenbait eragileekin elkarlanean antolatu dira. Hala, beste behin, gonbidapena egiten diegu elkarte zein herritarrei kultura programazioa

lantzeko proposamenak egiteko edo elkarlana sustatzeko".

**Hamahiru musika emanaldi**

Begarako musika bandaren eta Txistulari bandaren emanaldiez gain, beste hainbat ikuskizun daude aurreikusita: urtarrilaren 25ean, Dama Beltzak bikotea arituko da taula gainean; martxoaren 7an, Amak-en eta Ain-en txanda izango da; eta maiatzaren 2an, Ainara Ortega izango da Seminarixoko taula gainean.

**Eskaintza zabala familientzat**

Bihartik bertatik egongo da familian ikuskizunnez gozatzeko aukera, *Kaskarot* antzezlanarekin. Otsailaren 22an, *Bizidantza* ikuskizuna izango da pilotale-

**"KULTURA EKINTZEN PROGRAMAZIOAN PROPOSAMENAK EGITERA ANIMATZEN DITUGU HERRITARRAK**

kuan, eta astebete geroago, *Iki-milikiliklik* iritsiko da Seminarixora. Era berean, martxoaren 21ean, *Safari* izango da; apirilaren 25ean, *O!*; eta maiatzaren 9an, *Erbia eta dortoka*.

**Bestelako aukera ugari**

Seminarixoa *La mudanza*, *Zaldi urdina*, *Ene ba!* eta *Yo nunca* antzezlanak hartuko ditu gaurtik martxoaren 14ra arte. Era berean, otsailaren 1ean, Dantza emanaldi bat izango da gozagai, *Gorria*. Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzariaren arteko elkarrizketa artistikoa da lana. Apirilaren 3an ere bertsoz beteko da aretoa; izan ere, Erramu Zapatu bezperan, bertso jaialdia egingo dute.

Seminarixoko emanaldietako sarrerak eskuratzeko bi bide daudela gogorarazi dute: bertako txarteldegira ostegunero 18:00etatik 20:00etara gerturatu eta [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) webgunearen bitartez.

## Txemi Etxebarria izan da onena Orkestra Zuzendaritza Topaketan

Urtarrilaren 7tik 10era Bilbon jokaturako Orkestra Zuzendaritzaren IV. Topaketan onena izan da bergararra

**J.O. BERGARA**

Bilbao Musikan jokatu duten Orkestra Zuzendaritzako Topaketan laugarren edizioan, Txemi Etxebarria bergararra izan da onena, Thomas Doss irakasle gonbidatuak eta Musika Bandako musikariek osaturako epaimahaiak hala erabakita.

Laugarren edizioa izan du aurtengoa Orkestra Zuzendaritzaren Topaketak, 2016tik Bilboko Udal Musika Bandak antolatzen duen topaketak. Lanbidea "ezagutarazi" eta nazioarteko maisuen partetik "ikasgai baliotsuak jasotzea" du helburu topaketak.

**Izen handiko zuzendariak**

Thomas Doss zuzendari austriar ospetsua gonbidatu dute aurten. Zuzendaritzako irakaslea da Vienan, eta herrialde askotan ibili da irakasten eta zuzentzen.



Txemi Etxebarria, erdian. TXEMI ETXEBARRIA

J. Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan eskaintako amaierako kontzertuan eman zuten sariaren berri. Bertan gailendu zen Txemi Etxebarria, Javier Alonsoren, Eloisa Dominguezen, Alberto Navarretoren eta Carlos Sanchoren aurretik.

## Martxan dago 2020ko Aratusteetako Kartel Lehiaketa

Beste urte batez, Aratusteetako kartelaren diseinuaren aukeraketa lehiaketa bidez egingo du Bergarako Udalak, eta bertan Bergaran bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte.

Kartelaren diseinuak, kolore eta teknika libreaz, 30x42 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira,

eta formatu bertikalean. Era berean, informatika-CD batean ere aurkeztu beharko da diseinua. Nahitaez kartelek ondorengo testua eraman beharko dute: *Aratusteak 2020, Bergara*.

Azalak Bergarako Udaleko BAZ zerbitzuan aurkeztu behar dira, urtarrilaren 27ko 13:00ak baino lehen. Epaimahaiak gain, herritarrek ere izango dute bozkatzeko aukera, udal webgunean. Irabazleak 350 euroko balioa duten bonuak eskuratu dituzte komertzioetan trukatzeko.

## Amodiozko Esaldien Lehiaketan parte hartzeko azken eguna

Gaur, hilak 17, da Jardunek antolatutako Amodiozko Esaldien IV. Lehiaketan parte hartu ahal izateko azken eguna. Esaldiak Whatsapp bidez edo mezuz 605 71 24 69 telefono zenbakira bidali behar dira, edota [amodioz-kogutunak@gmail.com](mailto:amodioz-kogutunak@gmail.com) helbidera. Esaldi onenak 100 euroko saria jasoko du, eta irakurle gazteek emango dute.

## 'Bergara 1965-1985 Serafin Esnaolaren begirada', Interneten

Seminarixoa egindako hiru emanaldien arrakastaren ostean, Interneten ikusgai dago *Bergara 1965-1985 Serafin Esnaolaren begirada* filma. Serafin Esnaolaren grabazioekin Asier Altunak, Miguel Angel Elkoroberezibarrek eta Aitor Alberdik egindako filma ikusgai dago [liburuak.xubi.eus/hasiera/pelikulak-serafin-esnaola](http://liburuak.xubi.eus/hasiera/pelikulak-serafin-esnaola) webgunean.





# dks'19

DEBAGOIENENKO  
KIROL SARIAK

Mankomunitateko udal bakoitzak bere herriko kirolari, elkarte edo ekimena sarituko du.



**ANTZUOLA SARIA**

Aitor Mendizabal



**ARAMAIO SARIA**

Aitor Ugarte



**ARETXABALETA SARIA**

Oihana Aldai



**ARRASATE SARIA**

Fernando Zufiria 'Txufi'



**BERGARA SARIA**

Josetxo Muniategi



**ELGETA SARIA**

Iñaki Olaortua



**ESKORIATZA SARIA**

Narciso Pavo



**LEINTZ GATZAGA SARIA**

Joxe Inazio Beloki



**OÑATI SARIA**

Markel Irizar

## EMAN BOTOA

Herritarren Sarirako hamar hautagairen artean eman botoa **Goiena.eus**-en, urtarrilaren 23a baino lehen.

**IRABAZI ABONAMENDUA! Parte hartzaileen artean**  
**Debagoieneko kiroldegi baterako urte osorako abonamendua**

**SARI NAGUSIEN  
BABESLEAK:**

**ekidegroup**

KIROLARI ONENAREN SARIA

**goiena**

KOMUNIKAZIO TALDEA  
TALDE ONENAREN SARIA



HERRITARREN SARIA



SARI BEREZIA



KIROL IBILBIDEAREN SARIA

Oharra: Ekitaldia urtarrilaren 28an egingo da Bergarako Seminarixoan eta gonbidapena beharrezkoa izango da bertan zuzenean jarraitu ahal izateko.

**GOIENA TELEBISTAK ZUZENEAN EMANGO DU EKITALDIA HERRITAR GUZTIONDAKO ETA  
STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS WEBGUNEAN ERE JARRAITU AHAL IZANGO DA.**



# "Nire hutsunea norbaitek betetzea nahiko nuke"

**JESUS KORTABARRIA BIZIKLETAZALEA**

45 urtean aritu da herriko txirrindularien bizikletak konpontzen Kortabarria. Orain, erretiroa hartuko duen arren, Lokatza taldeari lotuta jarraituko duela dio

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Lau hamarkada pasatxoan ibili da lantegiko lana amaitu eta bere denbora librean, arratsaldero, txirrindulari eskolako gaztetxoek bizikletak konpontzeko lanak egiten Jesus Kortabarria *Kaxeta*. Erretiroa hartzeko garaia iritsi zaiola kontatu dio GOIENARI.

**Txirrindularitza pasioz bizi izan duzu beti.**

Bizikleta ganean ere ibilia naiz lehiatzen, nahiz eta lorpen handirik izan ez. 22 urterekin soldadutza amaitzean ekin nion nire kasa bizikletak konpontzeari; eskua sartu eta aurrera!

**Herrian bizikleta asko zeuden?**

Orduan, bazeuden bizikletak herrian. Zaletasuna beti egon da; ez orain bestekoa, noski. Sasoi hartan, denek ezagutzen genuen elkar errepedean; gaur egun, ez dut inor ezagutzen.

**Bereziki, txirrindularitza eskolako gaztetxoei lagundu izan diezu.**

Aurrena, Peña Aiastuin jardun nuen, lehendakari; ondoren, Lokatza txirrindularitza eskolan. Bertako bizikletak konpontzen eta mantentzen jardun dut, nagusiki. Orduan, neska-mutikoei uzten zitzaizkien bizikletek arazoak izaten zituzten eta neuk konpontzen nituen. Aisialdiko denbora horretan eman dut.



Kortabarria bere errepedeko bizikletari helduta. MAIDER ARREGI

## "ETXABE ANAIK, IRIZAR, LIZARRALDE ETA ARISTI NIREKIN IBILI ZIREN LOKATZA ESKOLAN"

**Asko aldatu da lan mekanikoa.**

Ikaragarri eboluzionatu du. Ikaragarri eboluzionatu du. Lehen, aldapa handiak igotzen genituen bi platerekin eta bost pinoirekin. Azkar etorri da eboluzioa eta oraindik ez dakit noraino iritsi behar duen. Orain,

dena elektronikoa da; pixkana, tresnak erosi behar izan ditut. **Onenen bizikletak zure eskuetan.** Etxabe anaiak, Mikel Aristi, Markel Irizar eta Eneko Lizarralde. Nirekin ibili ziren eskolan eta oso oroitzapen onak ditut bihotzean gordeta.

**Zaletasuna bai baina auzolan gutxi.**

Lokatzen ardura bi lagunek soilik daramate. Jendearen laguntza behar da lasterketak antolatzeko. Gizartea asko aldatu da eta auzolan hori eskatu egin da. Hemendik herritarrek animatu gura ditut.



Ikasleak Don Federiko maisuarekin, 1928. urtean. 'ANTZUOLA 1900-1970'

## Herriko eskolaren historia argazkitan jasotzeko deialdia

Iñigo Ramirez de Okarizek eskolaren historia batzen duen liburua egin du eta otsailean argitaratuko da

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Antzuolaren eta herriko hezkuntzaren gaineko bilakaera jasoko duen liburua argitaratuko da otsailean. Iñigo Ramirez de Okarizek egin du lana, eta bertan, hezkuntzak Antzuolan izan duen eboluzio historikoa jaso du herriko historialariak.

Liburua argitaratzearekin batera erakusketa ere antolatuko da. Erakusketarako, baina, argazkiak bildu nahi ditu Kultura Sailak. Horregatik, herritarrei dei egin die Antzuolako Udalak, eskolarekin zerikusia duen argazkirik izanez gero horiek

udaletzeko Kultura Zerbitzura eramateko –kopia atera eta berriz bueltatuko dira–. Erretratuak eramateko azken eguna urtarriaren 30a da.

**Nolako argazkiak?**

Askotariko argazkiak batzeko deialdia egin dute: eskolako lagunak agertzen direnak, herriko eskolaren bat agertzen dena – Uzarragakoa, nazionalena, Maristena, Ikastola, Herri Eskola...–, irakasleren batena... hau da, *eskola* gaia erakusten duen edozein argazki jaso gura dute.



WWW.IKARAIKORBE.COM

## 'Laino artetik esnatzen'

Iker Aizkorbe argazkilaririk Murutik, Aretxabaletatik, argazki ederra atera zuen zapatu goizaldean. Eguna oraindik ere esnatzen ari zen unekoa da. Argazkilariairen objektiboaren aurrean, berriz, Oñatiko Aloña Mendiren gailurra behe-lainoak bere magala janzten duela. *Laino artetik esnatzen* izenburua jarri dio Aizkorbe erretratuari.

## Erreleboaren zain

Osabaren txabolan zuen lehen tailerra. 2005ean, txabola bota zuten eta Eguzki auzora joan zen Kortabarria: "Zalantzan egon arren, jendeak animatuta jarraitu nuen 2005ean. Orain, nire hutsunea besteren batek betetzea nahiko nuke. Irakasteko prest nengoke. Bailaran bada zerbitzua ematen duenik, baina Antzuolan hutsunea geratuko da".



Kaxeta, bizikletak konpontzeko egokitu duen gunean. MAIDER ARREGI





Aratusteetako dantza saio nagusia Herriko Plazan. GOIENA

# Aurtengo Aratusteak zapatuan ospatuko dira

Oinarin dantza taldea hasia da Aratusteetarako motorrak berotzen. Herritarrak ere hasi dira Aratuste-dantzak ikasten. Aurtun, ordea, mozorro-festa zapatuan ospatuko da, egun osoz. Helburua da festaren izaera eta parte hartzea indartzea

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Antzuolan Aratuste-domeka ospatu izan den arren, aurtun, mozorro-festa zapatuan ospatuko da. "Domekako eguna, dantza taldearen parte-hartze mailari dagokionez, moteltzen joan da. Egun hau pizteko eta indartzeko motibazioa agertu da orain, eta aukera bezala aztertu da egitaraua zapatua aldatzea.

Aurtengo saiakerarekin ikusiko dugu zer gertatzen den, baina, urtero bezala, herritar oro dantzan egitera animatu nahi dugu", azaldu du Oinarin dantza taldeak.

Egitarauari bere osotasunean eutsiko lioke aldaketak. "Eguna luzatuko den arren, goizetik hasiko gara dantzekin eta eguerdian egingo dugu dantza emanaldia plazan. Oraindik dantzak

zehaztu gabe dauden arren, horretan lanean dihardugu, eta dantzan ohitu gabeko jendea ere animatzeko esperantza dugu. Edonor dantzan jartzeko aitzakia izatea nahi dugu".

**Entseguak hasi dira**

Astelehenean egin zuten lehen entsegua, liburutegian. Herritar orendako daude atek irekita.

## Andre Martinoni azken agurra emango diote gaur Aiherran

Aiherra eta Antzuola herrien arteko harremanaren hasierako sustatzaile izan zen Andre Martinon

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Eguazten arratsaldean hil zen Andre Martinon aihertarra. Martinon izan zen Aiherraren eta Antzuolaren arteko harremanaren sorreraren sustatzaileetako bat.

Gaur, egubakoitza, emango diote azken agurra lagunek eta senitartekoez, arratsaldeko laurretan, Aiherran.

Antzuolarrak gertutik hunkitu dituen albiste izan da Martinonen heriotza. Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak Martinonek ereindako hazia

gogora ekarri gura izan du une hauetan: "Andre Martinon eta Añe Mari emaztea Aiherraren eta Antzuolaren arteko hartu-emanaren hazi izan dira. Ereiten asmatu egin zuten, gainera, bi herrien arteko mugak zubi bihurtzeko desioan, gazteengana jo zutelako. Horregatik dago bizi-rik senidetzea. Andreren amestetako bat aihertar bat antzuolar batekin ezkondu ikustea zen. Hori ezagutu gabe joan da, baina lortu du denok herri bereko seme-alaba garela sentiaraztea".

## Musikaz gozatzeko aukera izango da gaztetxoek eskutik

Gazte txokoko neska-mutikoez musika jaialdia egingo dute zapatuan, urtarrilaren 18an.

Helburua da Iruñera egingo duten irteerarako dirua batzea, hain zuzen ere. Horretarako, pintxoak prestatu eta banatuko dituzte herritarren artean bihar.

Uda-Azken bertsiotako talde akustikoak eskainiko du musika emanaldia, 18:30ean hasita, he-

rriko pilotalekuan. Baina 17:00etatik aurrera pilotalekuko atek irekita egongo dira gaztetxoek pintxoak dastatzeko.

Irteera urtarrilaren 26an, domeka, egingo dute, Iruñera, eta jada izena emateko epea itxita dagoela aurreratu dute. "Goizean Iruñea ezagutuko dugu modu ludikoan eta arratsaldean *salting*-era joango gara. Izena emateko epea itxita dago eta 45 gazte apuntatu dira", azaldu du Zumaia Elkorok, gazte txokoko koordinatzaileak.

## Hainbat ekintza greba orokorraren berri emateko

*Lan, pentsio eta bizitza duina* lelopean urtarrilaren 30ean egingo den greba orokorra antolatzeke bilera egin dute asteon. Hainbat ekintza egitea adostu dute herritarrek. Hala, bigarren batzarra astelehenean egingo dute, 18:30ean, Orlaranen. Egue-nean, pintxo-pote girotua egingo dute eta taberna bakoitzean gai ezberdinak landuko dituzte.

Hilaren 25ean, zapatua, Elore-regira irteera egingo dute eta hilaren 29an etxeetako balkoietan lapiko jotzean parte hartzeko dei egin diete herritarrei.

Greba batzordeak iragarri du datozen egunetan emango dituela ekintza horien gaineko xehetasun gehiago.

## OHARRAK

### Otarrearen zozketa

*Ez dot moztuko bizarra* taldearen otarra 342 zenbakiarendako da (ordezkoa: 816). Amaia dendan jaso daiteke, hilaren 22ra arte.

### Hezkuntza tesia

Andoni Argiñanok herriko hezkuntzaren gaineko tesia aurkeztuko du hilaren 20an, Torresoroan, 18:30ean.

### Mus txapelketa

Herriko mus txapelketako azken kanporaketa jokatu da bihar, zapatua, Arin jatetxean, 17:00etan hasita. Txapelketako finala, berriz, hilaren 26an Gorosti tabernan 16:30ean jokatu da, hain justu ere.

## Mozorrotzeko deia

Herritar oro festara animatu nahi du Oinarinek. "Nahiz eta gurekin dantza egitera animatu ez, har dezatela iniatiba eta ken diezaiotela armairuari hautsa! Jantzi mozorroa eta irten daitezela kalera zapatuan, goizez zein arratsaldez, gu herria girotzeko asmoz gabiltzan bezala, herriak gu ere girotu gaitzan", azaldu du Oinarin dantza taldeak.



Herritarrak punk mozorroarekin. GOIENA



# "Dantza garaikidean espezializatu naiz"

**GAIZKA MORALES RICHARD** DANTZARI PROFESIONALA

11 urterekin Eibarren hasi, Madrilen ikasketa ofizialak burutu eta Bartzelonako IT Dansa Konpainia Gaztean ari da gaur egun elgetarra. Gabonetan izan da herrian

**A. Agiriano / L.Z.L.** ELGETA

Txiki-txikitatik izan du argi dantzari izan nahi zuela. Ez da bide erraza, baina gogoko alda-pan nekerik ez!

**Hasieratik izan zenuen oso argi.**

Ez nekien ezer dantzari buruz eta Elgetan ez zegoen ezer dantza egiteko, baina telebista saioak ikusten nituen eta 11 bat urterekin esan nion amari dantza ikasi nahi nuela. Eibarko kiroldegiko eskolan eman nuen izena. Ordutik, egunero egin dut dantza.

**Gurasoek zu bezain argi izan dute?**

Nik neuk oso argi eduki arren, 16 urtera arte-edo ez nuen ezer esan argi. Amak bai, amak beti izan du oso argi. Aita konbentzitzea pixka bat zailagoa izan zen, baina oso pozik daude biak. Beti lagundu didate. Biek. Ez didate inoiz trabarik jarri.

**Genero kontuak direla-eta dantza oso markatuta dagoen lanbidea da.**

Bai. Hemendik irtendakoan eta arlo profesionalean ikusi ditut nik mutilak dantzan. Gure konpainian, esaterako, erdi eta erdi gara, baina eskoletan eta herrietan ez da horrela. Mutil bakarra izan naiz beti; 300 neska artean mutil bakarra. Ez dut sekula arazorik eduki, ez familiarekin ez lagunekin. Beti izan dut babes hori, baina errealitate bat da mutil oso gutxi animatzen direla dantza mundura.

**Lehenengo pausoak Euskal Herrian eman zenituen. Nolako izan zen Euskal Herriatik Madrilerako urratsa?**

Nahiko pauso handia izan zen, eta mundu profesionalean burubelari sartzeko erabakia hartuta emandakoa. Hemen, asko jota, egunero ordubetez egiten nuen dantza, eta hortik aurrera sei bat ordu egunero. Teknika ikasi, dantzari profesionala izatea zer den ulertu, beste ikasle askorekin elkartu... Burubelari sartu nintzen, eta, egia esan, non sartzen nintzen benetan jakin gabe.



Gaizka Morales Richard, Elgetan. GOIENA

## "OSO MUTIL GUTXI ANIMATZEN DIRA DANTZAREN MUNDURA, BAKARRA IZAN NAIZ BETI"

**Derrigorra da kanpora joatea formakuntza profesionala jasotzeko?**

Profesionalki formatzeko, bai. Hemen badaude eskolak eta amateur moduan dantza egiteko arazorik ez dago, baina falta da formakuntza eskaintza on bat.

**Lanbide egonkorra da dantza?**

Ez, oso aldakorra da. Espainian, gehienbat. Konpainia gehienek proiektuka egiten dute lan edo denboraldi baterako egitasmoak dituzte, eta gero, hilabeteak zauden ezer barik. Ni, orain, ondo nago. Eguneroko lana dut, baina egia da konpainia gaztea dela, eta dantzari gazteendako. Graduondo moduko bat da eta beka bat jasotzen dugu. Europa mailako bira bat egiten dugu eta esperientzia handia ematen du. Baina dantzaren mundua ekonomikoki ezegonkorra da. Oso

oso gauza gutxi daude ekonomikoki egonkorrak direnak.

**Elikadura, gorputzaren zainketa, ikasketen zorrotasuna, gizartearen presioa... arazo iturri dira?**

Ezagutzen dut jende asko etxetik kanpora atera dena dantza ikastera, eta presioagatik edo diziplina handia eskatzen duelako laga egin duena. Dantza diziplinak ere badu eragina. Batzuk beste batzuk baino gogorragoak dira. Elikadura arazoak ere entzuten dira. Nik ez dut horrelakorik bizi izan, eta nire inguruan ez dut askorik ikusi, baina gertatzen da. Ez dira ikasketak errazak. Gero, dantza ikasketak egiten ari zarela esaten duzunean galdetu ohi dizute ea hori ikasi egiten den. Noski ikasi behar dela, eta asko, eta, gehienetan, etxetik kanpora.

**Zein da zure espezializazioa?**

Dantza garaikidean espezializatu naiz. Dantza klasikoa ere egin dut, eta jazz estiloa ere bai. Teknika klasikoa, esaterako, asko erabiltzen dut.

**Zer da GU?**

Ursula Mercado neska-lagunak eta biok sortutako proiektua. Batera ikasi genuen Madrilen eta sorkuntzak egiten hasi ginen. *Kilometros* koreografiarekin Madrilgo lehiaketa bat irabazi genuen. Euskadi Gazteko sari bat ere bai, berriki.

**Konpetentzia handia dago?**

Gutxien gustatzen zaidana da. Akademian kideak gara, baina, audizio batean bost plaza daudenean eta 200 dantzari garenean, nahitaez dago konpetentzia.

**Gomendatzen diozu jendeari dantza egiteko?**

Noski. Hasteko ez da sekula berandu, ez dago adinik. Gainera, diziplina asko daude. Dantza egitea oso-oso ona da.



NIRE USTEZ

**JOSEAN OJANGUREN**  
ERRETIRATUA

## Merezi du, benetan

Elgetako erretiratuen elkarteak 40 urte beteko ditu uztailaren 1ean; izan ere, 1980an sortu zen. Urte hauetan guztietan lan egin dutenei eskerrak eman besterik ez dago. Mila esker, benetan.

Elkartearen etorkizunarekin nago ni kezkatuta. Bederatzi lagunek osatzen dugu zuzendaritza batzordea eta tartean badira hamabost edo 8-10 urte daramatenak. Urte asko dira eta nahiko lukete atsedean hartu, baina ez da inor gerturatzeko erreleboa emateko.

Boluntario berririk ez eta batzordea uztea erabakitzen badute, lauzpabost lagun geldituko gara taldean. Ezinbestean, behera egingo luke antolatutako ekintza kopuruak. Eta, denborarekin, elkarte desegiteko bidea ere ez ote luke ekarriko horrek?

Badut beldur hori. Zer gertatuko litzateke, orduan, Ozkarbi elkartearekin? Gogoan izan Ozkarbi elkarteak hitzarmen bat duela Udalarekin erretiratuak direla eta. Zer ondorio izango luke elkartearendako hitzarmen hori bertan behera gelditzeak?

Deia Elgetako erretiratu guztiendako da. 160 bazkide inguru gara. Jendea behar dugu zuzendaritza batzordean. Herri txikia da gurea.

Merezi du, benetan.

## OHARRAK

### 'Ipuinen ordua' gaur


Hiru saio, liburutegian. 17:00etan, LH3-tik gorakoak; 17:30ean, 5 urteko gelatik gorakoak; eta 18:00etan, 2-3 urtetik aurrerakoak.

### Podologoia

Urtarrileko kontsulta hilaren 20an izango da, astelehena. Txanda hartzeko deitu egin behar da aurrez: 943 76 80 77 (Nati).

## Dantza irakasle, Bartzelonan

Ikastetik erakustera pasa da Gaizka Morales elgetarra. "Bai, eskolak ematen ditut orain Bartzelonan. Arratsaldeetan izaten dira saioak eta nire edade inguruko jendea da, edo jende gazteagoa. Dantza klasikoa eta garaikidea irakasten ditut. Oso gustura nabil. Ez ditut eskolak modu profesionalean ematen, baina lehenengo urratsak dira", azaldu du.



Gaizka Morales elgetarra dantza eskolak gidatzen. GAIZKA MORALES



# Ogia ere bai kontsumo taldearen eskaintzan

Gabi Romerok Arrazolatik igoko du ogi ekologikoa Elgetara, astelehenean eta barikuetan. Astelehenean eman zuen bere eskaintzaren berri. Hain zuzen ere, Ziarreta baserriko Iñigo Gabilondok lehenengo banaketa egin zuen egunean

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Hamalau otarre igo zituen Iñigo Gabilondok astelehenean Elgetara. Askotariko barazkiak eta arrautzak eskatu zizkioten sortu berria den kontsumo taldeko kideek. "Dena oso ondo joan zen. Orain, ikusi egin behar da jendea gustura dagoen produktuekin", adierazi du ekoizleak.

Horrenbestez, martxan da Elgetako kontsumo taldea eta hamalau familiarekin abiarazi du ibilbidea. Pozik da Gabilondo; izan ere, astelehenean beste bi interesatu gerturatu ziren informazio eske. Badirudi, azkenean, hamasei familiak hartuko dutela parte egitasmoan.

Banaketa astelehenean izango da, 19:00etatik 19:30era bitartean, Salvador kaleko buztin gelan. Ordu horretan bertarazterik ez dutenek aukera izango dute generoa beste ordutegi batean jasotzeko; izan ere, atea zabaltzeko eta ixteko aukera izango dute.

## Ogi ekologikoa ere aukeran

Iñigo Gabilondorekin batera izan zen astelehenean Elgetan Gabi Romero okina. Arrazolan bizi da eta ogi ekologikoa egiten du. Kontsumo taldetik eskatuta izan zen Elgetan, zer-nolako ogiak eta nola egiten dituen azaltzen.

Hainbat ogi mota eman zituen dastatzera: gari erdi integralarekin eta sesamoarekin egindakoa, espelta eta zekalearekin egindakoa, ogi haziduna, ogi zuria... "Sei urte dira ogia egiten hasi nintzela eta duela urte eta erdi ari naiz nire kontura", azaldu du. Durangaldean, Elorrion eta Bergaran egiten du banaketa. Dendak, jatetxeak eta partikularrak ditu bezero.

"Bost ore mota egiten ditut: gari erdi-integralarekin eta sesamoarekin, espeltarekin eta zekalearekin, ogi haziduna, ogi galiziarra eta ogi zuria", jakinarazi du.



Kontsumo taldeko kideak, astelehenean, ogi dastaketa egiten. L.Z.L.


## "Industriak zahia eta ernamuina kentzen dizkio gariari"

**GABI ROMERO** OKINA

Hazi ekologikoak erabiltzen ditu; tartean, Adanan (Araba) berreskuratzen ari diren antzinako gari mota. Prest da Elgetan ere ogia banatzen hasteko.

### Ogi guztiak ez dira berdinak, ezta?

Ez. Industriak irin findua erabiltzen du. Gariari zahia –kanpoko estaldura– eta ernamuina kentzen dizkiote, endosperma bakarrik erabiliz. Ernamuinak ditu nutriente gehien, baina haziak lau bat hilabete irauten du, gehienez, eta horregatik kentzen dute. Gero, prozesu mekanizatuak dira eta oreka ondo jasateko gehigarri ugari eranstean dizkiote. Orea pare bat orduan harrotzeko, berriz, legamia pila botatzen diote. Intolerantzia arazo asko dago, eta uste dut hortik datozela. Glutena gordinik moduan dagoela kontsumitzen da, besteak



L.Z.L.

beste, entzimak prozesatu barik daudelako.

### Ogiaren kontsumoa jaitsi egin da?

Hogei urtean erdia baino gehiago jaitsi da kontsumoa, eta gero eta gutxiago jaten da. Intolerantziak daude eta medikuek kendu egiten dute. Ematen du garia deabrua baino txarragoa dela. Lege berri bat dago indarrean eta apur bat konpondu dira gauzak, baina okin askok pentsatzen dugu motz gelditu dela.



Eskolako danborrada kofradiako noblei emanaldia eskaintzen, 2016an. L.Z.L.

## Astelehenean elkartuko dira San Sebastian kofradiako nobleak

Aspaldiko partez, Herri Eskolako danborradak emanaldi berezia eskainiko die, 12:00etan, elizpean

**L.Z.L.** ELGETA

Eskolako danborradak urtero jotzen ditu San Sebastian Eguneko martxak, baina aurreko urteetan aste bukaerarekin ospatu izan da eguna eta ez dute kofradiako nobleekin bat egiterik izan. Astelehena da aurten, eta danborradak 12:00etan egingo du San Sebastian kofradiako noblei eskainitako saioa, elizpean.

Errege katolikoaren garaitik dator San Sebastian kofradia, eta urtarrilaren 20an egiten dute ekitaldia, urtero. Danborrada entzun ostean mezetara joango

dira nobleak eta urteroko ekitaldia egingo dute, jarraian, sakristian. Elgetako eta Uberako nobleak elkartuko dira; 22 lagun izango dira aurten. Bazkaria ere egingo dute. Maialde landetxean izango da.

### Hitzaldia eskolan, eguaztenean

Eguaztenean, berriz, etxeko laren inguruko hitzaldia egingo du Joxe Amiama adituak Herri Eskolan. Saioa 16:15ean izango da, eskolako liburutegian, *Irakasle al naiz nire etxean. Laguntza motak etxerako lanetan* izenburupean.



ANTOLATZAILEAK

## Espetxean daudenei omenaldia

Elgetako, Bergarako, Arrasateko eta Elorrioko hainbat herritar Intxortara igo ziren domekan, *Ez dugu aske izaterik hain gabe* lelopean ekitaldia egiteko. Urtero egiten dute igoera, "espetxean dauden gudariei omenaldia egiteko" helburuarekin. Salda eta sagardoa banatu zituzten tontorrean eta ekitaldia eta talde argazkia egin zituzten gero.



# Formakuntza, ahalduntzeko

Ekintzailea izatea zer den eta proiektuak aurrera nola eraman ikasten egon da Shazia Maryam baltiarra Oñatin, eta Oihane Aizpurua oñatiarrarekin batera formakuntza hori Baltistango hogeitazterti erakutsiko die, euren ideiak martxan jartzeko

## Oihana Elortza OÑATI

Enpresa arloko ikasketak burutzear daudela ezagutu dute elkar Oihane Aizpurua oñatiarrak eta Shazia Maryam baltiarrek. Aizpurua Oñatin egin ditu ikasketak eta unibertsitate mailako ikasketak bukatzeko falta zaion proiektua egitera joango da hil honen amaieran Baltistanera. Ekintzaile nola izan erakutsiko die hango gazteei. Maryamekin batera joango da. Baltiarra Oñatin bizi da pasa den martxoaz geroztik, eta LEINN graduondoa egiten egon da, jasotako formakuntza hori bere herrian aplikatzeko asmoz. Baltistan Fundazioaren eta Mondragon Team Academyren arteko elkarlanari esker elkartu eta helburu bera duten bi gazte dira.

## Pakistango emakumeak

Baltistan Fundazioak ondo ezagutzen du Pakistan iparraldean dagoen herrialde hori. "Hemezortzi urte daramatzagu han lanean eta ikusten genuen hango komunitateak menpekotasun handia zuela gure laguntzekiko, diru edo laguntza teknikoan. Beraz, estrategia aldatzea balaratu genuen, hango jendeari erreminta egokiak emateko hangoei euren garapenaren liderrak izateko", dio Baltistan Fundazioko Esther Canok. Mondragon Team Academyrekin harremanetan jarri, eta proiektua gauzatzeko elkarlana hasi zen duela bi urte.

Handik hona bi gazte ekartzea zen asmoa, ekintzailetasunaren inguruko formakuntza emateko. Deialdi zabala egin zuten han hautagaiak topatzeko, eta aukeraketa-prozesua jarri zuten martxan gero. "Bietako bat emakumea izatea gura genuen. Emakumeak han bizi duen egoera

hemengoa baino gogorragoa da eta ez zen hain erraza izan. Kosta egin zitzaigun topatzea. Lehen aukera, adibidez, bertan behera gelditu zen aukeratutako neska horren familiak ez zuelako ondo ikusten neska handik ateratzeko aukera hori, eta ezkontza adostua sinatzera behartu zuten. Aurrera jarraitzea erabaki genuen, eta orain, hemen dagoen Shaziarekin egin genuen topo", dio Mondragon Team Academyko prestatzaile Bego Ugarte oñatiarrak.

## Formakuntza bakarrik ez

Shazia Maryam baltiarrek beti amestu du kanpora joatearekin, eta sare sozialen bitartez aukera honen berri izan zuenean, curriculum bidali eta elkarrizketa egin zuen Skype bidez. Baina familia irekiko alaba izan arren, Maryamek ez du inoiz ahaztuko kanpora aterako aukeraz baliatu gura zuela esatean etxekoek jarri zituzten aurpegiak. "Hamar senide gara etxean, zazpi anai-arreba, gurasoak eta aitajauna. 2013tik, lanean ira-




Oihane Aizpurua eta Shazia Maryam, Oñatiko LEINN gradu ondoko egoitzan, Mondragon Unibertsitatean

bazten dudak diruaren beharra du familia osoak eta horren jakitun nintzen. Gelatik atera behar izan nuen aurpegi haiek ikusita. Gure aitak, baina, beti bultzatu gaitu gauzak egitera, "aurrera" esanez beti. Eta orduan

ere horrela izan zen. Eta Oñatira etorri nintzen".

Martxotik hona MUK Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean aritu da ikasketak egiten, LEINN metodologiaren barruan. Baina Oñatin formakuntza baino gehia-


## Elkartruke proiektuan parte hartu dutenak



**SHAZIA MARYAM** IKASLE PAKISTANDARRA

**"Herria maitatzen ere ikasi dut oñatiarrarekin"**

"Nire barruan aldaketa handiak izan ditut Oñatin egon naizen denbora honetan. Formakuntza jasotzeko modua asko gustatu zait, baina, horrez gain, beste hainbat gauza ere eramango ditut Oñatitik Baltistanera. Adibidez, herriarekiko atxikimendua. Han, norbait kanpora joaten bada, inork ez du espero bueltan etorriko denik. Oñatin ikusi dut egiten diren gauza guztietan, bertan edo kanpoan, herria ahaztu gabe egiten direla. Herria maitatzen ere ikasi dut Oñatin, eta hori ere nirekin eramango dut".



**ESTHER CANO** BALTISTAN FUNDAZIOA

**"Emaitza transbertsala izango da, ez espezifiko"**


"Emakumeen erreferentzia gutxi dago Pakistanen. Hango emakume bat ikastera kanpora ateratzeko, ikastera, eta ikasitako hori berriz euren herrian aplikatzeko bere eragina izango du. Proiektuaren gidari lanetan hango, Pakistango, emakume bat dagoela ikusteak ere bere oihartzuna izango du herrialdean. Hemendik joango dena ere emakumea da, gainera. Bi emakume kudeaketa lanak egiten ikusteak arrastoa utziko du. Proiektu honen emaitza, azken finean, ez da espezifiko, transbertsala baizik".



**BEGO UGARTE** MONDRAGON TEAM ACADEMY

**"Hango gazteak formakuntza bidez ahalduntzea gura da"**

"Hango herritarrek gizarte mailan ahalduntzea da elkarlan honen helburua, euren proiektuak, ekintzak, martxan jar ditzaten. Hau da, arrainak eman beharrean, arrantzatzen irakastea. Gure metodologia, LEINN, egokia izan zitekeela pentsatu genuen, eta horrela hasi ginen erakunde biok lanean. Bi lagunetatik bat emakumea eta beste gizona izatea gura genuen, eta guztia aurrera nola eraman pentsatzen hasi ginen. Gero, jarraipena egingo diegu han garatuko diren proiektuei".



**OIHANE AIZPURUA** IKASLE OÑATIARRA

**"Proiektuak nola aurrera atera erakutsiko diegu"**

"Gure lana Baltistango unibertsitatean egitea da asmoa, hango gela bat hartu eta itxura aldatu, hemen LEINN guneak duen itxura har dezan. Hango ikasleengan arreta piztu eta erakargarria izatea da asmoa, jendea gerturatu eta gure berri emateko euren. Tailerrak ere egingo ditugu eta gazteengan fijatuko gara tailer horietan. Azkenean, 20 gazte aukeratuko ditugu, hamar mutil eta hamar neska, eta euren proiektuak aurrera ateratzeko zer eta nola egin dezaketen erakutsiko diegu Shaziak eta biok".





ateko Enpresagintza Fakultatean. IBAI ZABALA

go jaso duela dio. "Bi familiaz gain, lagun pilo bat egin ditut hemen eta eskolaz kanpoko gauza asko erakutsi dizkirate; gaztelera, esaterako. Oso jende jatorra dago herri honetan eta denak egon dira prest ni laguntzeko. Eurekin batera herrian antolatu diren ekintzetan ere parte hartu izango dut; esaterako, mendi martxan. Baltistanen ere mendiz inguratuta egon arren, ez nintzen inoiz mendira joan, eta hemen 22 kilometroko martxa egin nuen. Kontzertuetan egon naiz eta baita erreka garbiketaren ere".

Horrek guztiak bere barrua aldatu duela aitortu du gazte baltiarrek. Eta hartu duen esperientzia eta jakintza guztiaz gain, herriarekiko atxikimenduaren sentipen hori ere eman go duela dio. "Nik hemengo herritarrekin, oñatiarrekin, ikasi dut herria maitatzen. Pakistanen hori ez da horrela, baina nik herria maitatzen ere erakutsiko diet. Nigan egongo da beti sentimendu hori".

#### Beharrak identifikatu

Shazia Maryamekin batera joango da urtarrilaren amaieran Baltistanera Oihane Aizpurua oñatiarra, eta elkarrekin gau-

**20 GAZTE AUKERATU  
ETA PARALELOAN LAN  
EGINGO DUTEN BI  
TALDE ERATUKO  
DITUZTE BALTISTANEN**

zaturko dute hango gazteak formatzeko proiektua. "Hori izango da helburu nagusia. Indian ere egon naiz ikasketak direla, eta emakumearen egoera nolakoa izango den imajinatzen dut, gutxi gorabehera. Eurei zuzendutako ekintzaren bat egiteko aukera ikusiz gero, hori egiten ere saiaturko gara", dio ikasle oñatiarrak.

Shazia Maryamen aurretik Basharat Ali egon zen Oñatin, handik etorritako beste ikaslea. "Baltistan herrialdeko beharrak zeintzuk diren aztertzen ari da orain bera, aurrera atera ahal daitezkeen proiektuak identifikatzen. Eta horiek nola aurrera atera erakustea izango da bi neska hauek egingo duten lana", zehaztu du Bego Ugartek.

Orain arteko elkarlana positiboki baloratu dute bai Baltistan Fundazioak eta baita MTAk ere, eta harremanak jarraipena izatea gurako lukete. "Proiektu honek Jaurlearitzak emandako dirulaguntza du, eta behin epea pasa eta balorazioa egiten dugunean ikusi beharko da horrelako beste proiektu bat egin edo beste bat", dio fundazioko Esther Canok. "Oraingo hau Pakistanen egingo da, eta helburua da hango gazte gehiago etortzea hona formatzera, ikasitakoa bueltan euren herrira eramateko. Baina Asiako beste lurralde batzuetan ere ari gara lanean eta, akaso, hurrengo egitasmoa beste toki batean izan daiteke", zehaztu du Ugartek.

# Biktimen arreta hobetzeko pausoa

Oñatiko Udaleko hainbat departamenturen, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren arteko elkarlana den protokolo honen helburua sarean funtzionatzea da, emakumearen birbiktimizazioa ekidin eta arreta ahalik eta integralena bermatu ahal izateko

#### O.E. OÑATI

Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta hobetzeko protokoloa sinatu dute Oñatiko Udalak, Ertzaintzak eta Osakidetzak. Hiru erakunde horien arteko elkarlana da eta sarean funtzionatzea da helburua, emakumeen birbiktimizazioa ekidin eta arreta ahalik eta integralena bermatu ahal izateko. "Protokolo honetan, erakundeen arteko koordinazio mekanismoak findu ditugu eta irizpide bateratuak eta herritarren implikazio aktiboa bilatzeko bitartekariak ezarri ditugu", azaldu zuen Izaro Elorza alkateak asteleheneko sinadura ekitaldian. Eta gaineratu protokolo honen hitzartzea "etengabeko hobekuntza neurriak adosteko oinarria ezarriko duen bitarteko nagusia" izatea gura dutela. Astelehenean egin zen sinadura ekitaldia osoko bilkuren aretoan eta ondoan izan zituen Iñigo Loiola Deba-Urola barrutiko ertzainburua eta Debagoieneko Ospitaleko OSiko ordezkari Esther Kortazar.

#### Hamar puntu

Indarkeria matxistaren biktimaren salaketa edozein bidetik heltzen dela, izan Ertzaintza, izan osasun zentroa, izan Udaltzaingoa edo izan Udaleko Gi-



Protokoloa sinatu duten erakundeetako ordezkariak. O.E.

zarte Zerbitzuak, adibidez, gainerako erakundeek ere horren berri izateko bideak bermatzen ditu txosten honek, ahalik eta laguntza handiena emateko biktimari berari.

Protokoloak arlo bakoitzaren papera zein den jasotzen du, zein bide erabiltzen dituen eta zeintzuk izango diren hemendik aurrerako koordinazio mekanismoak. Bide horretan, datozen hilabeteetan deituko da lehengo koordinazio mahaiaren bilera -Ertzaintzak, Osakidetzak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek

berdintasuna eta udaltzaingoa hartuko dute parte-, eta bilera horretan zehaztuko da mahai horren funtzionamendua, eta lehentasunak ezarriko. Indarkeria matxista prebenitzeko hedatze-kampainak egitea eta protokoloaren ezagutza sustatzea ere jasota daude txostenean.

2016an egin zen emakumeen diagnosiarekin hasita, hiru dokumentu eman ditu prozesu honek. Besteak dira: erantzun publiko instituzionalerako protokoloa eta emakumeen ahalduzterako irizpide bilduma.

## Hilaren 30eko grebaren harira, kale agerraldia eta solasaldiak

Emakumea, lan baldintzak, zaintza eta pentsioak izango dira datozen egunetako ekitaldietako gaiak

#### O.E. OÑATI

Urtarrilaren 30erako deituta dagoen grebara begira sortutako Oñatiko batzordea hasita dago bilerak egiten eta ekitaldi bat baino gehiago ere antolatu ditu datozen egunetarako.

Bihar, esaterako, agerraldi feminista egingo dute, gainerako herrietan bezala. Arratsaldetako lehen orduan izango da, 13:00etan, plazan. Argazkia ere aterako dute, eta ondoren poteoa egin. Eguaztenean, solasaldia

egingo dute zaintzaren inguruan Maider Domingok eta Sdenka Huaracan-ek. Gaztetxean izango da, 18:00etan. Egubakoitzean, *Langile migranteen borroka* izenburua duen hitzaldia egingo du Itsaso Torregrosak ordu berean kultura etxean. Astelehenean, berriz, Ainhoa Etxaide eta Joseba Villarreal joango dira Eltziera pentsioei buruz berba egitera.

Hurrengo bilera irekia astelehenean izango da, 18:00etan, Antixena gaztetxean.





lazo eski irteera gidatuan ateratako argazkia. ALOÑA MENDIKO MENDI SAILA

## Domekan hasiko dira mendi sailaren irteerak

Hamar mendi irteera, eski irteera gidatuak, mendi hamabostaldia, argazki lehiaketa, GPS nabigatzailearen ikastaroa eta 400 euroko dirulaguntza; horixe da Aloña Mendiko mendi sailak mendizaleen gozamenerako 2020rako osatutako eskaintza

### Maialen Regueiro OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak prest dauka dagoeneko 2020rako mendi eta eski irteeren egutegia. Domekan, urtarrilaren 19an, egingo dute urteko lehen mendi irteera. Horrekin batera, azaroan mendi hamabostaldia eta argazki lehiaketa izango dira, datak aurrerago zehaztuko dituzten arren. Urtean zehar mendi sailak GPS nabigatzaileari buruzko ikastaroa antolatzea ere aurreikusitua du.

### 930 lagun federatuta

Mikel Otero Aloña Mendiko mendi saileko kideak 2020rako federatutako herritarren berri eman du: "Guztira, 930 herritarrek eman dute izena sailean. Mendi irteeren kasuan, gainera, geroz eta herritar gehiagok hartzen dute parte ibilaldietan". Azken horren harira, herritarrei proposamen bat egin die Oterok: "Sailean geroz eta arduradun gutxiago gaude eta herritarren batek taldera gehitzeko interesa

izango balu, jar dadila gurekin harremanetan".

### Eski irteera gidatu bikoitza

Mendi sailak gidatutako bi eski irteera antolatu ditu 2020ko negurako: lehena otsailaren 1ean eta 2an eta bigarrena martxoaren 20an eta 21ean. Panticosa eta Batximaña inguruetan arituko dira lehen eski irteera eta izena emateko azken eguna urtarrilaren 24a izango da. Bigarrenean, berriz, Benasquen eta Remuñe bailaran arituko dira. Horrez gain, informazio gehiagorako, mendi sailak eskuragarri jarri du [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com) helbidea.

### 400 euroko dirulaguntza

Aurtengo nobedadea ere izan du hizpide Oterok: "Herriko eragile edo norbanako orok mendi ekintza sustatzeko proiektua aurkezteko aukera izango du, mendi hamabostaldian aurkeztuko dena eta 400 euroko dirulaguntza izango duena".

## Mendi irteerak

- **Urtarrilak 19** Urnieta-Adarra-Andoain.
- **Otsailak 16** Aramotz mendikatea.
- **Martxoak 15** Aralar.
- **Apirilak 19** Kodes mendikatea.
- **Maiatzak 17** Oñati Mugarri Mugarri Barrendiola-Zurkuntz.
- **Ekainak 21** Unanu-Beriain-Goñi.
- **Uztailak 18-19** Sallent ingurua.
- **Irailak 19** Oñatiko Mendi Martxa –ez du mendi sailak antolatzen–.
- **Urriak 18** Puerto de los Tornos-Zalama-Bercedo.
- **Azaroak 15** Oñati Mugarri Mugarri Zurkuntz-Ugastegi.
- **Abenduak 20** Hondarribia-Pasaia.

## "Errepideko lasterketekin hasteko iaz baino hobeto nago"

AIMAR EROSTARBE TXIRRINDULARIA

Gipuzkoako ziklo-kroseko txapeliduna da oñatiarra

### M.R. OÑATI

Ziklo-kros modalitateko hamabost lasterketa izan ditu aurretik denboraldi honetan Aimar Erostarbe txirrindulari oñatiarra. Azkena Ormaiztegiakoa izan da, eta, bertan lortutako emaitzarekin, Gipuzkoako ziklo-kroseko txapeliduna da.

### Pozik egoteko ziklo-kros denboraldia egin duzu.

Bai. Guztira, hamabost lasterketan hartu dut parte eta Zornotzakoa irabaztea izan nintzen, nahiz eta gainerakoetan ere emaitza onak lortu ditudan. Egia esan, pozik nago lortu dudarekin.

### Zein balorazio egiten duzu?


Denboraldi hau gazte mailako lehena da niretzat eta maila aldaketa, gehienbat, denboraldi hasierako bi lasterketan nabaritu nuen. Baina, gutxiaraka, mailara egokitzen joan naiz eta gustura aritu naiz lasterketan.

### Zein da kadete mailatik gazte mailara nabaritu duzun aldaketa nagusia? Zergatik?

Aldaketa nagusia txirrindulariek duten maila dela esango nuke. Horrez gain, lasterketa asko nazioartekoak izaten dira; kasu horietan, kanpoko txirrindulariek hartzen dute parte, eta maila igotzea eragiten du.

### Oñatiko ziklo-krosa hirugarren postuan amaitu zenuen eta oñatiarra onena ere izan zinen. Nola oroitzen duzu lasterketa hura?

Egia esan, Oñatiko lasterketan lortutako emaitzarekin pozik



Aimar Erostarbe txirrindularia. GOIENA

nago, baina ez zen nire egunik onena izan. Sentsazio onak izan nituen arren, arazo mekanikoen oroitzapena dut: katea irten zitzaidan eta gurpilean zulatua izan nuen.

### Nola hasiko duzu errepideko denboraldia?

Bada, Gipuzkoako ziklo-kroseko txapeliduna izateak izugarritzko indarra eman dit errepideko denboraldia hasteko. Izan ere, honek, gehienbat, kategoria berrian nola nagoen ikusteko balio izan dit.

### Fisikoki nola iritsiko zara errepideko lasterketara?

Denboraldia otsail amaieran hasiko da eta irailera arte iraungo du. Fisikoki iaz baino hobeto nagoela esango nuke.

### Helbururik baduzu finkatuta?

Iaz bezala, Euskadiko Selekzioarekin Espainiako Txapelketan parte hartzea, posible bada.

## Txirrindularitzako lizentzien tramitazioa egiteko azken egunak

Urte berria hastearekin batera, lizentziak tramitatzeko epea zabaldu dute. Kasu honetan, datorren astean, urtarrilaren 21ean, 22an eta 23an, 2020ko txirrindularitzako lizentzien tramitazioa egiteko aukera egongo da, Aloña Mendiko bulegoetan. Egun horietan, autonomia eta nazional mailako lizentziak egin edo berritzeko aukera izan-

go dute herritarrek, 19:00etatik 20:30era bitartean.

Lizentzien tramitazioa egiteko hainbat dokumentu aurkeztea ezinbestekoa da, [alonaziklo@gmail.com](mailto:alonaziklo@gmail.com) helbidera bidali daitzekenean: 135 euroko ordainketaren agiria –ES38 2095 5008 29 1061692645 kontu korronte–, nortasun agiri zenbakia eta txartelerako argazkia. Horrez gain, lizentzia egin nahi duenarentzat ezinbestekoa izango da Aloña Mendi txirrindularitza saileko bazkide izatea.



# Domekan egingo dute 'Gag Movie' antzezlan

Madrilgo Yllana antzerki taldeak gidatutako obra hartuko du Santa Ana antzokiak domeka arratsaldean, 19:30ean. Lau antzezle ezberdin igoko dira oholtza gainera, ikus-entzuleak "zorabiatu" eta haiei barre eragitera. Sarrerak salgai daude

## Maialen Santos OÑATI

Yllana antzerki taldeko kideak izango dira protagonista domeka honetan, urtarrilaren 19an, Santa Ana aretoan. Asko dira Yllanak gidatzen dituen antzezlanak; helduei zuzendutako *Gag Movie* eramango dute aretoko oholtza gainera. 19:30ean hasiko da ordu eta laurden inguru iraungo duen ikuskizuna.

Obra osatzen duten lau pertsonaiak Madrildik iritsiko dira herrira, batik bat, zinemari buruz hitz egitera. Hain zuzen, zinema nola egiten den, nola bizi daitekeen eta, "batez ere", zinemaz nola goza daitekeen jakiteko argibideak ematen jar-



*Gag Movie* obrako lau antzezleak. GAG MOVIE

dungo dute ikuskizunak iraun bitartean. Aurreratu dutenez, ikuskizun "zorabiagarria" izango da, oso azkarra, zeinetan umorea beste guztiaren gainetik gailenduko den. Hala, "fotograma bakarrean" garatuko dute istorio guztia.

## Ikus-entzuleekiko konexioa

Cesar Maroto, Carlos Jano, Ruben Hernandez, Susana Cortes eta Antonio de la Fuente antzezleak arituko dira oholtza gainean; eta bertatik kanpo, antzezlanaren parte den gainontzeko lan taldea. Yllanako taldekideek eurek azaldu dutenez, agertoki gainean errekurtsu gutxi erabilita saiatuko dira publikoarengana heltzen, hori izango baita antzezlearen erronka nagusia: ikus-entzuleekin konektatu eta tarte on bat pasatzea.

## Sarrerak eskuragarri

Antzezlanaren ikusteko sarrerak aurretiazko salmentaren bitartez eskuratu daitezke dagoeneko, hamar euroren truke. Txokolateixan, leihatila digitalean edota [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean dauden salgai horiek.

## Soka dantzarekin emango dio hasiera Oñatzek urteurrenari

Oñatz dantza taldeak aurten 50 urte betetzen dituela eta, egitarau oparoa antolatuko dute datozen hilabeteetarako. Zapatu honetan, hilaren 18an, agerraldia egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, urte osorako prestatutakoa aurkezteko, eta bertatik dantzan irtenda egingo diote ospakizunari. Urteurrenoko egitarauaren antolakuntzan diharduen Jon Irizarrek azaldu duenez, soka dantza egingo dute, Aita Madina txistulariekin lagunduta: "Hamarkada bakoitzeko hamar pertsonak egingo dugu; 50ek, guztira". Horien artean izango dira dantzariak eta dantzari ohiak; izan ere, Oñatz osatzen dutenekin eta osatu zutenekin ospatu gura dute urteurrena.

Ekitaldiekin jarraitzeko, urtarrilaren 22an, mahai-ingurua egingo dute. "Oñatzek historian izandako eboluzioari buruz jardungo dugu berbetan", azaldu du, eta dio saio "dinamikoa" izango dela, non anekdotek eta bizipenek ere lekua izango duten.



## Goiena Klubeko bazkidetza %30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo egiten baldin bazara, **zerga onurak** ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota **%30 merkatuko zaizu errenta aitortzen** egiterakoan.



**BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05**  
**EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.**



Hainbat komertziotan deskontuak. | Puntuak aldizkaria astero etxean.  
Deskontuak Goienako iragarki salikatu eta eskeletan. | Zozketak eta promozioak.

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!





ARGAZKIAK: GOIENA

# DKSetan udalek sarituko dituzte

**KIROL SARIAK** Herritarren Sarirako hautagaiak aurkeztu zituzten joan den astean, eta oraingoan, udalek aditzera eman dute ze kirolari edo kirol eragile sarituko duten urtarilaren 28an Seminarixoan egingo duten ekitaldian; bederatzi sari dira

## Xabier Urzelai BERGARA

Ibarreko bederatzi udalek erabaki dute dagoeneko ze herritar saritu gura dituzten DKSetan. Herri batzuetan herritarren esku utzi dute erabakia eta beste batzuetan Udaleko ordezkariak eurek hartu dute erabakia. Hala, kirol lorpenak nabarmendu dituzte batzuek, baina urtetan herriko kirol taldeen alde egindako lana da gehien nabarmendu den sarituaren profila.

## Boluntarioen lana, ezinbestekoa

Izan ere, Debagoiengan neska mutikoen kirola egin dezaten –elite mailara iritsiko diren begira egon barik– ezinbestekoa da, esaterako, Jose Inazio Beloki, Fernando Zufiria, Josetxo Muniategi eta Narciso Pavo boluntarioen lana.

## 1. AITOR MENDIZABAL PILOTARIA

Zortzi urtez Aspe enpresako elastikoa defendatzen ibili eta gero, Aitor Mendizabalek abenduan esan zion agur elite mailako pilotari. Azaroaren 30ean jokatu zuen azken norgehiagoka, Eibarko Astelenan, eta agur borobila izan zen. Tolosak lagunduta, azken norgehiagokan antzularra protagonista izan zen, aurrealdeko koadroetan partidu oso ona egin zuen eta. Bada, hilaren 28an antzularren aitortza izango du.

## 2. AITOR UGARTE MENDI LASTERKARIA

DKSetan Herritarren Sarirako hamar hautagaien artean dago Ugarte, eta, sari hori poltsikoratzen ez badu ere, mendi

lasterkaria ez da esku hutsik etxera bueltatuko, Aramaioko Udalarena jasoko du eta. Gazte mailako mendi lasterkaria abuztuan Italian jokaturako Munduko Txapelketa irabazi izanagatik nabarmendu zen iaz.

## 3. JOSE INAZIO BELOKI PILOTA ENTRENATZAILEA

Gatzagako Udalean ez dute zailtzarrik izan saria emateko orduan: "Orain, erretiroa hartuta dago, baina urte askoan egon da Beloki herriko gazte-txoei pilotan jokatzeko irakasten, eurenako entrenatzaile moduan jardun du, eta herri mailako pilotaren alde lan handia egin izan du", adierazi dio GOIENARI Beñat Agirreurreta zinegotziak.

## 4. FERNANDO ZUFIRIA ATLETISMO ENTRENATZAILEA

Arrasateko atletismoa ez dago ulertzerik Fernando Zufiria Txufi barik. Gazte hasi zen atletismoan, baina istripu bat tarteko kirol jarduera alde batera utzi behar izan zuen, eta entrenatzaile lanetan hasi zen. 1969an, Juventud Deportiva de Mondragonen hasi zen, eta hastapenetatik dago Arrasate Atletiko Taldean. Entrenatzailea, txoferra, txapelketen antolatzailea, prentsa arduraduna, *coach*-a... Zer ez zuen egingo Txufi-k urte hauetan guztietan.

## 5. JOSETXO MUNIATEGI ESKUBALOI ENTRENATZAILEA

Bergarako eskubaloien *alma mater*-a. Jokalari moduan ez zen bereziki nabarmendu, baina oso gazte hasi zen entrenatzaile lanetan. Hala, 80ko hamarkadatik Bergarako eskubaloien alde dabil lanean, bai zuzendaritzan, eta baita entrenatzaile moduan ere. Azken zeregin horiek tartekatuta egin ditu lehenengo taldearen eta harrobiaren artean. Akaso, talde bergarra ez da maila gorenetara iritsi izanagatik nabarmendu, baina harrobiarekin egindako lan emankorra badabil fruituak ematen, bereziki emakumezkoen eskubaloiarekin.

## 6. NARCISO PAVO ARETO FUTBOL ENTRENATZAILEA

Urtetan Eskoriatza Kirol Elkarteko erreferenteetako bat izan da, eta Manuel Muñoz zenaren ondoan, Pavok areto futboleko sailean egin du bereziki lan. 2013an Espainiako areto futboleko elkarte nazionalak (ANEFS) entrenatzaile

onenaren saria eman zion. Bereziki emakumeen taldea sortu izanaz eta gaur egun areto futbol eskolan egiten dabil-tzan lanaz dago harro. Duela bi urte, Nazional mailako Las-korain taldeak fitxatu zuen.

## 7. OIHANA ALDAI FUTBOLEKO ATEZAINA

Aldai ere DKSen Herritarren Sarirako hautagaien artean dago. Iaz, Realarekin Erreginaren Kopa irabazi zuen Malagan, eta garaikurra aretxabaletarrei eskaini ahal izan zuten herriko plazan. Aurtengo denboraldia Eibarren hasi zuen, baina gustura ez zegoelako airez aldatzea erabaki berri du, eta Kordobako talde batek fitxatu du.

## 8. IÑAKI OLAORTUA FUTBOL JOKALARIA

Eibarko harrobian hazitako jokalaria, eta hirugarren mailako hainbat klubetan zaildutakoa, 2014an Portugaletetik fitxatu zuen elgetarra, eta talde bizkaitarra Bigarren B mailara igo zen urte hartan. Aragoira joan zen jokatzera, eta Zaragozarekin egin zuen debuta 2015ean.

Hala, elgetarra 2018tik Santanderko Racing taldeko atzeko lerroan jokatzeko dabil.

## 9. MARKEL IRIZAR TXIRRINDULARI OHIA

Udal saritu guztien artean eza-gunenak, Trek-Segafredo taldeko ziklista ohiak, 16 urte egin ditu profesionalismoan. Oñati-koari nazioarteko lider handienendako lan egitea egokitu zaio, eta, hain zuzen, lan horretan nabarmendu da. Iaz hartu zuen erretiroa, Donostia Klasikoan; Oñatin egin zuten agur jaia.

## Jende asko dabil botoa ematen

Seminarixoan banatuko dituzten hamalau sarien artean bat Herritarren Saria izango da, eta *Goiena.eus* atariaren bitartez antolatzaileak hamar hautagaien gaineko botoak jasotzen dabilta. Hala, iazko DKSen ekitaldian guztira 1.880 lagunek eman zuten botoa eta Martin Perez eskoriatzarrarendako izan zen saria. Egia esan, sariketarako emozio txikia izan zuen, eskoriatzarrek egindako herri barruko kanpaina benetan eragingarria izan zelako eta abantaila galantarekin irabazi zuelako Perezek.

Aurten, berriz, indarrak oso parekatuta daude. Hamar hautagaiak dabilta botoak jasotzen –eguen goizean, 1.220 lagunek emana zuten botoa–, baina bereziki hiruk abantaila hartu dute. Urtarilaren 23a izango da botoa emateko azken eguna.





Ford Mugarri Arrasatek eta Escolapiosek iaz jokaturako partiduaren irudi bat. GOIENA

# Urtarrileko aldapa ez dadila gogorregia izan

**ESKUBALOIA** Urteko lehenengo jardunaldian Ford Mugarri Arrasate eta Fagor Industrial esku hutsik etorri ziren etxetik kanpora jokaturako norgehiagoketatik. Biek ala biek atzeko postuetatik irten guran dabilzan kontrarioak izango dituzte asteburuan

**Xabier Urzelai** ARRASATE Bigarren itzulia hasi orduko Hondarribiak errebantxa hartu du. Liga hasieran Ford Mugarri Arrasatek 27-24 irabazi zien Iturripen, eta joan den astean, bigarren itzuliko lehen partiduan, balantza orekatzeko kapaz izan ziren Hondarribikoak, emaitza berberarekin, gainera (27-24). Fagor Industrialek ere galtzen

hasi du urtea. Bigarren dagoen Basauriren kantxan jokatu zuten oñatiarrek urteko lehen partidua, eta joanekoan Zubikoan gertatu zitzaizen moduan, tarte txikiagatik bada ere Basaurik partidua irabaztea lortu zuen (22-19)

Hala, Euskadiko Txapelketan aurrealdean dabilzan bi talderen kontra jokatzetik atzeko postuetatik ihes egin guran da-

biltzanen kontra jokaturako dute oraingo astean; etxean, gainera.

## Urnieta eta Ugeraga

Bihar, Urnieta hartuko dute oñatiarrek (18:15, Zubikoa). Urnietak bost jardunaldi darabazten partidurik irabazi barik. Domekan, berriz, hiru partidu irabazi dituen Ugeraga izango da Iturripen (11:15).

## Kontrario zuzena Aloñako neskendako

Construcciones Aloña Mendiko neskek atzaldeko postuetatik ihes egiteko borrokan dabilza, eta horiek ere galdu egin zuten urteko lehen partidua (19-26) Aialaren kontra.

Hala, oñatiarrek bigarren astez jarraian jokaturako dute Zubikoan, eta oraingoan atzeko postuetan kontrario zuzena den Petronor Muskiz izango dute aurrean (zapata, 16:30).



Construcciones Aloña Mendiko neskek, joan den zapatuan. I.ZABALA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

**Eibar-Aretxabaleta**

Zapatua. 16:00. Unbe.

**Mondra-Ordizia**

Zapatua. 16:30. Mojategi

**Añorga-Bergara**

Zapatua. 17:00. Rezola.

ERREGIONAL PREFERE.

**Antzuola-Beasain**

Zapatua. 16:00. Estala.

**Soraluze-Aloña Mendi**

Zapatua. 17:30. Ezozia.

**Lagun Onak-Mondra**

Domeka. 15:30. Garmen.

**UDA-Lagun Onak**

Domeka. 16:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

**Burumendi-Aretxabal.**

Zapatua. 16:45. Mutriku.

**Tolosa-Bergara**

Zapatua. 17:30. Tolosa.

**Ilintxa-Mondra**

Domeka. 17:00. Legazpi.

**Elgoibar-Aloña Mendi**

Domeka. 17:30. Mintxeta.

EMAKU. OHOREZKO E.

**Leintz Ariz.-Ostadar**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Bergara-Lagun Onak**

Domeka. 11:30. Ipintza.

EMAKU. GORENGO MAI.

**Leintz Aloña**

Atsedena.

### ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO SENIORRA

**Idiazabal-Mondrate**

Gaur. 22:00. Idiazabal.

GIP. BIGARREN SENIOR

**Legorreta-Eskoriatza**

Gaur. 20:30. Legorreta.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

**Eskoriatza-Laskorain**

Gaur. 22:00. M.Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

**Fagor Industri.-Urnieta**

Zapatua. 18:15. Zubikoa.

**Ford Mugarri-Ugeraga**

Domeka. 11:30. Iturripen.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

**Cons Aloña M.-Muskiz**

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**Ormaiztegi-Soraluze B.**

Zapatua. 17:45. Zubipe.

SASKIBALOIA

SANTURTZI-MU

**Ardoi-MU**

Domeka. 18:00. Iruñea.

EUS. BIGARREN MAILA

**Alk. Ointxe-Unamuno**

Zapatua. 20:00. Iturripen.

**La Salle-Mek. Aloña**

Zapatua. 20:30. Bilbo.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

**B. Soraluze-C.Aitona**

Zapatua. 16:00. Labega.

SENIOR HIRUG. MAILA

**Alde Zaharra-MU**

Zapatua. 20:00. Donostia

GIP. SENIOR EMAKUME.

**Eskoriatza-Ostadar**

Gaur. 20:15. M.Muñoz.

PILOTA

ARETXABAETA

Egubakoitza. 19:00etan

hasita, bost partidu.

OÑATI

Egubakoitza. 19:00etan

hasita, lau partidu.

ANTZUOLA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita partidu bat

BERGARA

Egubakoitza. 20:30ean

hasita, hiru partidu.

Zapatua 17:30ean hasita

hiru partidu.

## FUTBOLA Bigarren astez jarraian, Mondrak etxean

Ohorezko erregionalean Aretxabaletak eta Bergarak ostera ere kanpoan jokaturako dute. Mahoneroen kontrario Añorga bosgarren dago sailkapenean eta UDAREN kontrario Eibar Urko lider dago kategorian. Hala, joan den astean Euskaldunari irabazi eta gero, Mondrak atzealdean dagoen Ordiziaren bisita izango du bihar (16:30).

## SASKIBALOIA Bi puntuko alde dago Ardoiren eta MUREN artean

Oraingo asteburuan ere etxetik kanpora jokaturako du Mondragon Unibertsitateak, Zizur Nagusian. Santurtzin irabazi eta gero (66-82), zuri-moreek hirugarren posturaino egin dute salto, eta domekan, bi puntu gutxiago dituen Megacalzado Ardoi izango dute kontrario. Bigarren itzuliko lehena izango da; joanekoan, arrasatearrek 76-65 irabazi zuten.

## ENDUROA Arrasateko lasterketa ekainaren 28ra aurreratu dute

Dagoeneko jakinarazi dute noiz egingo duten aurtengo Arrasateko enduro lasterketa. Uda aurretik izango da, San Juan jaiak ospatu eta berehala, ekainaren 28an. Iazkoa arrakastatsua izan zen, eta Espainiako Txapelketarako proba puntuagarria, gainera. Oraingoan, ez dute izen-emate epea zabaldu, dataren berri eman baino ez.

## MENDI LASTERKETAK Dortsalek, aurten ere, 'hegan' egingo dute

Urtarrilaren 4an ireki zuten otsailaren 16an egingo duten Antzuolako 8 Miliak lasterketarako izen-emate epea, eta hiru orduan dortsalek guztiak agortu ziren. Eta gauza berbera gertatuko da, seguruenik, Arrasate-Udalatx proban ere. Apirilaren 5ean egingo dute lasterketa, eta otsailaren 2an zabalduko dute izen-ematea, *Kronoak.com-en*.





Eli Pagola, Unai Iturriaga eta Xabi Igoa, iaz Barañainen egin zuten Bertso Egunean. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Bost bazkarietako txartel guztiak agortuta daude

12:30ean, guztiontzako zabalik dagoen ibilaldia egingo dute herrian zehar, Amillena elkarteak eta bertsolariak gidatuta; bazkarien ostean, Urolako trikitilarien kalejira izango da Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen 51. Bertso Eguna borobiltzeko

**Aitziber Aranburuzabala** ARAMAIO Harriduraz baina pozik jaso zuten bertso-eskolakoek Bertso Eguna herrian egiteko proposamena; honela adierazi du Andere Arriolabengoa Aramaioko bertso-eskolako kideak: "Ez genuen espero herrian halakorik egitea, eta gure eskolarentzako oso pozgarria da. Hasieran, bel-durtu egin ginen erantzukizu-

narekin, baina aitortu behar dut Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak izan duela antolatzen pisu handiena. Urteetako eskarmentua du halakoak antolatzen".

### Aramaion, 51. aldia

Urteroko jaia ibiltari egitea erabaki zuen elkarteak orain dela bi urte, eta hala egin zuten Mungian (Bizkaian) lehenengoa eta

iaz Barañainen (Nafarroa); or-dura artekoak Donostian egin zituzten. "Bertsozale Elkarteak lurralde guztian eragiten du eta horregatik erabaki zen Bertso Eguna Donostiatik harago antolatzea eta izaera ibiltaria ematea jaialdiari. Bertsoaren bueltan ospakizun bat egitea da Bertso Egunaren helburua; hau da, tokian tokiko bertsoegintzari

aitorpena egin eta zaletasuna sustatzea bertsoarekin gozatuz. Oraindik ez dago guztiz finkatuta, baina datorren urtekoak Ipar Euskal Herrian egitea egokituko litzateke", dio Euskal Herriko Bertsozale elkarteak.

### Bertso-saio irekiak ere bai

Lau bertso-bazkari ziren hasiera baten egitekoak, baina txartelak segituan agortu, eta bosgarrena antolatu zuten eskolako jangelan, eta txartel horiek ere segituan saldu zituzten; hori horrela, 250 lagunetik gora elkartuko dira biharko bazkarietan. Herrian ere ilusioa sumatzen dela dio Arriolabengoa: "Bazkaltzeko txartela erosi dute askok; orokorrean, jendea pozik sumatzen dugu Euskal Herri mailako ekitaldi garrantzitsua herrian egiteagatik".

Punta-puntako bertsolariak izango dira bazkarietan, jatorri, adin eta profil ezberdinetakoak: Nerea Elustondo eta Unai Iturriaga, Ehiztari txokoa; Eneko Lazkoz eta Miren Artetxe, Izarra elkarteak; Onintza Enbeita eta Sebastian Lizaso, Urribarriko elkarteak; Ane Labaka eta Iñaki Viñaspre, Zabolako elkarteak; eta Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi, eskolako jangelan. Eta ez dira nolanhikoak ere eguerdiko bisita gidatuen parte hartuko dutenak: Andoni Egaña, Ane Zuazubiskar, Irati Majuelo, Jokin Uranga, Martin Abarra-tegi, Amaia Iturriotz, Oihana Iguaran, Sustrai Colina eta Xabi Igoa. "Bizente Goikoetxea plazatik abiatuko gara 12:30ean eta bi geldione izango ditu: elizpean eta parkean. Aukera polita izango da Aramaioko historia eta bitxikeriak bertsolarien bitartez jasotzeko. Gune bakoitzean hiru bertsolarik kantatuko dute".

### Arabian, 33 bertso-eskola

Biharko eguna goizago hasiko da Arabako bertsozaleentzako; izan ere, urteko batzarra egingo dutela azaldu du Arabako Bertsozale Elkarteak kide Uxue Diaz de Ceriok: "2019aren balorazioa eta 2020ra begira ditugun asmoak azalduko dizkiegu irakasleei eta elkarteak langileei. Azken urteetatik hona elkartearen proiektuak, orokorrean, hazi egin dira. Askotarikoak egin ditugu iaz; besteak beste: haur eta gazte-txoekin hiru egonaldi; 150 bertso-saio; gazteendako sariketa eta topaketak; Arabako Bertsolari Txapelketa; Araba eta Gasteiz Bertsozale egitasmoak; *Altza Kopla Hori* eta *Bertxoko* izenekoak...".

Gaur egun Arabian 33 bertso-eskola daudela azaldu du Diaz de Ceriok: "26 eskolatan irakasleek gidatzen dituzte lan-jardun edo saioak, eta autonomoak dira gainontzekoak; 206 partaide dira, denera, eta, horrez gainera, ikastetxe askotan ere irakasten dute bertsoegintza, iaz, esaterako, 3.500 ikaslek jaso zituzten eskolak".

### Bertso Kuadrilla Artekoa

Batzar orokorraren aurretik, baina, VI. Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketa aurkeztuko dute Aramaioko udal-txean, 09:15ean hasita. Parte hartuko duten taldeetako eta elkarteak ordezkariek izango dira aurkezpenean, sariketa berriko saioen datak eta tokiak azaltzeko.

## EUSKAL HERRIKO BERTSOLARIEN ETA BERTSOZALEEN TOPAGUNE IZANGO DA BIHAR ARAMAIO

## KONTZERTUA: MOONSHAKERS

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

KOOLTUR EKINTZAKO KIDEEKIN ELKARLANEAN EKOIZTUTAKO SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.





# "Gizartera ekarri dut zetazko harren aldaketa"

MIKEL GARTZIARENA IDAZLEA

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak antolatzen duten Karmele Igartua sariketa irabazi du Mikel Gartziarenak 'Harrak' narrazioarekin: 2.500 euroko saria

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA

Hamasei lan aurkeztu ziren eta epaimahaiak donostiarrarena aukeratu zuen, argudio hauekin: "Lana irakurtzea gozamina izan da, txukun idatzia dago eta une oro tentsioa mantentzen du".

*Hemen Debagoiena* saioan elkarriketatu zuen Txomin Madi-nak, martitzenean.

**"Benetan aipagarria" dela esan dute epaimahaikideek. Ez dira nolanhiko hitzak, ezta?**

Oso pozik nago esandako guztiekin, saria baino betegarriagoa da, egoan fereka bat ematen dizu, ondo egin duzun seinale.

**Espero zenuen irabaztea?**

Ezta gutxiagorik ere; gauza txukun bat atera zitzaidan eta hala bidali nuen, baina halakorik espero gabe.

**Ezagutzen zenuen sariketa?**

Idazle Eskolan ibilitakoa naiz eta handik ezagutzen nuen; urtero lehiaketaren generoa aldatzen dute eta aurten narrazioa jarriko zutela jakin nuenean aurkeztea pentsatu nuen, ongien edo gusturen nabil horretan.

**Harrak lanarekin lortu duzu saria. Zer kontatu duzu?**

Izenak dioen moduan, zetazko harrak hartu ditut oinarri, txikitako bizipen bategatik, amarekin eta arrebarekin ibiltzen nintzen-eta horiei begira. Gizartera ekarri dut harretik tximelarako transformaziorako bide hori; orain oso nabarmenak dira aldaketak eta aldaketa garaiak. Aldaketak, egia esan, beti daude, eta orain, loratzen edo tximeleta bilakatzen ikusten ditugu; nahiz eta asko har horiek zapaltzen edo atzera egiten saiatzen diren, azkenean, atera egiten dira.

**Nolakoa izan da idazketa prozesua?**

Buruan aize joko nuen ideia bat, hainbat alditan etortzen zitzaidana, baliagarria zelakoan, koardernoan apuntatu eta lantzen hasi nintzen. Hamar-hamabi orri bitarteko idazlana egin behar



